

berria



Juan Luis Zabalak
'Dimisioa'
ipuin liburua
aurkeztu du
KULTURA • 30

Estatuaren biktimak aitortzeko baliabide gehiago eskatu ditu balorazio batzordeak

Adituek hirugarren txostena aurkeztu dute Eusko Legebiltzarrean: beste 66 biktima bildu dituzte
• Lanerako traben berri eman dute, eta «gizartean dagoen anestesia orokorra» gainditzera deitu dute

EUSKAL HERRIA • 4-5



URRIKO AZKEN OTARRA

Tokiko produktuen kontsumoa indartzen ari da, eta horren adierazle izan da Gernika-Lumoko azken asteleheneko azoka.

BIZIGIRO • 38-39

Urriko azken asteleheneko azokak jendetza erakarri zuen atzo Gernika-Lumora.

ARITZ LOIOLA / FOKU

Netanyahuk uko egin die Gazan menia emateko eskaerei

«Su etenerako deiak amore emateko eskea dira», adierazi du Israelgo lehen ministroak. Gaza hiria inguratu du armadak. 8.300 palestinar baino gehiago hil ditu urriaren 7tik.

MUNDUA • 13

Etorbidearen zubia, Irun eta Hendaia artean, atzo.

JAVI COLMENERO / EFE



Muga. Zubia irekita, baina zaintzapean

EUSKAL HERRIA • 7

Hizkuntza ereduak kentzeko eskatu dute euskaltegiek

Helduen euskalduntze eta alfabetatze arloan aritzen diren herri ekimeneko elkarteek eta zentroek uste dute ereduak «tresna atzerakoiak» direla, eta «normalizaziorako muga».

HARIAN • 2-3

Gabriel Aresti frankismoaren biktimatzat onartu du Espainiak

EUSKAL HERRIA • 5

Xabier Artetxe. 2024ko Ineos prestatzen

TANTOA • 21-28





Helduen euskalduntze eta alfabetatze arloko ordezkariak, atzo, Bilbon. MARISOL RAMIREZ / FOKU

Hizkuntza ereduak desagertzeko eskatu du euskaltegien sektoreak

Helduen euskalduntze eta alfabetatze arloak uste du ereduak «muga» eta «tresna atzerakoia» izan direla • Euskara «ikas eta irakas hizkuntza» izango duen «eredu inklusiboaren» alde egin dute

Gotzon Hermosilla Bilbo

Helduen euskalduntze eta alfabetatzea etorkizunean desagertzeko asmoz sortu zen duela hirurogei urte, egunen batean beren lana beharrezkoa ez zela izango pentsatuz eta irrikatuz. Zorritzarez, egun hori ez da iritsi, euskara bere erabateko normalizaziotik urrun dagoelako oraindik, eta horren arrazoietakoa bat da hizkuntza sistemak ez duela lortzen eskoletatik ateratzen diren belaunaldi berriak euskalduntzea. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Hezkuntza Lege berria eztabaidatzen ari den honetan, helduen euskalduntzean eta alfabetatzean aritzen diren erakunde, sare eta euskaltegi nagusiak plazara atera dira, eta hizkuntza ereduak desagerrarazteko eskatu dute, «euskararen normalizaziorako muga izan diren tresna atzerakoia» direlakoan.

Herri ekimenez sorturiko euskalduntze eta alfabetatze elkarte eta euskaltegiek babestu dute es-

Irudia • Donostia



Legeari ezetza, eskola publikoa aldarri

Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformak deituta eta *Euskal eskola publikoaren alde, Hezkuntza Lege honi ez!* lelopean, manifestazioa egin zuten herenegun Donostian. Hainbat kritika egin zizkioten Hezkuntza Legearen egitasmoari: eskola publikoa hezkuntza sistemaren arretagunean jarri ez izana, eta sistema publiko-pribatua betikotu nahi izatea, besteak beste. GORKA RUBIO / FOKU

kaera. Horien artean daude AEK, Elkarlan sareko Gabriel Aresti, Bilbo Zaharra eta Joan Mateo Zabala euskaltegiak, Batuz elkarte-ko Ulibarri, Urrats, Ilazki, Hitzez, Legazpi 6, Altza-Urumea, Herri Jakintza eta Udaberria euskalte-

Euskaltegien ustez, denborak erakutsi du umeak eskolaratzea ez dela nahikoa euskara berreskuratzeko

«Hezkuntza Legeak euskara gehiago behar du, gutxien duenari gehiago eman ahal izateko»

giak, Gasteizko, Nafarroako eta Errioxako IKA, Leizaur, Jose Antonio Agirre, Bai&By eta Maizpide barnetegia.

Haien izenean AEK-ko Aize Otañok azaldu duenez, euskararen normalizazioak hiru ardatz izan behar ditu: hezkuntza, transmisioa eta helduen euskaldun-

tzea eta alfabetatzea. «Hirureta-ko batek kale eginez gero, herren eta nekez iritsiko gara euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa erdiestera».

Hala ere, urte askoan batzuek pentsatu dute eskolaren bidez haurrak euskalduntzeak berez ekarriko zuela etorkizun hurbil batean euskara berreskuratzea: «Tamalez, denborak garbi erakutsi digu hori ez dela nahikoa; irakaskuntza arautuaren mugak agerikoak dira». Horregatik, «estrategikotzat» jo dute helduen euskalduntze sektoreak egiten duen lana: «Euskararen normalizazio prozesuan beharrezkoa da herritar guztiek euskaraz jakitea eta euskara eroso erabili ahal izateko guneak izatea; horretan guztian gure sektoreak ezinbesteko ekarpena egiten jarraitzen du».

Bermerik ez

Eusko Legebiltzarrean Hezkuntza Lege berria onartzeko prozesuari ekin diotela eta, euskaltegiek kezka ikusi dute hizkuntza ereduak betikotzeko arriskua dagoela: «Ereduen sistemak ez du inondik ere bermatzen etorkizuneko belaunaldi euskaldun elea nitzunak sortzea, eta, are gutxiago, ezarritako euskaraz komunikatzeko gaitasun mailak izatea».

Helduen euskalduntze eta alfabetatze arloko eragileek nabarmendu dute legearen zirriborroak, euskara sistema berriaren «ardatz» izatea jasotzen duen arren, ez duela argitzen helburu iristeko zein hizkuntza ereduri jarraituko zaion: «Nola interpretatu behar dugu sistema eleantuna izatea?», galdetu dute.

Eragileen ustez, «euskara ikas eta irakas hizkuntza izango duen ikas eredu orokortu inklusibok» izan behar du oinarria: «Hezkuntza Legeak euskara gehiago behar du, gutxien duenari gehiago eman ahal izateko».

«Zalantzarik ez dugu hizkuntzaren eremuan hutsune nabarmenak dituela legeak», adierazi dute euskaltegiek. «Gure sektorea etorkizunean desagertzeko asmoz sortua izan zen eta, lege proposamen honek aurrera egin ez gero, ez dugu inoiz lortuko».

Otañorekin batera, sektoreko elkarteetako zenbait ordezkari egon dira aurkezpenean: Gabriel Aresti euskaltegiko Isa Isazelaia, Maizpide barnetegiko Laida Begiristain, Juan Mateo Zabala euskaltegiko Nerea Telleria, Bilbo Zaharra euskaltegiko Jon Maguregi eta AEK-ko Lurdes Etxezarreta, Aitzol Gastañazatorre eta Galder Lizarralde.



Igeregi eta Orbegozo atzoko agerraldian. OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

ELAk Jaurilaritzari egotzi dio administrazioan euskara lehenesteko urratsa ez egitea

Txosten bat egin du funtzio publikoan euskara normalizatzeko ontze bidean den dekretu proiektuaren harira, eta hainbat puntu ilun jaso ditu

Arantxa Iraola

«Eusko Jaurilaritzak sektore euskarafoben presioari men egin, eta uko egin dio hizkuntza eskubideak parekatzeari. Ondorioz, aurrerantzean ere gaztelania izango da lehenasunezko hizkuntza. Herritarren kasuan, euskaldunok geure burua nabarmen jarraitu beharko dugu euskaraz artatuak izateko»; azterketa kritikoa egin zuen atzo ELA sindikatuak Eusko Jaurilaritzari administrazioan euskara normalizatzeko ontzen ari den dekretuaz. Txosten bat aurkeztu du sindikatuak, adierazteko zer proposamen egin dituen arlo horretan. Txostenaren esanetan dekretuan badaudela aurrerapauso batzuk jasota, baina puntu ilun hainbati ere erreparatzen zaie.

ELA-Gizalaneko zuzendaritzak kide Aintzane Orbegozok eta sindikatuko Euskara arduradun Pello Igeregi hartu zuten hitza atzo txostena aurkezteko agerraldian. Bilbon izan zen. Salatu zuten, gaur egun Araba, Bizkai eta Gipuzkoako zerbitzu publikoe-

tan ohikoa da hizkuntza eskubideak urratzea. «Egun, herritarrek ez dute bermerik administrazioetan euskaraz artatuak izateko». Onartu zuten alorrez alor egoera aldatzen dela, baina uste dute badirela «zapalkuntza sistematiko» baten adierazpenak. Osasun sistemako zenbait arlotan, esaterako, edo justiziaren eremuan. Langileen eskubideen zapalketa bat ere badagoela ikusten dute. «Langile publikoak behartuta daude, oro har, gaztelaniaz lan egitera. Horregatik exijitzen da gaztelaniaren ezagutza lanpostu publikoen %100ean, eta

euskararena soilik lanpostu batzuetan», deitoratu zuten. Eta esan zuten Jaurilaritzari ontzen ari den araudi berriak ez dakarrela sakoneko aldaketarik. «Dekretu proiektuak egoera hori normalizatu eta arautzen du, berriz ere».

Zehazki, salatu zuten, adibidez, dekretu proiektuak «debekatu» egiten duela euskara oinarritzko ezagutza gisara eskatzen den lanpostuetan ezagutza handiagoa meritu gisara aintzatestea. Horrek esan nahiko luke, sindikatuaren arabera, B2 maila eskatzen bada ez dela «meritu gisara» puntuatuko maila jasoago bat,

Udaleta foru langileek protestak egingo dituzte

«Euskararen erabileraren kontrako oldarraldi judiciala bete-betean nozitzen ari dira udal eta aldundietako langileak», gogora ekarri du LAB sindikatuak, ohar baten bidez. Iragarri du udal eta foru langile-

ek protestak egingo dituztela asteon, ebazpen horiei desadostasuna erakusteko. Dei egin du, bide batez, larunbatean Euskalgintzaren Kontseiluak deituta oldarraldi judicialaren aurka egingo den manifestazioan parte hartzea. Protesta Donostian egingo dute gaur foru langileek. Barakaldon (Bizkaia) eta Laudion (Araba) egingo dira hilaren 2an; Iruñean, 3an.

Hainbat kritika egin dizkio ELAk dekretu proiektuari.

Hona horietako hainbat:

Aplikazio eremua. Esan dute dekretuak sektore publiko osoa hartzen duela aintzat, aurrerapausoa dela hori, baina badirela hutsuneak. Baga: Estatuko administrazioa kanpo dago. Biga: hizkuntza eskubideak okerrean dauden eremuetan dekretua ez da aplikagarria izango 2033ra arte, eta hori atzerapen handia da.

Hizkuntza eskakizun asimetrikoak. Dekretu proiektuaren arabera, era izango da lanpostu hainbatetan ahozko eta idatzizko komunikazioan maila ezberdinak eskatzeko. Ondo deritzo ELAk, baina uste du dekretuak ez duela behar besteko neurririk ezartzen «amarruen eta iruzurren» aurka.

Derrigortasun indizea. ELAren arabera, dekretuaren beste puntu ilun bat da derrigortasun indizea mantentzen duela; horren arabera erabakitzen da zenbat lanpostuk izan behar duten izendatuta derrigorrezko hizkuntza eskakizuna.

Behin-behinekotasunerako neurririk ez. Administrazioan behin-behinekotasuna %40 ingurukoa izan arren, behin-behineko langileentzako neurririk ez dago.

Meritu gisara ez du balio. Eskatutako euskara ezagutza baino handiagoa izatea meritu gisara ez onartzea ere kritika-garria dela adierazi du.

adibidez. Hortik kritika: «Inork imajina dezake oposizioetan ikasketetan gradua eskatua bai, baina espresuki eta legez debekatzeko meritu gisara master bat puntuatzea? Bada, hori da Eusko Jaurilaritzak proposatzen duena».

Hamabost urtean

Zuztarreko aldaketak behar direla iritzita, bi hizkuntza ofizialak «parekatzeko» garaia dela uste du ELAk. Eta proposamen zehatz bat egin dio Eusko Jaurilaritzari bide horretan: hamabost urteko trantsizio epe bat diseinatzea egungo egoeratik elebitasunera igarotzeko, langileak euskalduntzeko neurri eta baliabideekin. «Helburuetan irmoak eta bidean malguak izateko garaia da», azaldu zuen Igeregi. Ekiteko esan zion Jaurilaritzari: «Bestela, gaztelaniaren nagusitasuna normalizatu egiten da». Bide horretan, sindikatuak dei egin die herritarrei larunbat honetan Bilbon Euskalgintzaren Kontseiluak euskararen normalizazioaren aurkako epaiak salatzeke egingo duen manifestazioan parte hartzea.



Jon Mirena Landa eta Juana Balmaseda batzordekideak —lehen planoan—, Eusko Legebiltzarrean, atzo goizean. JAIZKI FONTANEDA / FOKU

Estatuaren biktimen inguruan dagoen «anestesia orokorra» gainditzera deitu dute

Poliziaren Biktimen Balorazio Batzordeak 66 biktima aitortu ditu bere hirugarren txostenean • Legea erreformatzeko eskea helarazi die alderdiei

Xabier Martin - Iosu Alberdi

«Beren kabuz hitz egiten» duten 66 biktimaren testigantzak jaso ditu motibazio politikoko giza eskubideen urraketak jasandako biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko batzordeak hirugarren txostenean, 131 espediente aztertu ostean. Horien artean zazpi hilketak —tartean, Joxi Zabalarrena eta Josu Mujikarena— eta 49 tortura kasu daude, besteak beste. Batzordeko presidente Juana Balmasedak talde politikoei eskatu die aurrerantzean ere «baberestu» dezatela biktima horiei egia eta erreparazioa emateko egiten duten lana. Eta, horretarako,

bitarteko gehiago eskatzea gain, galdegin die erreformatzeko batzordea sostengatzen duen legea. Batzordeko kide Jon Mirena Landak, berriz, azaldu du atal judizialean justizia egin ahal izateko, aurrera gainditu egin behar dela «gizartearen dagoen anestesia orokorra».

Batzordeak txostenean azaldu duenez, egun dituzten baliabideekin ezin dituzte bideratu iristen zaizkien eskaera guztiak, eta horiek atzerapenak eta, ondorioz, «frustrazioa, inpotentzia eta sufrimendu erantsia» eragiten ditu. Hala, errefortzuak eskatu dituzte, auzitegi perituen taldea laguntzeko, auzitegiatar iritsitako kasuak

aztertzeko eta Justizia Administrazioaren eta batzordearen arteko lana errazteko.

Horrekin batera, epeak malgutzeko beharra azpimarratu du Balmasedak, «disfuntziorik» gerta ez dadin. Zergatik den beharrezkoa? Balmasedak Lasa eta Zabalarren auziari erreparatu dio al daketaren beharra azaltzeko. Joxi Zabala biktima gisa aitortu du plaza berri den txostenak, baina Joxean Lasa ez, azken horren familiaren eskaera ez delako sartu «epe zorrotzen barruan».

Baina badaude beste aldagai batzuk legea erreformatzeko eskaeraren atzean. Landak garbi esan du «terrorismoaren bikti-

men aldean bazterturik» sentitzen direla motibazio politikoko giza eskubideen urraketak jasandakoak; esaterako, kalte ordainetan. Hala jaso dute Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari helarazitako gomendioetan ere, batzordearen arabera egungo legeak ez baitu bat egiten «biktimen errealitatearekin, ezta nozitu zituzten urraketen etiologiarekin ere». Izan ere, txostenaren arabera, egungo sistemarekin, ondorio larri eta iraunkorrak ez dituztenek ez dute kalte ordainik jasotzen, edo «ordain benetan barregarriak» jasotzen dituzte.

Eman beharreko pausoak espilikatu ditu Landak: «Lehen

urrats gisa, egia jakin eta azalera-tu egin behar da, gero justizia iritsi dadin». Eta horretarako, batzordeak egin dituen «txostenak hedatzeko» eskatu diote Eusko Legebiltzarrari, «baita Espainian ere», ikusten baitute biktima horien txostenak ez direla iristen: «Ez dira mugitzen ari».

Balorazio batzordeak ekitaldi instituzionalak egitera ere deitu du, biktimei aitortza egiteko. Eta bide horretan, Eusko Jaurlaritzak ekitaldi bat egingo du gaur, Donostiako Kursaallean.

BIKTIMAK ETA BIKTIMARIOA

2022ko uztailetik 2023ko ekainera bitarte, batzordeak 131 espedienten inguruan ebatzi du, eta horietatik 66ri eman diete aitortza —dena, 147 aitortu dituzte orain arte—. Urraketa gehienak Gipuzkoan gertatu ziren (48), eta hamar Euskal Herriatik kanpo. Era berean, kasu gehienak 1970eko hamarkadakoak dira. Biktimei dagokienez, 66tik 11 emakumeak dira, eta bi herenek 24 urte edo gutxiago zituzten urraketak pairatu zituztenean —bost lagun 16 urtetik beherakoak ziren—.

Biktimarioei dagokienez, berriaz, Guardia Zibila eta Espainiako Polizia nabarmentzen dira: hamazazpi kasutan, lehena da urraketen egilea; 32 kasutan, bigarre-



na; eta 11 kasutan, biak –Ertzaintzarekin lotutako kasurik ez dago–. Talde parapolizialei dagokienez, BVE, Triple A, ANE, GAL eta Guerrilleros de Cristo Rey ageri dira txostenean.

HILKETAK

Txostenean bederatzi hilketa ageri dira: zazpi poliziek edo eskuin muturreko taldeek tiroz hil zituzten; bat eskuin muturreko talde batek «kolpeka, bortxatu ondoren»; eta azkena, Joxi Zabala, «bahitu, bortxaz desagerrarazi eta torturatu ondoren hil zuten».

Izatez, Joxi Zabalarena da txostenean osorik ageri den izen bakarra, kasua zein ezaguna den kontuan hartuta hura plazaratzea ebatzi baitute. Gorpuak Tolosan (Gipuzkoa) ehorzteko prozesuak senideek eragindako «mina» ere jasotzen da testuan.

Poliziak hildako biktimen artean dago Josu Mujika ere. Haren senideek ostiralean eman zuten horren berri, Legazpin (Gipuzkoa) egindako agerraldi batean. 1975eko uztailaren 30ean hil zuen Poliziak, tiroz, Madrilén, ETApnaren aurkako operazio batean. Haren kasuaren berri ematean, batzordeak azaldu du ezin izan duela zehatz-mehatz ebatzi zer gertatu zen, eta salatu du kasu haren ikerketa ez zela independentea

izan: «Desagertu egin ziren funtsezko elementuak; hala nola autopsia, gorpua altxatzeko ekin-tzaren txostena, balistikako txostena eta gorpua altxatu zuteneko argazkiak».

Balorazio batzordearen lanetako bat izan da biktima horien senideak entzutea ere. Horien artean, «diskriminazio» eta «erabateko ahanztura» sentimenduak nabarmentzen direla jaso du txostenak, eta gehitu «erantzukizun politikoa aitortzeko» eta kasuak argitzeko eskatzen dutela, aitortza zabala-goto batekin batera.

ZAURITUAK

Poliziek eragindako zauriengatik sei lagun aitortu dituzte biktimatzat. Biri poliziek egin zieten tiro, eta beste bati Guerrilleros de Cristo Rey eskuin muturreko taldeko kide batek. Beste batek ikusmena galdu zuen 13 urte zituela, Espainiako Poliziak jaurtitako gomazko pilota baten ondorioz. Beste biak poliziek egindako «eraso larriengatik zauritutakoak» dira, Lemoizko zentralaren aurkako eta Gladys del Estalen hilketa salatzeko protestetan.

TORTURAK

Balorazio batzordeak torturak eta tratatu txarrak jasandako 49 lagun aitortu ditu biktima gisa. Gehien aitortzen diren tortura lekuak Gipuzkoako Gobernu Zibila eta Guardia Zibilaren Antiguako komandantzia dira. Batzuek behin baino gehiagotan jasan zituzten: esaterako, biktimetako bat bederatzi aldiz egon zen atxilotuta.

Dokumentuan, biktimek jasandako erasoen berri ematen da, eta torturak izandako bilakaera ere jasotzen da: «Diktaduran, askotariko ekitaldietan edo gertaeretan sarekada masiboak egiten zirenean, baita salbuespen egotzetan ere, azarnak uzteak ez zuen axola, eta, funtsean, atxilotuak fisikoki nekatzea izaten zen helburua. Gero, *modus operandi* hori utzi gabe, tortura psikologikoa eta metodo sofistikuatuagoak gailendu ziren, atxilotuak hausteko». Horiek hala, biktimek askotariko torturen berri eman die batzordeko kideei: hamar eguneko inkomunikazioaldiak, eskuburdiratutako zintzilak orduak igarotzea, asfixia teknikak –*poltsa* eta *bainuontzia*–, elektrodoen erabilera, exekuzio simulazioak, jipoiak, mehatxuak... Horiei gehitu behar zaizkie atxilotuta arbitrarioak, birbiktimizazio jarrerak eta familiari eragindako sufrimenduak.

Hala, txostenak azaltzen du

Alderdien txaloak eta isilune bat

+ Giza Eskubideetako Batzordean parte hartutako alderdien ordezkari guztiek txalotu egin zuten atzo batzordearen lana, eta eskertu ere bai, PPko ordezkari Carmelo Barriok salbu. Hark agindu zuen PPk «zorrotasunez» aztertu duela txostena, Juana Balmasedak txostenetik irakurritako pasarte gogorren inguruan besterik esan gabe. EAJk, EH Bilduk, PSE-EEk eta Elkarrekin Podemos-Iluk, berriz, agindu zuten aintzat hartuko dituztela batzordearen eskaerak, «nahiz eta legealdi honetan legea aldatzea ezinezkoa izango den», ordezkari gehienek onartu zuten.

EH Bilduko legebiltzarkide Julen Arzuagak esan zuen apaldu egin dela biktima batzuek batzordearen inguruan zuten «mesfidantza». Gaineratu zuen «biktimetik gertutasuna» islatzen duela txostenak, eta horietako batzuei «ahotsa» jarri dietela. Galdetu zuen, dena den, Espainian biktimen inguruko lege berri bat onartu denez, ez ote den hurrengo urratsa egin behar, «biktimak aitortu eta gero, biktimarioak aurkitzeko».

EAJko legebiltzarkide Iñigo Iturratek, berriz, batzordeko ordezkarietako esan zien «ez izateko zalantzarik» Eusko Jaurlaritzaren eta EAJren babesaren inguruan. PSE-EEko Miren Gailastegik azken txostenaren «garrantzia» azpimarratu zuen, eta Elkarrekin Podemos-Iluko ordezkari Iñigo Martinezek legearen epeak aldatzeko beharri erreparatu zion.

torturatuen artean «hil nahi izateko» sentimendua sarri agertu ohi dela. «Hain zen egoera latza, ezen leihotik salto egitea pentsatu bainuen, galdeketen gelako leihotik lorategietara, baina itxita egoten zen beti», dio txostenean jasotako testigantzetako batek. Era berean, torturen ukazioak eragindako «frustrazioa» ere salatu dute.

Genero ikuspegiari erreparatu, berriz, testuak azaltzen du tortura kasuetan emakumeek «sexu indarkeria pairatzeko arrisku espezifiko eta erantsia» daukatela, eta euskal gatazkaren testuingurua ez da salbuespena. Hala, txostenean azaltzen da, bes-

teak beste antzu uzteko mehatxuak; irain sexualak; «ukitu, begirada eta komentario lizunak»; eta «feminitateari eta janzkerari buruzko irainak» jasan behar izan zituztela torturatutako emakumeek. Gizonek, berriz, barrabiletan emandako kolpeak, «gizentasunari buruzko laidoak eta antzu uzteko mehatxuak», arreba edo bikotekidea atxilotzeko eta bortxatzeko mehatxuak...

ZAILTASUNAK

Txostenaren arabera, batzordeak harremanak izan ditu zenbait erakunderekin instrukzio lanak egitean, eta, gehienetan «elkarlanean» jarrera izan duten arren, arazoak ere izan dituzte: «Egiaz-tatu dugunez, jarrera bereziki oztopatzailea izan dute artxibategi militarrek, orain artean egindako eskaeren artean batean bakarrik eskuratu ahal izan baitugu dokumentazioa». Era berean, salatu dute Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako auzitegiak espedienteetako informazioa eskuratzeko «zailtasun handiak» izan dituztela, eta erakundeei eskatu diete lan hori errazteko. «Dokumentazio jakin bat lortzeko orduan azkarrago eta arreta handiagoz jokatzeko ez bada kalte handia eragin dakiokeelako batzorde honen lanari», zehazten da testuan.

Era berean, baina, Kriminologiaren Euskal Institutuarekin duten lankidetzaren nabarmendu dute, eta hark torturaren eta tratatu txarren inguruan osatutako txostenen garrantzia azpimarratu. Azaldu dutenez, hainbat kasutan baliagarriak izan dira horiek batzordearen lanerako: «Batzuetan, modua izan da biktimak gertatutakoa berriro kontatu behar ez izateko, horrek eragiten dion estutasuna dela eta».

BIKTIMEN ESKEA

Biktimek zenbait eskaera egin dituzte balorazio batzordearekin izandako bilkuretan, eta txostenean jaso dituzte. Horien artean nabarmendu dira gertatutakoaren inguruko egia «ofizialki aitortzea» eta kalte ordainak ematea. Era berean, baina, biktimen arteko «bidegabekeria konparatiboak» amaitzeko eta justizia errestituzioa «norabide jakin batean» bakarrik ez aplikatzea galdegin dute, birbiktimizazioari egon ez dadin.

Tortura kasuetan, haren erabilerari aitortzea exijitu dute, torturaren ukazioa amaitzeko. Era berean, neurriak eskatu dituzte halako praktikak «zigorrik gabe» ez uzteko, eta biktimei erreparazio emateko.

Gabriel Aresti frankismoaren biktima gisa aitortu du Espainiak

Nerea Intxausti Castiñeira

1936ko gerran, estatu kolpean eta diktadura frankistaren garaian errepresioa jasandako hemezortzi laguni erreparazioa eta aitortza eman zizkien atzo Espainiako Gobernuak. Haien artean zen Gabriel Aresti idazle bilbotarra (1933-1975): euskaraz aritzeagatik jasandako errepresioa aitortu zuten. Memoria historikoaren Espainiako legeari jarraituz egin zuten ekitaldia; legean jaso dutenez, gaur izango da omenaldi eta oroitzapen eguna.

Aresti euskal literaturaren erreferentziako poeta eta euskaratuaren sustatzailea izan zen. Haren lanak garrantzi handia hartu zuen, frankismoaren aurka eta frankismoak erakitako gizar-te moldeen aurka. Halaber, Aresti ezaguna da 1960ko eta 1970eko hamarkadetan idatzi zuen kutsu sozialeko poesiagatik. Lan batzuk zentsuratu egin zituzten.

Espainiako Estatuaren izenean, Pedro Sanchez gobernuak jarduneko presidentek eta Felix Bolaños Lehendakariak, Gorteekiko Harremanetarako eta Memoria Demokratikoko jarduneko ministroak egin zituzten aitortzak: erreparazio adierazpenak entregatu zituzten. Orain urtebete indarrean sartu zen memoria legeak ezarritakoari jarraituz, «beren hildakoak lurperatu ezin» izan zituztenak, «ondasunak konfiskatu» zizkietenak eta «lanpostuetan araztu» zituztenak omendu zituzten. Sanchezek onartu zuen «oso berandu» dabilzala memoria politikekin.

Omendu gehiago

Omenduen artean zeuden idazle eta pentsalariak, LGTBI kolektiboko ordezkariak eta garaian arduratsu politikoak izandakoak edo erresistentzian aritutakoak. Hemezortzi erreparazio adierazpenetarik bat taldekakoa zen: frankismoan espetxeratutako CCOO sindikatuko zuzendaritzarentzat, hain zuzen. Arestirekin batera, baziren katalana eta galiziera indartzeko lan egin zuten intelektualek ere: Salvador Espriu katalana eta Alfonso Rodríguez Castelao galiziarra, esaterako.

EH Bilduk berretsi du Sanchezen alde bozkatuko duela

Hiru ardatz zehaztu dituzte legealdirako: nazio auzia, eskubide sozialak eta bakea • Otegi dio oraindik ez dutela lehendakargirik

Irati Urdal eta Lete

Gero eta gertuago dago Pedro Sanchez Espainiako Gobernuko jarduneko presidentearen inbestidura saioa. Eta EH Bilduko zuzendaritzak horixe izan zuen hizpide atzoko mahai politikoan. Arnaldo Otegi koordinatzaile nagusiak alderdiaren jarrera berretsi zuen, bilera amaitzean Donostiako egoitzan eginiko agerraldian: EH Bilduko sei diputatuak Sanchezen aldeko botoa emango dute. Esan zuen herritarren hitza errespetatuko dutela horrela, hautetsontzietan adierazi baitzieten Espainiako Gobernuan ezin zela eskuin muturra egon. Nabarmendu zuen «baikorra» dela, uste duela inbestidura

aurrera aterako dela eta legealdia «oso inportantea» izango dela Euskal Herriarentzat.

Baina zertarako babestu Sanchez bigarren? Otegi hiru ardatz zehaztu ditu: nazio auzia, eskubide sozialak, eta bakea eta elkarbizitza. Haren esanetan, Mertxe Aizpurua EH Bilduren Espainiako Kongresuko bozerraileak Sanchezen lehen inbestidura saioan jarri zituen berberak dira. Lehenengoari dagokionez, esan du poztan dela nazio auziaz eztabaidatu beharko delako: «Arazo nazionala mahai gainean egongo da, plurinazionalitatea mahai gainean egongo da, eta poztan gara, aspaldiko partez halako eztabaida bat egin beharko delako, anbizio guztiarekin». Ha-



Arnaldo Otegi, atzo, EH Bilduren Donostiako egoitzan. BERRIA

lere, aitortu du gaur-gaurkoz ez dutela Sanchezen konpromisorik horretarako.

Halaber, gaineratu du «askotan» nazio aitortza eta plurinazionalitatea «termino identitarioetan» lantzen direla. Baina: «Aitortzak badu esparru sozial bat ere». Hala azaldu du: «He-

men bestelako gehiengo sindikal bat dago, beste bizi baldintza batzuk daude, eta horiek ere arazo nazionala dira, termino sozialean deskodifikatuak».

Azkenik, gatazkaren konponbideari dagokionez, nabarmendu du «bakearen eta elkarbizitzaren bidea» urratzen jarraitu beharra daukatela: «Asko oztopoak jartzen saiatzen ari badira ere, bide horretan pausoak ematen jarraitu behar da».

Kazetariek Iruñeko Udalarik buruz ere galdetu diote, ea mahai gainean egon den Sanchezekin dituzten elkarriketetan. «Zuzenean harekin ez», erantzun du Otegi. Halere, nabardura bat egin du: «Gure logika da bloke aurrerakoiaren lehen indarra errespetatzea. Espero dugu mundu guztiak gauza bera egitea».

Lehendakargia, zalantzan Sanchezen inbestidura ez da izan Otegiaren hizpide bakarra. Kazetarien galderei erantzunez, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde ez ere aritu da: zehazki, EH Bilduren hautagaiaz. Otegiaren esanetan, oraindik ez dute hasi lehendakargia aukeratzeko prozesua. Baina ulertzen ditu «espekulazioak»: «Ez egin kasu espekulazioei; espekulazioak espekulazioak dira. Ulertzen dugu espekulazio hori egotea, segur aski jende guztiak pentsatzen baitu Euskal Herria Bilduk izendatuko duen hautagaia bilduko duela boto gehien».

Ibarrolak dio ez duela buruan zentsura mozioa

IRUÑEA • Iruñeko alkate Cristina Ibarrolari zentsura mozio bat izateko aukeraz galdetu diote, eta esan du gaia ez duela buruan: «Ez du nire bizitzako minutu erdi bat ere hartzen, nahiz eta prentsari ia egunero ematen dizkiodan horri buruzko erantzunak». Gehitu du kargua hartu zuenetik ari zaizkiola horri buruz galdetza.

Ibarrolak, bide batez, bere lana defendatu du: «Ni Iruñeagatik, Iruñearentzat eta Iruñeko herritarrentzat ari naiz lanean asteko egun guztietan».

Arartekoak esan du ezin dela arreta digitala inposatu

BILBO • EAEko Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiari oroitarazi dio salbuespena izan behar duela administrazioarekin soilik modu elektronikoan erlazionatu ahal izateak, eta herritarrek eskubidea dutela harekin zer bidetatik komunikatu aukeratzeko. Erretiratu batek helarazi zuen kexa, Bizkaiko Ogasuneko informazioa egoitza elektronikoan soilik jaso zezakeelako.

Tasa turistikoa, «sektorearekin adostuta»

DONOSTIA • Donostiako Udaleko Turismo zinegotzi Jon Insaustik hirian tasa turistikoa bat ezartzeko beharra defendatu du, betiere «turismo sektorearekin adostuta»: «Ezin dira turismo politikak egin sektoreari bizkarria emanda». Izan ere, neurriak «babe zabala» behar duela iruditzen zaio. Gaineratu du tasa beste zenbait hiritan ezarrita dagoela eta horrek ez duela eragin turismoa apaltzea.

‘De Miguel auziko’ Telleriak kartzelara joan beharko du

GASTEIZ • De Miguel auziaren harira atxilotu zuten Aitor Telleria EAJko buruzagi ohia, ustelkeriagatik. Bi helegite aurkeztu zituen espetxeratze aginduaren aurka, baina Arabako Auzitegiak atzo iragarri zuen biak ezeztatutituela. Ondorioz, kartzelara joan beharko du.



OÑATIKO UDALA

KONTUHARTZAILETA IRAGARKIA

2024ko Udal Zerga Ordenantzen aldeketa behin behineko izaeraz onartzea

Udalari honetako zergadun guztiei jakin erazten zaie, Udaltzat 2023ko urriaren 26an izandako bilkuran eta zuztaren 5eko 11, 12, 14, 15 et 16/199 Foru Arauetan xedatutakoaren arabera 2024 urterako ondoren zerrendatzen diren Zerga, Tasa eta Prezio Publikoen Zerga Ordenantzen aldakuntza onetsi zuela:

1. Ondasun Higiezinaren gaineko zerga.
2. Jarduera Ekonomikoen zerga.
3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.
4. Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga.
5. Zerbitzu Publikoak eskaini edo jarduerak burutzea-gatiko tasak.
6. Zerbitzu Publikoak eskaini edo jarduerak burutzea-gatiko Prezio Publikoak.
7. Udaltzabari Publikoaren erabilera pribatu eta aprobetxamendu bereziagatik tasa.

Hartutako akordio eta horretarako izapidetutako espedienteak jende aurrean erakutsiko dira, Gipuzkoako Ondasun Lokalak arautzen dituen zuztaren 5eko 11/89 Foru Arauetako 16.1 artikuluan xedatutakoa betez, Aldizkari Ofizial honetan eta Udaltzeko iragarki taulan iragarkiari argitara emanaz, aipatu artikuluko horretako 2. Zenbakiak exigitzen duenaren arabera, guzti hori ondoko arauei jarraituz:

- a) **Dokumentu horiek erakutsiko diren lekua:** Udaltz Kontuhartzailetan.
 - b) **Aztertzeko eta, hala badagokio, errekamazioak egiteko epea:** Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkiari argitara eman eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita 30 lanegun, bulego orduetan.
 - c) **Errekamazioak egiteko legitimitata daudenak:** Zuztaren 5eko 11/1989 Foru Araueko 17. Artikuluko agertzen dituenak.
 - d) **Aurkezteko lekua:** Udaltzeko sarrera erregistro orokorrean.
- Prozedura Administrazioari buruzko legeko 16. Artikuluko esan dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.
- e) **Zein organoren aurrean aurkeztu behar diren errekurtsioak:** Udaltzatza.
- Behin igaroz gero informazio honen araubidezko epea inolako errekamazio edo oharpenik egin gabe, hartutako akordioak behin-betiko onartutaz joko dira, bestelako akordiorik hartu beharrik izan gabe.

Oñati, 2023ko urriaren 26an.- Alkatea.



Beasaingo Udala

IRAGARKIA

Udal Batzak 2.023ko urriaren 26ko bileran, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko zuztaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, hasierako onespenea eman dio ondorengo akordioari:

Lehen. Ondorengo tributuek arautzen dituzten Ordenantza fiskalak aldatzea 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin:

- 1.- Ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- 2.- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.
- 3.- Zerbitzuak eskaini eta jarduerak administrazioak burutzea-gatiko Tasak.
- 4.- Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik Tasak.

Bigarrena. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaltzeko web orrian eta zabalkunde handieneko Gipuzkoako egunkariaren bitartez iragarkia argitaratuta agertzen den azken egunetik aurrera kontatuta, espedienteak jendaurrean 30 lanegunegongo da ikusgai, errekamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena. Inolako errekamaziorik aurkeztuko ez balitz aipatutako epea iragan ondoren, erabakia behin betirako onartutaz hartuko da eta beraz, aldatutako eranskinarean testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Beasainen, 2023ko urriaren 26an

Alkatea,

Sin.: Leire Artola Ugaldel

Frantziako armadaren bi autok eta Frantziako Poliziaren kamioi batek zaintzen dute oraindik Irun eta Hendaia lotzen dituen oinezkoentzako zubia. Parisek igandean ireki zuen berriz pasabidea.

Hesiak kenduta, kontrolak jarri

Oihana Teyseyre Koskarat
Hendaia

Hesiak ziren lekuan mezu hau irakur daiteke orain: *No frontera* (Mugarik ez). Irun (Gipuzkoa) eta Hendaia (Lapurdi) lotzen dituen Etorbidearen zubiaren erdian hesiak jarri zituen Frantziako Gobernuak 2021eko urtarrilean, eta igande arratsaldean kendu zituen. Ofizialki, atzo irekitzekoa zuten pasabidea. Hesiak kendu badituzte ere, kontrolpean daukate zubia oraindik: Frantziako armadako bi auto eta Frantziako Poliziaren kamioi bat egon ziren goizean. Irekiera iragarri zutenean errana zuten patruilak emendatuko zirela, dena den.

Irekitzearen karietara, herritarrek koloretako aireko baloiak zintzilikatu zituzten Etorbidearen zubian. Jende multzo bat bildu zen han goizetik, zubian joan-etorrika ibiltzeko; izan ere, aspaldian ezin izan zuten zubi hori zeharkatu. Noelle Bruzard erretetan da, eta Hendaian bizi da aspalditik; Frantzia Intsumisoko ki-

dea da. «Ez da mugarik, bi aldeetako Euskal Herrien lotura da zubi hau, eta zinez zentzugabea zen hetsirik atxikitzea», salatu du. Halere, erran du «neurizko askatasuna baizik ez» dutela «berreskuratu», Frantziako armadako bi autoei eta Frantziako Poliziaren kamioiari erreferentzia eginez. Baina gaineratu du «sinboloek beren garrantzia» dutela, eta, kontrolak izan arren, uste du berri «ona» dela.

Harekin bat egin du Hendaia Frantzia Intsumisoko kide Marie Papok ere: «Sinbolikoki garrantzitsua da gu hemen egotea goiz honetan». Galdetu du, halere, irekiera ez ote den «neurri kosmetikoa», zubia kontrolatua delako oraindik. Bi andreek esplikatu dute Irungo Ahal Dugu-ko ki-deekin ordua jarria zutela goizean, irekiera «ospatzeko».

Bi musikari ere izan ziren Etorbidearen zubian, txalapartan ari zeko. Ikurrinaren ondoan, azaroaren 4an Euskalgintzaren Kontseiluak Bilbon eginen duen manifestaziorako afixa zintzilikatu zituen txalapartari. Astelehen goizetan egin ohi duten errepika



Etorbidearen zubia, atzo goizean goiz, Poliziaren kamioi batek zainduta. GUILLAUME FAUVEAU

zubian egitea erabaki zuten atzo, irekiera ospatzeko. Makalo Jauregi hendaia zen horietako bat, eta erran zuen «muga inposatua» dela Hego eta Ipar Euskal Herriaren artekoa, eta Etorbidea-

Jende multzo bat bildu zen zubian goizetik, joan-etorrika ibiltzeko; izan ere, aspaldian ezin izan dute zeharkatu

ren zubia hetsirik egon izana horren lekuko dela. «Oso artifiziala izan da hau guzua, eta gezur hutsa izan da, Frantziako Gobernuaren komunikaziorako». Haren ustez, «kanpora begirako» neurria izan da. «Erran zezaketen mugak itxita zeudela, baina, egiatan, pareko

zubia irekita egon da, eta Etorbidearen zubia itxita; ez du zentzurik. Inperialismoaren zentzugabekeria pairatu dugu».


Migratzaileak ere gogoan izan zituen Jauregik. «Etorbinak hona datoz europarrok duela ez hain aspaldi kolonizatu genituelako. Eta, gainera, orain haien atzetik dabilta. Injustizia ikaragarria da», deitoratu zuen.

Auzapezen besarkada

Atzo goizean, Igor Enparan Hondarribiko auzapeza (Gipuzkoa), Jose Antonio Santano Irungoa eta Kotte Ezenarro Hendaia zubiaren elkartu ziren, eta elkar besarkatu zuten irekiera ospatzeko, zubiaren erdian. Auzapezek mugaren hestea salatu izan dute az-

ken hilabeteetan, eta, uztailean, Frantziako Tourraren karietara ireki eta berriz hetsi zutenean, neurriaren zentzugabekeria ezarri zuten jomugan. Santanok atzo erran zuen «Europako Batasuneko historiaren aldi beltz» bat atzean utzi dutela zubia irekita.

«Terrorismoaren kontrako borroka» aitazkian, Frantziako Gobernuak mugako beste zazpi pasabide hetsi zituen 2021ean. Geroztik, hiru pasabide itxita egon dira: Etorbidearen zubia, Izpegiko lepoa eta Larraineko pasabidea. Ofizialki, atzo ireki zituzten hirurak. Halere, Izpegikoan eta Larrainekoan herritarrek normal-normal ibili dira azken hilabeteetan, kontrolak ez baitzegoen.



ZAINKETEI BURUZKO KONGRESUA

— ZAINKETEN
ALDEKO
EUSKAL ITUNA
ERAIKITZEN

congresocuidados.eus/eu



— DONOSTIA
TABAKALERA
azaroak 15/16



*Euskadi,
auzolana*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Skolae, sasi guztien gaineretik

Nafarroako Gobernuak hezkidetza programaren aldeko apustuari eutsiko dio 2024-2028ko aldian

Ion Orzaiz Iruñea

Saiatuta ere, ez dute hondoratu. Duela sei urte, Skolae programaren aurkako kanpaina bortitza abiatu zen Nafarroan: eskola erlijiosoetako zenbait gurasok, talde ultrakatolikoetako ordezkariak eta herrialdeko eskuin politikoak auzitara jo zuten zenbait teknikari eta indarkeria matxistari lotutako edukiak ikastetxe eta ziklo guztietan irakasterik. Eztabaida lokazteaz harago, eskuinak ez zuten lortu Skolae geldiaraztea, eta, orain ere, hari eusteko asmoa agertu du Nafarroako Gobernuak. Are: ikastetxe gehiagotara zabalduko dute datozen urteetan.

Atzo aurkeztu zuen gobernua 2024-2028ko aldirako hezkidetza plana, eta, horretan azaldu duenez, urrats gehiago egin nahi dituzte «indarkeria sexista ororen aurka prebenituko duen eta genero arrakalak erazuziko dituen eskola eredu bat» bermatzeko bidean. Planaren nondik norakoak aletu zituzten Nafarroako Gobernu Kontseiluko kontseilari Carlos Gimeno, Hezkuntzako zuzendari nagusi Gil Sevillanok eta Berdintasun eta Bizikidetzako ataleko buru Itziar Irazabalek.

Aurreko planen ildo estrategikoetan sakontzeaz gain, 2024-2028ko proiektuaren sustatzailaiek azpimarra jarri dute, batetik, ikasgelan atzemandako indarkeria matxista mota ororen «prebentzioan, detekzioan eta esku hartzean»; eta, bestetik, planaren beraren ebaluazioan. Izan ere,



Skolae programaren aldeko elkarretaratze bat, 2019an, Nafarroako Auzitegiaren aurrean. INIGO URIZ / FOKU

datorren ikasturtean, Skolaeren ziklo osoa bukatuko dute Nafarroako 114 ikastetxetan. Programaren ibilbidea eta helburuen betetze maila aztertu nahi dituzte, lehen aldiz.

Azaroaren 19ra arte, planaren zirriborroa ikusgai izanen da Nafarroako Gobernuaren gardentasun atarian, eta edonork aukera izanen du ekarpenak egiteko. Epe hori igarota, txosten bat eta memoria bat onduko dituzte, eta, behin betiko testua idatzita, Nafarroako Eskola Kontseilura igorriko dute, onespina eman diezaion.

Plana ontzeko garaian, «Hezkuntza Sailaren hezkidetzako prestakuntza prozesuan lan egin duten 70 tutoreren baino

gehiagoren laguntza» izan dutela nabarmendu du Gimeno. «72/2021 foru dekretuan ezarria dago hezkidetzako ikastetxe eta ziklo guztietara zabaltzeko beharra, eta gobernu itunean jasotako konpromisoetako bat da».

Zazpi lan ildo, 284 ikastetxe
Programaren xehetasunak eman ditu Itziar Irazabal atalburuak. Adierazi duenez, hezkidetzako planak zazpi ildo estrategiko izanen ditu: «Bat, irakasle guztiak hezkidetzan hezea; bi, prestakuntza hori departamentuko beste zerbitzu batzuetara ere zabaltzea; hiru, ikastetxeetan hezkidetzako identitatea bermatzea; lau, ikasleen parte hartzea sustatzea; bost, ge-

nero indarkeriazko jokabideak garaitu prebenitzea, atzematea eta era eraginkorrean esku hartzea; sei, koordinazioa sustatzea beste entitate, erkidego eta herrialde batzuekin; eta zazpi, hezkidetzako prozesua ebaluatzea».

Hain zuzen, ebaluazioa egin ahal izateko, tresna berriak garatu zituzte Hezkuntza Departamentuan, eta teknikari independenteak arduratuko dira zikloa bukatu duten 114 ikastetxeen esperientzia aztertzeaz.

Skolae 2017. urtean abian jarri zenetik, Nafarroako 284 ikastetxe publiko eta itunduetan ezarri dute, guztien %87etan, alegia. Gobernuaren asmoa da datozen urteetan programa guztiz zabaltzea.

Lau atxilotu Nafarroan bortxa matxistagatik

TUTERA • Tuterako Udaltzaingoak 28 urteko gizona bat atxilotu zuen igande goizaldean, genero indarkeria delitu bat egotzita. Poliziaren arabera, gizonak «bikote harreman bat» zuen neska adingabe batekin, eta haren kontra oldartu zen. Adingabeak lesioak ditu aurpegian, erasoaren ondorioz. Biktima adingabea zela ikusita, haren amaren zaintzapean utzi zuten; ustezko erasotzailea, berriz, Foruzaingoren komisiariara eraman zuten.

Foruzaingoak beste hiru pertsona atxilotu ditu asteburuan indarkeria matxistarekin lotutako auziengatik: gizon bat Iruñean, sexu askatasunaren aurkako delitu batengatik; eta beste bi —Baztanen bat, Leitzañen beste bat— tratu txarregatik.

160

NAFARROAN ESKAINIKO DITUZTEN IRAKASLE PLAZAK

Nafarroako Gobernuak iragarri du 160 irakasle postuko lan deialdia egiten duela 2024ko udan. Hona: 42 postu Haur Hezkuntzan (16 euskaraz); 25 Pedagogia Terapeutikoan (5 euskaraz); 83 Lehen Hezkuntzan (25 euskaraz); eta 10 Entzumen eta Hizkuntzan.

CNTk bat egin du greba feminista orokorrarekin

BILBO • CNT sindikatuaren afiliatuek aho batez erabaki dute azaroaren 30eko greba feminista orokorrarekin bat egitea: «Jarraituko dugu mugimendu feministaren aldarrikapenak ere aktiboan babesten», adierazi dute.

bertako
igogailuak | ascensores

DROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

-REKIN BAI!

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz orrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus

'Aita Mari' ontziak 112 pertsona erreskatatu ditu Mediterraneo itsasoan

Itsas Salbamendu Humanitarioa gobernuz kanpoko erakundeak jakinarazi duenez, hemeretzi adingabe daude erreskatatuen artean

Irati Urdalleta

Aita Mari ontziak 112 pertsona erreskatatu zituen larunbat iluntzean Mediterraneo itsasoan, erdialdeko ibilbidean. Itsas Salbamendu Humanitarioa gobernuz kanpoko erakundeak jakinarazi zuenez, bi erreskate egin zituzten. Atzo eguerdian lehorreratu ziren Reggio di Calabria (Italia). Erreskatatu guztiak «ondo» zeuden, baina ahul eta zorabiatuta, eta hipotermia sintomak ere bazituzten. Erreskatatuen artean hemeretzi adingabeak dira, horietako sei 0 eta 3 urte bitarteko haurtxoak, eta hiru 3 eta 12 urte bitarteko umeak.

Tripulazioko kideek azaldu zuten, larunbat arratsaldean nabigatzen ari zirela egurrezko txalupa bat ikusi zuten, eta laguntzera joan ziren. Han zeuden 55 lagunak erreskatatu zituzten. Erreskate hura egin ari zirela, abisu bat jaso zuten esateko inguruan beste txalupa bat zegoela noraezean. Hara joatea erabaki zuten. Itsaso txarra zegoen, eta erreskatea «konplikatu xamarra» izan bazen ere, lortu zuten 57 pertsona salbatzea.

Horrelakorik ez gertatzeko, pasabide seguruak eskatu dituzte berriro ere migratzaileentzat: «Inork ez luke bere bizitza itsasoa arriskuan jarriko legezkoak



Aita Mari ontzia, artxiboko irudi batean. ANDREU ESTEBAN / EFE

eta seguruak diren pasabideak jarritz gero, eta behartuta egongo ez balira tokialdatzera».

Hamabost egunean, bi

Ez da *Aita Mari* ontziak azken egunetan egin duen erreskate bakarra. Orain bi aste, urriaren 13an, 69 lagun erreskatatu zituzten. Italiako Gobernuak Napolin porturatzeko agindu zien, nahiz eta hasieran Genova bideratu nahi zituen, erreskatea egin zuten lekutik 965 kilometroa.

Gisako oztopoak ohikoak dira horrelako egitasmoetan: beste erreskateetan ere urrun dauden portuak adjudikatu izan dizkiote

Aita Mari-ri. Erreskate taldeak behin eta berriz gogoratu du gobernuek nahita adjudikatzen dituztela urrun dauden portuak, horrela ontziek denbora askoz utzi behar baitute salbamendu eremua. Baina horrek gastu handiagoa eragiten die. Salaketa horien harira, gobernuek diote portuetara iristen diren migratzaileen kopuruak eragiten duen presioa arintzeko estrategia bat baino ez dela.

2018tik martxan da *Aita Mari* eskifaia; bost urteotan mila lagun baino gehiago erreskatatu ditu. Itsas Salbamendu Humanitarioa GKEak kudeatzen du ontzia.

%88

15 URTETIK GORAKO ZENBATEK ERABILTZEN DUTEN INTERNET

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan 15 urtetik gorako biztanleen %88 inguruk erabiltzen dute Internet. Eustatek egindako ikerketa baten emaitzak dira, 2023ko bigarren hiruhilekokoak. Iazko aldi berarekin alderatuta, gora egin du erabiltzaile kopuruak. Aurreko urteetan gertatu moduan, 65 urte edo gehiago dituztenen artean igo da gehien erabiltzaile kopurua.

Matrikulak irakurritz mugatuko dituzte auto kutsagarriak

Bilboko Udalak adierazi du emisio txikiko eremua «ezinbestekoa» dela airearen kalitatea hobetzeko

BILBO • Bilboko Udaleko Gobernu Batzordeak joan den astean onartu zuen etorkizuneko emisio txikiko eremua arautuko duen ordenantza proiektua. Ibilgailu «kutsagarriek eta oso kutsagarriek mugatuta» izanen dute eremu horretan sartzea, zirkulatzea eta aparkatzea. Bilboko Udalak atzo jakinarazi zuen autoen matrikulak irakurritz mugatuko dutela arau horiek betetzen direla, eta airearen kalitatea neurtuko duten berrogei gailu ezarri.

Nora Abete Bilboko Udaleko Mugikortasun eta Jasangarritasun zinegotzia gaiaz mintzatu zen atzo. Adierazi zuen airearen kalitatea hobetzeko eta kutsadura murrizteko «ezinbestekoa» dela emisio txikiko eremua bat ezartzea. Gehitu zuen ere-

mu «erraz identifikatzeko modukoa» dela, hiriko errekak berak erakusten baitu noraino hedatzen den.

Baziren, baina, udalaren erabakia zalantzan jarri zutenak: EH Bildu, PP eta Elkarrekin Bilbo. Beren ustez, eremu horrek «muga» efektua izaten ahal baitu. Abeteren erranetan, baina, egin dituzten ikerketek diote ez dela hori gertatuko.

Horrez gain, EH Bilduk adierazi zuen neurria «berandu» datorrela, eta «gogorik gabe» egin dutela. «Ordenantza hau eraginkorra izango dela ziurtatzeko modu bakarra hirigintzarekin eta garraio publikoarekin lotutako beste neurri batzuekin osatzea da», adierazi zuen Maria del Rio EH Bilduko bozeramaileak.

Bizkaiko esku hartze sozialeko sektoreak greban daude, hitzarmen berri baten alde

BILBO • Bizkaiko esku hartze sozialeko sektoreek greba egin zuten atzo, eta hala egingen dute gaur ere. ELA, CCOO, LAB eta ESK sindikatuak babestu dituzte lanuzteak, eta sektorean hitzarmen berri bat eginge aldarrikatu dute. ELA-ak adierazi duenez, Gizardatz eta Geroan patronalek ez dute hitzarmen berri bat negoziatu nahi. Ondorioz, langileen lan baldintzek eta segurtasunak okerrera egin dute.

Hilberriak

Eskelak

(0034) 943-30 40 30

eskelak@bidera.eus

Beria.eus/eskelak

BERRIAlagunek eta BERRIAlagun harpidedunek
%25 merkeago izango dituzte eskalak



**Arrate Izagirre
Alberdi**

Atzo hil zen, Donostian, 64 urte zituela.

Senarra: Juan Jose de Marcos; gurasoak: Martin (†) eta Angelita; anai-arrebak: Pedro, Xabier eta Nerea; ilobak: Mikel eta Asier; eta gainerako ahaideak.

Orpu beila MORLANS beilatokian dago, gaur, asteartea, 09:30etik 13:30era.

DONOSTIA, 2023ko urriaren 31.



**Isidor Etxeberria
Agirre**

“Ondarruko lur eta itsasoan,
bakean bego.

Beti arte, Isidor.”

Mikelen Donostiako kuadrilla

IDAZLEA: HARKAITZ CANO • ZUZENDARIA: XIMUN FUCHS

hondamendia.eus



Azaroak 11
Larunbata • 19:00

Altsasu
Iortia kulturgunea

Sarrerak:

- Aurretik **12€** (BERRIAlagunek **10€**) • Egunean, **14€** (BERRIAlagunek **12€** - txartelarekin)

Sarrerak salgai:

- BERRIAn: **Berria.eus/berrialaguna/denda** helbidean edo **943-30 43 45** telefonora deituz.
- Iortia kulturgunean eta **www.iortiakultura.com** helbidean.

Antolatzaileak:

berria

BADOK
BERRIAREN
EUSKAL MUSIKAREN ATARIA

Mank
s a k a n a

Laguntzaileak:

Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra

 Altsasuko
Udala

Berrikuntzan egindako inbertsioa %15 areagotzea espero dute aurten

Innobasquek txosten batean jaso ditu 2021eko Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako datuak

● Gastua 1.647 milioi eurokoa izan zen urte hartan, eta aurten 248 milioi euro gehiago espero dituzte

Olatz Silva Rodrigo Zamudio

«Datu historikoa da», ohartarazi zuen atzo Manuel Salaberria Innobasqueko presidentea, Berrikuntzaren Innobasque Txostena 2023 ikerketaren aurkezpenan. Eta datu honi egin zion erreferentzia: 2021ean, 1.647 milioi euro inbertitu ziren berrikuntzan Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, aurreko urtean baino %10,5 gehiago. Are, inbertsioak gora egingo duela aurreikusi zuen, eta azaldu Innobasquek espero duela 2022an 1.768 milioi euro izatea inbertsioa, eta 2023an 1.895 milioi euro. Hots, 2021etik 2023ra %15 areagotzea.

Bi urtean behin lantzen du txostena Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak. Hain zuzen, 2021eko datuak jasotzen dituen azterketa aurkeztu zuten atzo. Urte hartako inbertsioari dagokionez, erdia baino gehiago enpresa pribatuak egin zuten: %57; eta %33 erakunde publikoek. Salaberriaren arabera, berrikuntzaren «egoera, bilakera eta aurrerapena» islatzen ditu ikerketak: «Agerian utzi du berrikuntzaren dinamismo handia duela orain Euskadin».

Leire Bilbao Innobasqueko zuzendari nagusiak berretsi zuen datuek «goranzko joera» erakusten dutela 2016az geroztik. Eta gehitu zuen errendimendua hobetu dela, Europako Batasunaren batezbestekoarekin alderatuta: «239 eskualde daude Eskualdeen Berrikuntza Adierazleen



Euskal Herriko botika enpresa baten ikerketa eta garapen laborategia. VICTOR RODRIGO

Europako Koadroan; Euskadi 93. lekutik 72.era igo da».

Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapeneko sailburuak ontzat hartu ditu datuak, eta bide horretan jarraitzeko beharra nabarmendu zuen: «Berrikuntza indartzen badugu, lehiakortasuna ere indartuko dugu. Berrikuntza eta lehiakortasuna gure bizi kalitatea lotuta daude: zenbat eta jasangarriagoak eta lehiakorragoak izan, gure bizi kalitatea orduan eta hobea izango da». Era berean, Iñigo Uzin Innobasqueko presidenteordeak eta Mondragon Korpora-

zio presidentea esan zuen datuek erakusten dutela COVID-19aren osteko erreakzioa «indartsua eta positiboa» izan dela: «Euskadin nahi dugun ongizateari eusteko irtenbide bakarra berrikuntza da».

Beste datu batzuk ere aipatu zituen Bilbao. Enpresei dagokien, esan zuen Araba, Bizkai eta Gipuzkoako enpresen %40,5 berrikuntzaleak direla gaur egun. «Enpresa handien %76,6, ertainen %60,4 eta txikien %35,9», zehaztu zuen.

Argitalpen zientifikoek ere gora egin zuten 2021ean: 7.822

egin zituzten, aurreko urtean baino 169 gehiago. «Azken lau urteekin alderatuta, %17 egin dute gora argitalpenek», azaldu zuen Nuria Gisbert Innobasqueko presidenteordeak eta CIC Energiguneko zuzendari nagusiak. Era berean, patenteen arloan murriztu egin da Europako Batasunaren batezbestekoarekiko aldea. Gisberten arabera, datuok «gaitasun zientifiko eta teknologikoa» eta «ezagutza sortzeko gaitasuna» erakusten dute: «Garrantzitsua da gure berrikuntza, zerbitzuak eta produktuak babesteko gai izatea, balioa eman ahal izateko».

Salaberriak gogoratu zuen Araba, Bizkai eta Gipuzkoako berrikuntza teknologian oinarrituta dagoela, eta, haren ustez, ona da hori, «lehiakortasun diferentziak» sustatzen dituelako. Hala ere, Innobasqueko buruaren ustez, datuek erakusten dute oraindik lana dagoela egiteko: «Enpresa berritzaile gehiago izateko lanean jarraitu behar dugu, talentua atxiki eta egungo langileen prestakuntza areagotu».

Profesionalen beharra

Profesionalen kopuruak ere gora egin zuen 2021ean: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 20.800 behargin zeuden berrikuntzaren arloan, hau da, lanean ari ziren biztanleen %2. Horietatik %36,2 ziren emakumeak. STEM (zientzia, teknologia, ingeniariaritzeta eta matematika) graduatan izena eman zuten ikasle kopurua ere areagotu zen: %28,8tik %29,7ra.

Nahiz eta langile kopuruak gora egin, aurkezpenen parte hartu duten kideek azpimarratu zuten ezinbestekoa dela profesionalak erakartzea. «Talentu eskasiari aurre egin behar diogu», esan zuen Salaberriak. Eta Cristina Uriarte Jaurlaritzako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisarioak bat egin zuen harekin. Talentu zientifiko eta teknologikoa sustatzea jarri zuen helburutzat; horretarako, beharrezkotzat jo zuen «talentua garatzea eta erakartzea erraztuko duten faktoreak» indartzea.



«Berrikuntza indartzen badugu, lehiakortasuna ere indartuko dugu; eta gure bizi kalitatea hobea izango da»

Arantxa Tapia
Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen sailburua



«Enpresa berritzaile gehiago izateko lanean jarraitu behar dugu, eta langileen prestakuntza areagotu»

Manuel Salaberria
Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziako presidentea



«Eskualdeen Berrikuntza Adierazleen Europako Koadroan, Euskadi 93. lekutik 72.era igo da»

Leire Bilbao
Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziako zuzendari nagusia



«COVID-19aren osteko erreakzioa indartsua izan da; nahi dugun ongizateari eusteko bidea berrikuntza da»

Iñigo Uzin
Innobasqueko presidenteordea eta Mondragon Korporazioko presidentea



«Garrantzitsua da gure berrikuntza eta produktuak babesteko gai izatea, balioa eman ahal izateko»

Nuria Gisbert
Innobasqueko presidenteordea eta CIC Energiguneko zuzendari nagusia

Bertako hitzarmenen defentsan greba egin dute jantzi dendetako langileek

ARTE patronalak deitutako negoziazio mahaiaren egun berean egin dute greba • Lurraldeetako hitzarmenak mantentzeko eskatzen dute

Itxar Matak Rada Donostia

Hego Euskal Herriko jantzi dendetako langileek greba egin zuten atzo, ELA sindikatuak deituta. Espainiako ARTE patronalak Madrilén zentralizatu nahi du sektore horretako hitzarmena, eta erabaki horren aurka mobilizatu ziren atzo sektoreko

langileak Hegoaldeko lau hiri-buruetan.

Izan ere, Hegoaldeko lau lurraldetan sektoreko lan itun propioak daude, Espainiako langile gehienek dituzten lan baldintzak baino hobeak izatea bermatzen dietenak. Mamen Irastorza ELAko ordezkariak eta H&M dendako langileak adierazi zuen «oso pozik»

daudela greba deialdiak izan zuen erantzunarekin. Gipuzkoan 192 langilek egin zuten greba, «inoiz baino gehiagok». Sindikatuaren arabera, beste lurraldeetan ere oihartzun handia izan zuen deialdiak, Nafarroan bereziki.

Dozenaka denda ireki gabe geratu ziren.

Negoiazio kolektiboa

Bigarren negoziazio bilera egin zuten atzo ARTE patronalak eta sindikatuek, Madrilén, eta, lehen negoziazio bileran egin zuten moduan, ELA ere han izan zen. Madrilén zentralizatutako hitzarmen bat ados-

tea dute helburu patronalak eta Espainiako sindikatu nagusiek, baina ELAk aldarrikatu du Hego Euskal Herriko lurraldeetako itunak «bertan» negoziatu ahal izatea.

2025 amaieran iraungiko da Gipuzkoako hitzarmena, eta hori bukatzean estatukoa aplikatu ahaliko diete.

Nahiz eta Gipuzkoako itunean behin betiko ultraaktibitatea adostu, hitzarmen berri bat negoziatzeko, aurreko ituna salatu behar da, legea, eta berria onartu artean, ez aurrera ez atzera dauden bitartean, estatuko hitzarmena aplikatuko litzateke langileei.

«Hori dela eta, negoziazio honetatik atera eta Hego Euskal Herrian bakean utz gaitzela eskatzen dugu. Gure lan baldintzak mantendu nahi ditugu, baita gure lurraldetako hitzarmenak negoziatzen jarraitu ere», aldarrikatu zuen Irastorza.

Lurraldetasuna

Espainiako sindikatu handiak ari dira ARTEekin negoziatzen. Haien zat albiste ona litzateke Espainian hitzarmen berria sina-

tzea, eskualde askotan ez baitute hitzarmenik, eta langile askok lanbide arteko gutxienezko soldata irabazten dute.

Hala ere, ELAk garbi du hitzarmen hori baldintza hobeak dituzten lekuko hitzarmenekin utzartu beharko litzatekeela. Izan ere, Madrilgo itun hori Hegoaldean aplikatzeak soldata jaitsiera handiak ekarriko litzuke. Irastorza adierazitakoaren arabera, gutxienez 18.000 euroko soldata adostu nahi dute, baina Gipuzkoan martxoan sinatu zuten hitzarmenak gutxienez 22.000 euroko soldata arautzen du.

Kontu horrekin lotuta, ELAk gogorazti zuen Hego Euskal Herrian bizitzea garestiagoa dela, eta, beraz, langileek soldata handiagoak behar dituztela erosteko ahalmena bermatzeko.

Horrez gain, ELAk nabarmendu zuen bertako hitzarmen hobe horiek borroka sindikalari eta grebei esker lortu direla. «Hitzarmen ona dugu Gipuzkoan, adostea asko kostatu zitzaiguna, hementzeri greba egun egin baikenituen», gogorazti zuen Irastorza.



Kontserba bejetalak, mermeladak eta sagardoa.
Gizaburuaga • Bizkaia • Tel.: 946-84 20 26



AZTERKETA, PROIEKTU, INSTALAZIO ETA MANTENIMENTSU INDUSTRIALAK

SUTEAREN AURKAKO BABESGAILUAK
HORNITZE ETA URAREN TRATAMENDUA
INSTALAZIO ELEKTROMEKANIKOAK

Tel.: 94-625 54 50
kelan@kelansl.com
www.ondan.com/kelan

Ibarra kalea, 10 • 7. Pab.
48300 GERNIKA (Bizkaia)



Iturgintza
Berogintza
Gasa
Energia
Berriztagarriak

San Juan Kalea 2/B (Ambulatorio Aurrean). 48300 Gernika-Lumo • Tel/Fax: 94 625 17 76
www.urabai.com

100

SENER ENPRESAK ZAMUDION ZENBAT LANPOSTU SORTUKO DITUEN

Sener enpresaren lantokiko lehen harria jarri zuten atzo Zamudioko Parke Teknologikoan (Bizkaia) Inigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak eta Andres eta Jorge Sendagortak, Senerreko presidentea eta kontseilari ordezkari hurrenez hurren. 25 milioi euro inbertitu dituzte, eta 100 lanpostu sortuko ditu. 30.000 metro koadroko eremua hartuko du, eta 2025 amaieran irekitzea espero dute.

Bidegiñ funtsak enpresa ertainetan inbertituko du

BILBO • Kutxabank taldeak eta Elkargik enpresa txikietan eta ertainetan epe luzera inbertituko duen funts bat sortu dute. Bidegiñ izeneko. Aurrezteileen 200 milioi euroraino bildu nahi dituzte, eta bost urtean hogeiren bat enpresatan inbertituko dute. Epe luzeko inbertsioak izango dira, gutxienez bost urtez eta gehienez hamabost urtez enpresaren kapitalen gertatzeko konpromisoa izango duelako Bidegiñek. Inbertsioak Kutxabanken eta Elkargiren eragin eremuan egingo dira.

Petronorrek bi inbertsio izoztu ditu Bizkaian

BILBO • Repsolek eta haren filial Petronorrek gogortu egin dute Pedro Sanchezen aurkako presioa. Inbertsioak lortuz gero, bankuen eta energia konpainien gainera zerga berezia lutzatu egingo duela hitzartu dute Espainiako jarduneko presidentek eta Yolanda Diaz Sumarreko buruak. Balizko luzapen horren aurka ozenki mintzatu zen Joan den astean Josu Jon Imaz Repsoleko presidentea, eta abisatu zuen horrek eragin zezakeela taldeak inbertsio batzuk «Espainiatik kanpo» egitea edo izoztea.

Inbertsio horietako biri izena jarri zien atzo Emiliano Lopez Atxurra Petronorreko presidentek —Petronorren %86 da Repsolena—. Bilboko portuan egitekoa den erregai sintetikoan lantegia eta Muskizko findegian energia berriztagarriekin hidrogenoa sortzeko planta (H24AI). Lopez Atxuraren arabera, bi proiektu horiek ez atzera ez aurrera edo izoztuta gertatu dira «araudi egonkorra» ez badago. Haren iritziz, zerga «ideologikoen» ezin dituzte petrolio enpresak «zigortu», inbertsioak gertatu baizik.

%3,5

INFLAZIOA, ESPAINIAN

Azken hiru hilabeteetako goranzko joera eten du inflazioak Espainian. Uztailetik irailera %2,3tik %3,5era igo zen kontsumo prezioen indizea (KPI), eta maila horretan geratu da urrian. Argindarra iaz baino gutxiago merkatu izanak tira egin dio goraka inflazioari, eta beharera, berriz, erregaia merkatu izanak eta elikagaiak iazkoaren azpitik garestitzeak. Azaroaren 13an jakinaraziko du INEK Hego Euskal Herriko datua; irailaren %3,8 izan zen.

Greba mugagabeen dira Correoseko garbitzaileak

BILBO • Correos posta zerbitzuak azpikontratatuak Limpiezas J. Cordoba enpresako langileek greba mugagabera jo dute, enpresak ez dituelako soldata ordaintzen. ESK, LAB eta CCOO sindikatuek deitu dute grebara, eta adierazi dute zor zaiena jaso arte ez dutela greba utziko. Antza, abenduan hasi ziren Limpiezas J. Cordobako langileak Correosen egoitzak garbitzen, eta uztailetik soldata kobratu gabe daude, udako estra barne. Correos ere erantzule dela salatu dute.



Israelgo armadako hainbat tanke Gaza hego-ekialdean, atzo. MANUEL BRUQUE / EFE

Israelek uko egin die su eten eskeei

Armada Gaza hirira hurbiltzen ari da, eta zerrenda iparretik hegora zeharkatzen duen erreperidera iritsi da • Tel Avivetik esan du Hamasek bahitutako soldadu bat askatu duela

Maddi Iztueta Olanio
Gorka Berasategi Otamendi

Israelek ez ditu erasoak geldituko Hamas suntsitu artean, Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak atzo ohararazi zuenez. «Bibliak esaten du badela garai bat bakerako eta garai bat gerrarako. Hau gerrarako garaia da». Hitz horiekin, baztertu egin zituen azken egunetan atzerititik eta Israelgo gizarte sektore batzuetatik Gazaren kontrako erasoak gelditze-ko egin dizkieten eskariak. «Su etenerako deiak Israeli Hamasen aurrean amore emateko eskeak dira. Hori ez da gertatuko», ziurtatu zuen. Hala, Israelgo armadak indartu egin ditu Gazaren gaineko bonbardaketak eta lurreko inbasioa hedatu du.

Zerrenda barrura sartu eta hiru egunera, aurrera egingen ari da Israelgo armada, atzo Gaza hirira

gerturatzeraino. Inguratua daukate tankeek, eta borrokan ari dira soldadu israeldarrak eta miliziano palestinarrek. Hamasen arabera, Gaza hego-ekialdeko eremu bat inbaditu zuten tropa iraeldarrekin, eremu horixe bera masiboki bonbardatu ondoren.

Gaza goitik behera zeharkatzen duen Salah al-Din errepede nagusi

2019tik mundu osoan izandako gatazka guztietan denera baino haur gehiago hil dira Gazan urriaren 7az geroztik

sira iritsi ziren atzo goizean Israelgo tropak. Hamasen adar politikoko buru Salama Maroufaren arabera, ordu gutxira atzera egin zuten. «Dagoeneko ez dago okupatzailearen armadaren presentziarik erreperidean». Lekuko batzuek Al-Jazeerari esan ziotenez, erreperidea zeharkatzen saiatzen

den edonori tiro egingen ari dira. Horrek nabarmen zailtzen du Israelek gaztarrei agindutakoa betetzea: Gaza hiritik hegoaldera joatea. Izan ere, ebakuazio bide guztiak blokeatuak ditu Israelek.

Tel Aviv erreperikatzen ari da lehorreko operazioak «hedatuko» dituela. Armadako bozeramaile Daniel Hagarik atzo berretsi zuen «eskura daukaten guztiarekin» joko dutela Gaza; haren esanetan, milizia palestinarren 600 «helburu militarri» egin diete eraso gerraren bigarren fasea hasi zutenetik.

Israelgo armada iparraldetik sartu zen zerrendara, ostiral iluntzean, eta barruan dago ordutik. Lehorreko inbasioa hasi baino lehen, nabarmen areagotu zituzten bonbardaketak, eremuko telekomunikazio eta Internet zerbitzuak bertan behera uzteraino.



ITURRIA: NBE

Zerrendako biztanleak erabat barkatuta utzi zituen 36 orduz.

Eta, atzotik, beste mehatxu baten pean daude Gazan. Lurraldeko zenbait ospitaleri ebakuazio agindua eman zien Israelek herenegun, eta atzo lehenengoz egin zion eraso horietako bati, zuzenean. Turkiaren eta Palestinaren Ar-

teko Elkartasun Ospitalea bonbardatu zuen –Ankarak eraikitako ospitale onkologiko bat da–. Sobhi Skeikek zuzendariak azaldu zuenez, leherketaren ondorioz kaltetutako solairuan ez zegoen gaixorik, ez osasun langilerik. Denaren, Israelen lehergailuek «behin eta berriz» jo dute ospitalearen ingurua, herenegundik. Baita Al-Quds ospitalearen inguruan ere, zeina zerrendako handienetakoa den eta milaka zauritu eta errefuxiatu artatzen ari den.

Urriaren 7tik, egunero ari da handitzen Israelek hildako palestinarren kopurua: 8.300 baino gehiago dira dagoeneko –eta 21.000tik gora zaurituak–. Horietatik, 3.000tik gora adingabeak dira. Horren harira, datu esanguratsu bat eman zuen atzo Save The Children erakundeak: 2019tik mundu osoan izandako gatazka guztietan denera baino haur gehiago hil dira Tel Avivetik azken erasoaldi honetan.

Bahituak, bien erdigunean

Urriaren 7an egindako erasoaldian 200 pertsonatik gora bahitu zituen Hamasek. Bada, horietako hiru emakume agertzen dira talde islamistak atzo zabaldutako bideo batean. Hitz hartzen duena zuzenean mintzatzen zaio Netanyahu: «Urriaren 7an egindako hutsegite politikoa eta militarren ondorioak pairatzen ari gara. Ez zen armadarik etorri gu laguntzera. Inork ez gintuen babestu». Horren ondotik, eskatzen du bahitutakoak aske uzteko, horretarako bete beharreko baldintza aipatuz: «Utz gaitzazue aske. Utzi aske euren [palestinarren] herritarrak, presoak, utzi gaitzazue aske. Utz iezaguzue gure familiarengana itzultzeko».

Berehala erreakzionatu zuen Israelek. Netanyahu Hamas leporatu zion «propaganda psikologiko krudela» egitea, eta hitzeman zuen «ahal duten guztia» egingo dutela bahituak Israelera itzultzeko. Ukatu egin zuen erasoak gogortzeak bahituak askatzea zailduko duela. Haren esanetan, Hamas behartuko du akordio bat egitera. Talde islamistak esana du bahitu oro askatzeko prest dagoela Tel Avivetik preso dituen palestinar guztiak askatzen baditu.

Netanyahuren adierazpen horien ondotik, prentsaurrekoa egin zuten bahituak senide batzuek. Ez zitoten gobernuari erasoaldia eteteko eskatu. Galdegina zioten «ahal duen guztia egiteko» gati- buak beren etxeetara itzuli daitez- zen. Israelgo armadak jakinarazi zuen Hamasek bahitutako soldadu bat erreskatatu zuela.



Sergei Xoigu Errusiako Defentsa ministroa, atzo, Pekinen. FLORENCE LO / EFE

Errusiak esan du ez diola uko egiten Mendebaldearekin hitz egiteari

Sergei Xoigu Defentsa ministroak esan du Mendebaldeak bere «politika suntsitzailea» berraztertu beharko lukeela ezer baino lehen

Igor Susaeta

NATO Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeko herrialdeak Ukrainari militarki laguntzen ari dira Errusiaren aurkako gerran. Sergei Xoiguren esanetan, AEBek eta Mendebaldeko aliantza militarrik uste dute horrela «zulatu» ahal izango dutela Errusiaren segurtasuna eta «eusteko borondatea» kenduko dietela Errusiarek. Baina Errusiako Defentsa

ministroak atzo Pekinen adierazi zuenez, NATO eta Washington oker jokatzek ari dira. Hori bai, nabarmendu zuen, beste batzuetan egin bezala, Errusiak ez diola uko egiten Mendebaldearekin hitz egiteari, baina hark bere «politika suntsitzailea» berraztertu beharko duela.

Xoiguren arabera, Errusiak «porrot estrategiko bat» izatea da Mendebaldearen asmoa. «Horrela nekez negoziatu ahal izango da ganoraz esparru horretan», esan zuen atzo Txinako hiriburuan, defentsa foro batean, Errusiako Defentsa Ministerioaren Telegrameko kanalak jaso zuenez. Ohartarazi zuen, bide batez, «gatazka aldiro koska bat estutzen ibiltzek» areagotu egiten duela potentzia nuklearraren arloan gerra pizteko arriskua. «Horren ondorioak katastrofikoak lirateke».

Aintzat hartu behar da, hain zuzen, duela bi aste Errusiak erabaki zuela debekua kentzea saio nuklearrak egiteari. Izan ere, Proba Nuklearrak Erabat Debe-

katzeko Hitzarmenaren berrespena baliogabetu zuen Errusiako Parlamentuak. Xoiguk, dena den, garrantzia kendu nahi izan zion egindako hautuari, eta gogoratu zuen AEBek inoiz ez dutela berretsi akordioa. Errepublikatu zuen, bide batez, Errusia prest dagoela hitz egiteko eta «segurtasun arazoak» konpon-

Errusia prest dago hitz egiteko, «elkarriketa justua» bada eta «aldean arteko errespetuan» oinarritzen bada

tzeko, «elkarriketa justua, bidezkoa» bada, eta «aldean arteko errespetuan» oinarritzen bada.

Horrekin lotuta, asteburuan nazioarteko konferentzia bat egin zuten Ukrainako auziari buruz, Maltaan. Foro horren hirugarren bilera izan zen, ekainean Dani-markan eta abuztuan Saudi Arabian egindakoen ondoren, eta 60tik gora herrialderen babesajaso zuen Volodimir Zelenski Ukrainako presidentek, bake irtenbide bat negoziatzeko berak ezarritako baldintzetatik abiatuta. Ezzuten, ordea, adierazpen bateratirik sinatu. Baldintza horietan zera eskatzen dute, finean: Errusiako tropak ateratzeko Ukrainako lurretatik, hala nola Krimeatik. Txinako ordezkariak ez zen egon Maltaan –Saudi Arabian egon ziren–, ez eta Ukraina-korik ere.

Borrokak Avdivkan

Aleksandr Lukaxenko Bielorrusiako presidentek azpimarratu zuen Ukrainako gerra «ez atzera, ez aurrera» dagoela, eta, horregatik, gatazka eteteko eskatu zuen. «Mahai baten bueltan eseri eta akordio bat egin behar dugu. Aurretiaz ez da baldintzarik ezarri behar; egin behar dena zera da, gelditzeko eskatu», adierazi zuen Vladimir Putin Errusiako presidentearen aliatuak herenegun, bere herrialdeko albiste agentzia batean egin zioten elkarriketan.

Frontean, hain zuzen, Errusiako eta Ukrainako indarrak kateatuta daude Donetsk eskualdeko Avdivka hirian. Moskuren arabera, hiri hori hartuta aukera izango lukete Donetsk osoa kontrolpean edukitzeko. Orain eskualde horren %60 inguru kontrolatzen du. Ukrainako iturri ofizialek atzo jakinarazi zuten, bestalde, ontziak konpontzeko lantegi bati eraso egin diola Errusiak Odesan, eta horren ondorioz bi lagun zauritu direla.

PDeCAT alderdiak behin betiko amaitutzat jo du bere jarduera politikoa

BARTZELONA • PDeCAT Alderdi Demokrata Europar Katalanak behin betiko amaitutzat jo du bere jarduera politikoa. Hori erabaki zuten CDC Convergenciaren ondorengotzat jo daitekeen alderdiaren kongresu nazionalan, larunbatean. Aintzat hartu behar da ez zuela ordezkariarik lortu ez Kataluniako Parlamenturako bozetan (2021), ezta Espainiako Gorteetarakoetan ere, uztailean.



Valtonyc kantaria, herenegun, jaioterrira heldu ondoren. CATI CLADERA / EFE

Valtonyc abeslaria Mallorcara itzuli da, sei urte erbestean egin ondoren

PALMA • Sei urtez Flandrian erbesteratuta egon ondoren, Josep Miquel Arenas Valtonyc rap abeslaria herenegun itzuli zen Mallorcara (Herrialde Katalanak), jaioterrira. Hiru urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri zioten 2018an Espainian, bere abestietan «terrorismoa gortzea», mehatxuak egitea eta Espainiako koroa iraintzea leporatuta. Egotzitakoak preskribatu ostean itzuli da musikaria jaioterrira.

Venezuelako oposizioaren primarioak, bertan behera

Oposizioko diputatu batek helegitea jarri zuen, «irregulartasunak» salatuta, eta Gorenak ontzat jo du

CARACAS • Venezuelako Auzitegi Gorenak bertan behera utzi du oposizioaren hauteskunde primarioen prozesua, ontzat jo baitu oposizioko diputatu Jose Britok jarritako helegitea, zeinak salatzen duen «irregulartasunak» izan zirela prozesuan. Urriaren 22an egin zituzten primarioak PUD Plataforma Unitario Demokratikoan elkartu diren alderdiek, eta Maria Corina Machado nagusitu zen.

Gorenak atzo kaleratutako ebazpenaren arabera, primarioak antolatuta dituen batzordeak dokumentu batzuk aurkeztu beharko ditu; besteak beste, Machadori dagozkion aktak. Aintzat hartu behar da Asanbleako diputatu ohia (2011-2014) inabilitatuta dagoela, eta, horrenbestez, ezin dela aurkeztu 2024an egitekoak diren presidentetzarako hauteskundeetara. Prozesuak ez zuten chavismoaren oniritzikirik.

Nasrin Sotude atxilo hartu dute Iranen, Geravanden hiletan parte hartu ondoren

TEHERAN • Irango agintariak Nasrin Sotude abokatu eta giza eskubideen aldeko ekintzailea atxilotu zuten herenegun, Armita Geravanden hiletan parte hartu ondoren. Hori jakinarazi zuen atzo Sotuderen senarrak. Geravand larunbatean hil zen, ia hilabete koman igaro ondoren. Lekukoen arabera, Moralaren Poliziak hilaren leian eraso egin zion metroan, ilea estalita ez eramateagatik.



Usurbilgo Udala

IRAGARKIA

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2023ko urriaren 26an egindako bilkuran, Ugartondoko Txinikorda eraikinean belauinaldiarteko ebekibizitza komunitarioa arautuko duen erregelamenduarien aldatetari haserako onespenera eman zion.

Espedientea erakusketa publikoan jartzek da 30 eguneko epean, interesatuek ondo deritzoten erakundeario eta iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

Usurbil, 2023ko urriak 27.

Agurtzane Solaberrieta Mesa, alkatea.

Oldarraldi bat baino zerbait gehiago

Xabi Iraola Larraia
Sortuko Herrigintzako idazkaria

Haragi bizitan daude oraindik, eskola nazional frankistan, euskaraz hitz egitearen erregelarekin kolpatutako gure gurasoen hatz punttak. BERRIA egin genuen arren, betirako geratu zen itxita behin bortsax itxi zuten euskara hutsezko egunkari nazionala. Gutxiagotzea sentitzen jarraitzen dugu, erakunde publiko zein pribatuekin euskaraz aritu nahi eta ezekoa jasota, lehenago ere askotan sentitu izan dugun gutxiagotzea. Asko dira artean etxetik euskara ez dakarrenak euskara ikas-teari eskaini behar dizkion ordu, diru eta izerdiak...

Nahi beste luza genezake euskarenen aurkako eraso eta oztopen zerrenda hori. Aspaldi baita nahi baino gehiago luzatu zutela. Eraso eta oztopo horiek iraganeko kontu soila balira, gudan utzitako zauri eta minak osatzera bideratu ahalko genituzke gure indar guztiak. Etengabe (era)berritzen ari den zerrenda batez ari gara, ordea. Eraso horietan azkenak izan dira hainbat tokiko erakunde publikotan martxan jarritako hizkuntza eskakizunak eta EAEko Udal Legearen zenbait artikuluren aurkako epaiak.

Hizkuntza eskakizunei loturiko gatazka hori borobiltzera dator PSEK, EAJren onespenerekin, EAEko Hezkuntza Legean hizkuntza ereduak sartuta egindako atzerapausoa. Nola izango dira gai datozen belaunaldiak hizkuntza eskakizun horiek betetzeko, hezkuntza sistema ez bada gai eurak euskalduntzeko? Azken erabaki horrekin aurrerabiderik gabeko egoe-ra batera kondemnatu nahi dute euskalduntzea; biribilgune berean jira eta bira. Eta jakin badakigu aurrera egiten ez duenak atzera egiten duela. Bide batez, munduko zein tokitan ikusi da norbaitek propio ukatzea euren seme-alabei bizi diren lurraldeko hizkuntza ikasteko eskubidea eta aberastasuna?

Horregatik guztiagatik, bete-betean erratuko ginateke hori oldarraldi judizial huts bat dela pentsatuko bagenu.

Jarritako helegiteetan eta emandako epaietan ageri diren argudio politikoek aditzera ematen dutenez, martxan den oldarraldia, judiziala izateaz gain, politikoa eta ideologikoa baita. Euskal Herrian euskara inposatzen dela diote; espainol eta frantses hiztun elebarrak direla zapalduak; gu gara Euskal Herria elebarrak izatea nahi dugunak; hizkuntza eskakizunak eskatzen ditugunean, herritar zein langileen eskubideak urratzen ditugula... Ideia horietan oinarrituta ari dira birsortzen euren diskurtsoa. Eta horrela ari dira guztiz faltsua den errealtate bat eraiki nahian. Izan ere, eurek ere bai baitakite euskaldunoi erauzten zaizkigula eskubideak. Euskaldun guztiak gara, gutxienez, elebidunak. Eta eurak direla, Espainiar Konstituzioaren izenean, eskubideak mailakatu, herritar zein langileen eskubideak hizkuntza eskubideei gainjarri dizkietenak. Eskubideak, eskubide badira behintzat, guztiak, guztiontzat eta maila berean izan behar direla ahaztuta.

Espainiar estatuko beste zenbait tokitan Vox eta PP dira oldarraldi horren protagonista nagusiak eta diskurtso horren sustatzaileak sutsuenak. Gurean, berriz, ezker espainiarzalea da oldarraldi horren lehen lerroa da goaena. Zer eta gainera, ustezko aurrerakoitasun batez mozorroturik. CCOO eta UGT dira hizkuntza eskakizunen aurkako helegite horietariko asko jartzen ari direnak, PSEren bueltako hainbat pertsona prentsas diskurtso hori elikatzen ari direnak, PSE bera hizkuntza ereduak blindatuz haurren euskalduntzea oztopatu nahi

Oldarraldiarekin edo oldarraldirik gabe, euskalduntzean aurrera egitekotan, estrategiak, balibideak, lege-babesa eta estatu egiturak beharko dira. Gako horietan ardaztu behar genuke herri gisa egiteke dugun eztabaidea

duena... Izan badute ate joka ditugun EAEko hauteskumdeei begirako interes elektoralik, baina PSE, PSE izaten ari da. Ez besterik. Euren izatearen funtsa espainiar proiektua Euskal Herrian bizirik mantentzea baita. Eta badakite espainiar proiektuak hemen iraun dezan ezinbestekoa dela euskara eta euskal kultura gehiago ez hedatzea. Horregatik erasotzen diote euskarari. Eta horregatik da oldarraldi bat baino zerbait gehiago: nazio gatazka da bere gordinean.

Bigarren ez erratuko ginateke, ordea, erantzutera soilik mugatuko bagina. Oldarraldia bestela ere euskararentzat larria den egoera batean baitator. Ezagutzaren apalaldiari, erabilearen jaitzierari edota euskal kulturen transmisioan dugun etenari, izugarri aldatzen ari den mundu honek parez pare jarri dizkigun erronkak gehitu zaizkie. Besteak beste, kulturalki inoizko Euskal Herririk plurlena da oraingoa, eta digitalizazioak goitik behera eraldatu du gainontzeko pertsonekin, eta ondorioz, baita hizkuntzeekin dugun harremana ere. Euskarak eta Euskal Herriak estatua behar dute etorkizuna bermatua izango badute, baina egun horren zain egon gabe, orain eta hemen, heldu behar diogu hizkuntza politiken inguruko eztabaidea orokorrari. Oldarraldiarekin edo oldarraldirik gabe, euskalduntzean aurrera egitekotan, estrategiak, balibideak, lege-babesa eta estatu egiturak beharko baitira. Gako horietan ardaztu behar genuke herri gisa egiteke dugun eztabaidea. Eta gako horietaz hartu erabakiak, oraindik hartzeak ditugunak. Azken hamarkadetan aurreratu duguna galdu nahi ez badugu behintzat. Are gehiago, azken hamarkadetan baino gehiago aurreratu, eta Euskal Herri euskaldun eta eleaniztuna eraiki nahi badugu.

Horra iristeko, oldarraldiaren aurrean ahalik eta herri erantzun zabala antolatzea da tokatzen dena. Horregatik, azaroaren 4an Euskalgintza-ren Kontseiluak Oldarraldiaren aurrean. Euskararekin bat. Euskaraz bat lelopean deituta manifestazioan izango gara Sortuko kideok ere. Eta azaroaren 4aren ostean, Euskal Herriaren euskalduntzean urratsak egiten jarraituko dugu. Behingoz euskararen aurkako erasoaren zerrendak idazteari utz diezaiogun. Noizbait, berreuskaldundu zen herri baten historia idatz dezaten.

Koroaren segida

Erbestetik itzuli da Valtoney raperoa, Espainian kartzelara eramanez ahal zuen delituak preskribatu duelako. Berez, martxoan aitortu zitzaion delituaren preskripzioa, baina abokatuek salatu dute inork ez ziela agiria helarazi. Horregatik, urte erdi beranduago itzuli behar izan du. Gauzak zer diren, horrek eragin du Koroa



JIRA
Angel Erro

iraintzeagatik kondena-tutakoaren etorrerak eta Koroaren jarraitutasuna (eta, hedabideei entzuterak, haren modernotasuna, haren egokitzapena eta haren ezin zimelduzko loraldia) bermatuko duen gaurko ekitaldi solemneak bat egin dezaten, denboran behintzat.

Leonor operazioa martxan da aspaldian, baina gaur du mugari handia: Espainiako Konstituzioaren zina egin behar du, adin nagusitasunera iristen den egun berean. Toki guztietan behin eta berriz diote aitzak zin egin-dako Konstituzioaren ale beraren gainean egin duela zin alabak ere. Zer litzateke monarkia zilegitasun segida begietaratzten duten sinbolo hauek gabe? Aitzak zin egin zuenetik bi aldez erreformatu da konstituzioa, baina berdin da: ale berbera da. Aitonaren sinadura daramala ez du inork ekarriko gogora, ez eta, Borboi zaharraz denok dakiguna salatzeagatik (lapur hutsa dela), kartelan jarraitzen duela ere beste kantari batek.

Martitzena

Urriko azken martitzena da gaur. Israelek jarraitzen du palestinarren kontrako genozidioan. Ukrainari buruz esan dizkiguten gezurak argitzen ari dira, baina berdin digu. Klima krisia eskandalagarria da. Baserritik bizi nahi duen jendea gogor ari da lanean, eta gure instituzioek diru-laguntzen menpe nahi gaituzte.



BIRA
Onintza Enbeita


Azaroaren 30erako greba feminista dago deituta. Emakumeek kirolean jasaten dituzten eta jasan izan dituzten abusu eta bortxaketen berri jakiten jarraituko dugu. Minbizia arrosaz margotzen dugun hilabetea amaitu

egingo da gaur, baina kontuz, *november*-a hasiko da. Suizidio datuak ezkutatu eta makilatu egingo dizkigute gaur ere, eta hainbat jende egongo da maite duen jendeaz kezkatuta buruan daukana irakurri ezin duelako. Osakidetza itxaron zerrendek luzatzen jarraituko dute. Gaur Gau Beltza edo Halloween da. Euskal Herrian ia gehien dakien norbaitek esan zuen bezala, «*jan ta lo in*» eguna.

Bitartean kale garbitzaileek lan astuna izan dute Gernikan. Atzo plastiko eta zikinez beteta gelditu ziren kaleak isilik esnatu dira gaur. Gaspasoren batzuk ibili dira goizean goiz musika eske, baina ahots gehienek atzo egin zuten berba nahikoa. Inor ez da baserritarrez gogoratzen. Inori ez zaio inportantea iruditzen sasoiko produktuak erostea. Atzo, atzo zen.

De Rerum Natura

@zaldieroa



Eskegi



HITZ ETZANAK
Andoni Egaña

Umetan ikasi genuen, Imanol Urbietarekin, *Alostorrea* kantatzen. Dorrearen aipamenak pizten zuen gure haur irudimena. Dorrea: borroka-lekua. Erasoa eta defentsa. *Zurubia* zer zen ez genuen ulertzen; ezta goruetan zer zen ere. Baina *bele beltzak kua-kua kua-kua leihoetan* dorrearen irudia bera baino ere iradokitzaileagoa zitzaigun. Kantu hura toteltzen nuen, amak arropak eskegitzeko agintzen zi-

gun aldi bakanetan. Arropa beltzak eskegitzerakoan batik bat.

Joan zen astean egunkari honetan irakurri ahal izan genuen etxe-fatxadatan arropak eskegitzearren debekuari buruzko erreportajea. Interesgarria iruditu zitzaidan oso. Ustezko araztasunarekin lotzen du zenbaitek edertasuna. Bizimodu erreala ukatzea ere bada arropa eskegiak ez bistorazi nahia. Arropa eskegirik gabeko etxeak bigarren etxebizitza dirudi. Han ez da inor bizi. Edo ez

du lanik egiten. Edo lan egiten du baina arropa zikinduak atzeko patioan baino ez daitezke zintzilik. Akaso, halakoxe efekturen bat lortu nahiko luke debekua hauspotzen duenak.

Alostorrearekin batera, Mari Asun Landa ere etorri zait gogora. Orain bere buruaz beste egiten duten galtzerdiek ere ezin izango dute azken ekintza jendaurrean burutu. Eta alargunek, barrurantz egin beharko dute negar, zintzilik.

HIZPIDEAK

Zumosoleko lehengusua

Mikel Rodriguez @MikelR28

Espainiako telebista kateek 1990eko hamarkadan eman ohi zuten iragarki bat aski ezaguna egin zen Hego Euskal Herrian: *Zumosoleko lehengusua*. Haur batek handiagoa zen bertze haur baten jazarpena jasaten zuen eskolan, eta, defendatzeko, txikiak mehatxu egiten zion lehengusua ekarriko zuela. Eta han agertzen zen lehengusua, gizon gazte gihartsu handi bat, indarra ematen zion zukua lastodun brik batetik edaten. Jazarlea segidan ikaritzen zuen. Iragarkiak hain arrakasta handia izan zuen -zukuak baino handiagoa, erraten ahal da-, *Zumosoleko lehengusua* kontzeptu bat bilakatu zela garai hartan, adierazi nahi zenean gatazka batean aldeetako batek muturtuta dauden biak baino azkarra- goa den norbaiti deitu diola laguntzeko.

Iragarkiaren irakaspenaren arabera, txikiak deitzen zion Zumosoleko lehengusuari handienari lezio bat emateko. Baina iragarkia denek ikusi zuten, baita alderdi, sindikatu, abokatu eta norbainako euskarafoboek ere, eta pentsatuko zuten ahulenari irabazteko balio bazon, zer dela-eta azkarrenak ere ezin ote zuen gauza bera egin. Eta hor lortu dute 2020ko hamarkadan Zumosoleko lehengusua berria, giharrak toga beltzarekin tapatuta dituen eta eskuan zuku brik bat eta lastoa beharrean, Espainiako Konstituzioa eta horren 3. artikulua daramatzanak, handienaren alde egin eta txikiena zanpatzeko prest.

Baikorra naiz

Lekeitioko Plaza Nagusian, musika kioskoaren alboan, aspaldian dago zuhaitz hostotsu sorta. Azpian, eserlekuak daude, eta bero boladatan abaro eder eta freskoa izan da askorentzat. Neuretzat ere bai. Gure herrian, aldiz, itzelezko kalapita dago errepide ertzeko zuhaitzak moztu egin dituztelako, eta oso urrun gaude (oraindik) Paris hirian prestatu duten hirigintza egitasmozarretik. Goiz edo beranduz, baina, gauzatu beharko dugu egitasmo potoloren bat klima krisiari aurre egiteko. Adituek behin eta berriro esaten dute, hiriguneetan, zementu gutxiago eta zuhaitz gehiago behar direla. Akordura datorkit orduan Bil-



LARREPETIT
Goizalde Landabaso

botik Abraraino, itsasoaren bideari jarraituta, egiten hasi diren bidea (momentuz porlan eta berdexka apur bat). Politikoki baikorra den honek fedea (edo) dauka beti; uste dut norbaitek uneren batean pentsatuko duela hamabost bat kilometro izango dituen bide horrek zuhaitzak beharko dituela udako bero sapan babesleku izateko.

David Armstrong McKay zientzialari britaniarra da, geofisikaria, eta berriki elkarrizketa bat egin diote *El País* egunkari espainiarrean. Klima krisiaren inguruan ari da jo eta su lanean. «Okerrenerako prestatzen hasi behar gara». Egun berean beste egunkari batean, Kataluniako *Vanguardia*-n, beste zientzialari

batek, Corrado Altomare italiarrak osterantzekoak baina bide horretatik zioen: «Geure buruaren babesean egin behar ditugu inbertsioak, dagoeneko ezin diogu klima krisiari buelta eman». Ados jartzen dira egunean, ala? Nazioarteko Energia Agentziak *World Energy Outlook 2023* txostena kaleratu berri du. 2030ean energia iturrietan aldaketak egongo direla aurreratu du, baina nahikoak ez, oraindik. Pentsatu dut honek zer ondorio utziko dituen geopolitikan, eta zenbat gerra lazarri gehiago ekarriko dituen. Errealitateak, maiz, aurka egiten dit, baina ni, politikoki, baikorra naiz, lantzean behin fedea dila-dalan egiten badu ere.

Zuzendaria: Amagoia Mujika Tolaretxipi **Zuzendariordea:** Eider Goenaga Lizaso
Edizio arduraduna: Idurre Lazkano **Argitaratzailea:** Euskal Editorea SM **Publizitatea:** Bidera publizitatea
Lege gordailua: SS-0662/03 **Batzorde parekidea:** 0722184059 **Egoitza nagusia:** Martin Ugalde kultur parkea, Gudarien Etorbidea, z/g, 20140 Andoain **Telefonoa:** (0034) 943-30 40 30 **Faxa:** (0034) 943-59 01 72
Webgunea: www.berria.eus **Posta elektronikoa:** berria@berria.eus **Publizitatea:** publi@bidera.eus
Harpidetzat saila: (0034) 943-30 43 45 **Date:** 31/10/2023 **Exemplaire:** 6.324 **Editore:** Euskal Editorea S.L.
Directeur de publication: Amagoia Mujika Tolaretxipi **Comission paritaire:** 0924 C 84059

Delegation Labour: Lisses 3, 64100-Baiona, Tel.: (0033) 559256220. Fax: (0033) 559254303.
E-mail: lapurdi@berria.eus **Ordezkaritzak:** **Araba:** Bizentia Mogel, 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz.
Telefonoa: 945-15 04 52. Posta elektronikoa: araba@berria.eus **Bizkaia:** Uribearte kalea, 18, 3. C.
Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-435 26 00. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.eus
Lapurdi: Lisses, 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: 559-25 62 20. Faxa: 559-25 43 03. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.eus **Nafarroa:** Iratxe Monasterioa, 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea.
Telefonoa: 948-36 66 22. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.eus.

Loreak hemerrotekan

Ebaki ziguten egun-argiaren oihala herenegun eta begi-niniak iluntasanari moldatzen hasi zaizkigu halaberrez. Hasi dira egun euritsuak, hosto pila-ketak espaloietan eta beharbada ahanzturan genuen udazkenaren agerraldia. Denboraren hemerrotekan sartzen ditugu datak, gertakariak zein irudiak, eta usu, atera eta sartu dabilta bertatik. Iluntzen hasi duenez, adibide izan litezkeen artxibategiak ireki ditzagun:

Josi zuten kolpez Armita Garavanden gorputza duela hilabete. Teherango metroan beloa jantzi-ta ez eramateagatik jo zuten gaztea, koma egoeran utzeraino. 28 egun egin zituen ospitalean, bihotzaren josturak hautsi zitzaizkion arte. Bere heriotzaren oihartzuna gure etxeetara ino iritsi zen duela gutxi, eta, albisteon konkurrantzian leku sinbolikoa izan zuen arren, oihal batek esta-

litako gorpuak ez duen lorerik apenas jaso. Albiste bat gehiago izan zen hemerrotekarako.

Gero eta gutxiago uzkuertzen omen zaigu bihotza. Komunikabideetan aditu direnek argi hitz egin dute: begien aurrean jartzten dizkiguten gerra-irudiak ikustera ohitu egiten gara. Hasiera batean asalda gaitzakete irudiek, begiak ere irmo hertsiki ditzakegu, baina egun batzuk nahikoa dira pertzepzioa aldatzen hasteko: ohituraren gurrupilean sartzen gara gu, eta baita eskaintzen zaizkigun irudiak ere. Ez dugu kasik penarik sentitzen negar batean, euren seme-alaben gorpuak besoetan daramatzatenekiko. Urrun gertatzen ari da, ez da gure inguruko inor, eta badira egunerokoan lehentasuna duten hamaika arrazoi milaka kilometrotara jazotzen ari denarekiko. Hemerrotekarako albiste bat gehiago.

Ekialde Hurbilean bil daitezkeen lore apurak hildakoentzat eta



ARKUPEAN
Garazi Kamio Anduaga

**Abenduaren 3a
Domu Santu
egunaren antza
hartzen hasiko
ote den beldur naiz.
Loreak egun
horretarako
gordeko ote ditugun
pentsatzen dut,
noizbait izan zena
oroitu nahian**

gure baitako hemerrotekarentzat izaten dira. Hurbil gaitzen etxera: bihar hilerriak albiste izango dira, eta leku berezia izango dute urteroko albisteetan lorez apaindutako hilobiek. Uneko kazetariak pasa den urtean erabili zuen testu bera errepika lezake bihar, koma bakarra aldatu gabe. Hemerrotekak oka egin eta begien aurrera ekartzen digun albiste da. Esango dute kazetariak, beste behin, joan ziren horiek gogoan hartzeko eguna dela biharkoa.

Lorez eta kolorez apaindu direla hilobiak eta, batez ere, jende lepo daudela hilerriak. Atzerrikoari ukatzen diogun gupida geure buruari oparitzen diogu: loreak kanposantuan daudenentzat, nahiz eta urtean behin soilik izan.

Loreak eskaintzen zaizkio era berean euskarari. Maiz nazioarteko sari ugari irabazi dituen gaztaren alderratzan dut: hain da ona, pena ematen baitu probatzeak ere. Loreak nonahi izaten ditu

gure hizkuntzak, eta, gurtu egiten den arren, asko eta asko erabili azalduko beldurrez dabil. Hemerrotekak gainezka egiten du euskararen aurkako oldarraldiak dagokienean. Gerrako irudiekin geratzen den kontzientzia-lozorroa eman da euskalgintzarekin ere: berdin du azken egunetan Juan Luis Ibarrek berak lasaitasun osoan ahozko epairik mingarriena eman badu; berdin dio edozein herritako zinegotziak ulergarritasunik ez duen hitzezko labirintoa asmatu badu heldu den larunbateko manifestazioaren aldeko moziorekin aurka egiteko. Hemerroteka prest dago beste albiste bat irensteko.

Abenduaren 3a Domu Santu egunaren antza hartzen hasiko ote den beldur naiz. Loreak egun horretarako gordeko ote ditugun pentsatzen dut, noizbait izan zena oroitu nahian, hilobiaren edertasuna azpimarratuz, hemerrotekak anestesiatzen gaituen arte.

Argi izan dezagun oldarraldiak geurea beharko lukeela izan, udazkeneko egun ilunetan ere begi-niniak ederki zabaltzen ditugulako.

Familia-eskubidea eta hezkuntza

Koldo Zabala Atxa

Escola publikoko irakaslea
eta gurasoa

Lerroburua irakurrita baten batek pentsa lezake idazki honen helburua ikastetxeak aukeratzeko familien balizko eskubidea sostengatzea dela. Ez da hori asmoa, ezta urrundik ere. Zenbaitentzat hori oinarritzko eskubidea omen da, baina denona eta denontzako hezkuntza publiko aldarrikatzen dugunontzat, diskurtso horrek privilegio batzuei eusteko baino ez du balio.

Zer da gizarte batean aldarrikatu behar duguna? Osasun sistema, zaintza, hezkuntza... publikoa, unibertetsala, kalitatezkoa. Azken hilabeteotan, zaurgarritasun indizea aitzakia hartuta, hainbat ikasleri hezkuntza publikorako sarbidea ukatu zaie. Argudioa ez da izan zegokion ikastetxe publikoak beterik zegoela, arrazoiak izan da ikastetxe horrek dagoeneko beteta zuela administrazioak ezarri duen zaurgarri kopurua.

Gure administrazioa kezkatzen hasia da segregazioarekin ikasle falta dugun sasoi honetan, denontzako bezerorik ez dagoen urte hauetan. Beraz, agian kezka iturria ez

da gure hezkuntza sistemak bizi duen segregazio maila baizik eta jaiotze tasa baxuaren ondorioak.

Eusko Legebiltzarreko parlamentariak zein bestelako arduradunak Kataluniara joan ziren segregazioari aurre egiteko argitasun bila, eta han, antza, erantzunak topatu zituzten. Eta horren ondorioa izan da zenbait ikasle baztertuak izatea hezkuntza sistema publikotik.

Zaurgarritasun indizea inkesta baten bitartez eskuratzen du administrazioak, beraz inkesta batek zaurgarri bihurtu ahal du familia bat eta oinarritzko eskubidea, hezkuntza publikoa, ukatu. Formula zaharra: apartheid, bazterkeria, administrazioak zaurgarriaren lekuan, baliabide gutxi duenaren lekuan erabakitzea zer komeni zaion. Hertzainak taldeak, Christian Mooreren *No Time for Love* abestiaren bertsioan ezin hobeto azaltzen zuten: «horien legeak guretzat apartheid...», gure eskualdeko zenbait familiak horrela bizi izan dute, hezkuntza publikoan ikasi nahi eta ezin.

2021etik ikusi ahal izan dugu hezkuntza lege berriak izan duen ibilbidea, hasieratik adostasunera heldu ziren Eusko Legebiltzarreko talde nagusiak. Lege hau ez da behetik gora eratu, kontrakoa, zenbait alderdien artean sukaldatu ziren lege berrirako oinarriak eta parte-hartzearen berriz eman nahi izan diote.

Sasi parte-hartze prozesu honetan Eusko Ikaskuntzaren laguntza ere izan zuten, aniztasuna eta parte-hartze prozesua islatu nahian, baina hasierako gidotik atera barik. Hasieratik hezkuntza publikoaren komunitateak desadostasun osoa azaldu du, manifestazio jendetsuak, zenbait forotan euren desadostasuna adierazi dute eta ekarpenak egin dituzte EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak, Heize Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza Elkartearen Federazioak, Eskola Publikoaren aldeko plataformek... baina interes handiak daude lege honek aurrera egiteko, ikusi besterik ez itunpeko ikastetxeen patronalen presa lege hau ateratzeko.

**Gela itxi batean
sukaldatu denak
aurrera egingo du,
erromeria honetan
EAJ dantza kidea
aldatuz badabil ere**

Berriki, urriaren 18an, EHIGEko presidentek hezkuntza publikoaren komunitatearen iritzia eman du BERRIA egunkarian: *Euskal Eskola Publikoaren alde eta Hezkuntza Legearen aurka, kalera*.

Laburbilduz, gela itxi batean sukaldatu denak aurrera egingo du, erromeria honetan EAJ dantza kidea aldatuz badabil ere.

Lerroburura itzulita, *Derecho de familia* argentinarraren filmean (2006) bikote batean bata besteari horrela diotso: «Zer egiten dugu gure semea suitzar ikastetxe batera eramaten? Nire arbasoak poloniarrak izanda eta zureak espainiarrak...». Errealitateak fikzioa gainditu ohi du eta horixe gertatuko da gure artean, familia batek eskola publikoan seme/alaba hezi nahi eta suitzar ikastetxe batean edo kristau eskola batean edo... Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoak denak berdintzen ditu eta.

Bertsolariak abestu bezala, *batzuetan aldapa dator, bitzita ez da ordeka*, horregatik, bide malkartsu eta errebultaz beteriko honetan ez dugu etsiko. Azken hitzordua urriaren 29an izan berri dugu, Donostian, *Euskal Eskola Publikoaren alde, Hezkuntza Lege honi ez!* lelopean Bulevarretik abiatuta egindako manifestazioan. Izango dira aukera gehiago Euskal Eskola Publikoaren alde kalera ateratzeko, denona eta denontzako eskola publikoa erronka ederra da eta.

Ez dadin Auschwitz erreplikatu

Andoni Olariaga Azkarate
Filosofoa eta Iratzar fundazioko
kidea

Theodor Adorno Frankfurten jaio zen, 1903an, judutar komertziantea aberatsa eta italiar abeslari katoliko baten semea izan zen, eta 1969an hil zen, Suitzan. XX. mendearen lehen erdia bizi izanak garai historiko horren eraldaketa eta asaldura historikoak aztertzeko aukera eman zion, pertsonalki bizi izan baitzituen garaiak, besteak beste, erbestera joan behar izan baitzen naziengatik ihesi.

Bere hausnarketek bere belaunaldiak bizi izan zuen esperientzia historikoa dute abiapuntu, Europa erdialdeko ezkerreko judu intelektual bezala. Bi mundu gerra, Iraultza sobietarra, antisemitismoa, nazismoa, iraultza kulturala gerra-arteko Weimarko errepublikan, kontzentrazio esparruak, bonba atomikoa... Eta ondoren, desnazifikazioa, ongizate estatuaren sorrera, eta baita 60ko ikasle borroka eta mugimendu antirakalariak bizi izan zituen.

Auschwitz-ek modernitatearen optimismoa suntsitu zuen: milioika gizaki era hotz eta mekanikoean akabatu zituzten, juduak, ezkertarrak, homosexualak, ijitoak, aniztasun funtzionaleko jendea... Ez zegoen gizakia kate guztietatik askatuko omen zuen arrazionalitate moderno optimistan konfiantza izaterik berriz. Nola gerta zitekeen halako basakeria bat?

Historia erreplikatzera kondenatuta egon nahi ez bagenuen, Adornoren iritziz, filosofiak XX. mendeko izugarrikerien

kausak, ezaugarriak eta ondorioak ongi ulertu behar zituen. Hannah Arendt-ek *Eichmann Jerusalem* liburuan (Katakrak, 2023) eman zuen esplikazio bat, gaizkiaren hutsaltasunaren terminoarekin: naziak ez ziren gaixoak, gehienak burokrata hutsak ziren, norbaiten aginduek betetzen zituztenak, ondorioei buruz hausnartu gabe. Gorrotoa baino, burokratia hotza.

XX. mende erdialde ondorengo eta XXI. mende hasierako industria kultural, literario eta zinematografiko nagusienek, ordea, sarraski horren atzeko arrazionalitate ilunenak arakatu beharrean, moralak merkeenaren narratibak bultzatu zituen: nazi irrazional eta barbaroak, batetik (soietar barbaroen pareko); judu eta amerikar txintxoak, bestetik. Ez da harritzekoa Adornok Auschwitzren ondoko kultura guztia zaborra zela esatea, ez zuen arrazoirik falta.

Adornoren ustez, «bizirauleen errua» partekatzea zen filosofiaren eginbeharra. Zergatik nago ni bizirik eta beste batzuk hilik? Auschwitz ondorengo pentsamenduaren betebeharra zen hura hoztasun handienarekin gertatzea posibilitatu zuten baldintza kultural, sozial eta politikoak gogor kritikatzeko. Zygmunt Bauman-en hitzetan, nazismoa ez zen izan modernitatearen kontrako proiektu irrazional bat, ezpada zibilizazio modernoaren oinarri kontzeptualen eta produktu teknikoaren muturreko espresio bat. Ilustrazioaren proiektuan eta Mendebaldeko gizarte arrazional eta burokratikoaren arau eta instituzioek egin zuten posible: «Zibilizazio modernoaren eta bere lorpen fundamentalik gabe ez litzateke Holokaustorik egonena». Mundu ikuskera arrazional hori izan zen, hain justu, genozidioaren inple-

mentazioa posible egin zuena: gizarte-industrialaren sare teknologikoa, gizarte burokratikoa eta «estatu lorezainaren» diseinu artifiziala: gizarte garbi mantendu beharreko lorategi uniforme gisa irudikatua, genozidioa belar txarrak garbitzea baino ez zen (juduak, nazismoaren kasuan; palestinarak, Israel eta mendebaldeko potentzien kasuan gaur egun).

Garai historiko horren baldintza kultural eta politikoak ez dira aldatu, ordea. Batetik, arrazionalitate neoliberal XX. mende hasierako arrazionalitate burgesaren bertsio berritua da, lurren eta ongi komunen arpilatzean oinarritzen dena (Israelgo estatuaren oinarri konstituziogilea da aurrekoa, bertako populazioaren garbiketa etnikoaren eta Mendebaldeko potentzien laguntza ekonomiko eta militarrez akuilaturik sortu baita). Bestetik, populazioen

barbarizazioa kolonialismo eta inperialismo zahar-berrien sarraskientzako gaur erabilitako modernitateko subjektibitate berbera (juduak arratoiak ziren nazientzako; arabiarak animaliak egungo Israelgo Gobernuarentzako). Azkenik, modernitateko nazioaren ikuspegi frantses kosmopolita eta arrazionala lagun, nazionalista zibilizatuak –haien burua nazionalistatzat ez dutenak– eta nazionalista barbaroak errotik bereizten jarraitzen ditugu, masa biolentziak onargarri egiteko barbarizazio berriak erreproduzitzen.

«Ez dadin Auschwitz erreplikatu» Adornoren oihua, gaurko testuinguruan XXI. mendeko borroaren sarraskien baldintza zibilizatorioaren azterketa eta kritika da. Oihu horren izarritua ulertu behar dugu, ez konparazio desegokietan erortzeko, baizik eta gaur gertatzen ari dena ulertzeko (ez baitira garai onak lirikaren tzat...). *Argia* ala *iluntasuna*, Mendebaldeko balioak (a.k.a. fundamentalismo inperiala) ala islamismo erradikala, moralak ala immoralak (Frantziar Palestinaren aldeko manifestazioak ordena moralaren aitatzian debekatu dira, ez ordena publikoaren arrazoiz), barbaroak ala zibilizatuak, demokratek ala biolentoak... horiek dira atzoko, gaurko eta biharko sarraskietarako ongarri kulturalak. Eta biharko palestinar herriaren balizko desagertzearen arrangurarako artefaktu kultural oro zaborra baino ez da izango, ondorengo sarraski berrientzako ongarri kultural berria. Testuinguru honetan, beraz, palestinar herriaren eskubideen defentsa beste zibilizazio eta arrazionalitate justuago baten kausa bilakatzen da. Eta Angela Davis-ek berriki esan bezala, *palestinar ausia* munduarentzako test morala bilakatu da. Berriz ere huts egingo ote dugu?

**Angela Davis-ek
berriki esan bezala,
'palestinar ausia'
munduarentzako test
moral bilakatu da.
Berriz ere huts egingo
ote dugu?**

ZUZENDARIARI

‘Gernika’ margolana: «Gerrari ezetz» borroka antifaxistaren aurka

Espainiako II. Errepublikak, 1936an hil ala biziko borrokan ari zela, Pablo Picasso margolariari obra bat egitea eskatu zion. Mandatu horren xedea demokrazia liberalen kontzientziak astintzea zen, indar antifaxisten gerra-ahaleginari lagun ziezaioten. Hots, euren burua demokrazia gisa izendatutako horiek erakarri eta moraliki behartzea armada kolpisten aurrean garatzen ari zen borroka armatua babes bezatzen. Horrela, Gernikako herriaren bonbardaketa eta sarraskia inspirazio iturri izango zituen Malagako artistak.

Kapitalismoak, *merchandising*-aren bidezko iraultzaren transmutazioa trebea betidanik, laster jakin zuen arma antifaxista hori desegiten. Hala, humanista deiturikoen axolagabekeriaren aurrean, Picassoren koadroa berehala desitxuratu zen, gerren kritika antzua eta testuingurutik kanpokoa bihurtu arte. Aurrerakoi ilustratuen bake mentala ezegonkortzeko gauza izan ez zen zerbaite bezala geratu zen, errezetarik gabeko medizinarekin sendagarria den gaixotasunaren eran.

Eta horrela, zapalduekiko elkartasun militantea sortu nahi zuen sinbolo bat, santoral moduko baten argazki bilakatu zen, zorigaitz sakratuen deskribapen aseptikoa. Hau da, injustizia jasaten duten guztiak otzanak izan daitezkeen deidarra bilakatu da, euren zapaltzaileen

partez injustizia handiagoak saihestu ditzaten. Errukiaren erretratatu hutsa bihurtu zen.

Gernika margolanak ez zituen kontzientzia kapitalista aurrerakioak mugitu, eta azkenean ilusio apurtu, bonbardatu, fusilatu eta kiskali horien errefuxiatuentzat zenbait diru-funts biltzeko baino ez zuen balio izan.

Obra-artistiko honek Garaipenaren Arkua gordetzen duen hirian erakutsia bukatu zuen; Bizkaiko hiria Nakba bihurtu zuen faxismo haren garaipenaren monumentua, alegia. Era honetan, herri genikarraren sarraskia oihalarazteko errukior pribilegiatuen lasaitasunerako monumentu bihurtu zen.

Ez dezagun euskaldunoi egin ziguten berbera gaur Palestinarekin egin.

Taher Ali. Al Yudur mugimenduko kidea

Xabier Ganeko

Gaur eguneko ume askorentzat zenbait kirolari edo artista diren moduan, parekoa zen niretzat umetaroan Xabier Ganeko (Xabier Amuriza). Kartzelan egon zen garaian, ni ume nintzela eta zuzenean ezagutu ez arren, aldiro-aldiro agertzen zen haren izena gurean, Autzaganeko tabernan. Xabierrek jendaurrean botatako lehenengo bertsoak ezagutu zituen berbera. Luzio eta Maria Jesus aita-amak auzoko oso hurkoak izateak ere ederto lagundu zuen horretan, zalantza barik; etxe-etxe-koak ziren, azken batean.

Baina ez ziren bakarrak horretan, beste izenik ez eta Sagarrenen taberna deitzen zuten garai bateko taberna-denda-jatetxe hartatik pasatzen ziren hainbat eta hainbat

Palestinaren patu hitsaz

Pako Sodupe Idazlea

Ikusten ari garen bonbardaketak eta setioa eta giza sufrimendua ikusirik, bihotzak diosku: amai bedi palestinaren genozidioa, aska bitza Hamasek bahituak eta su-etena dekreta bedi behingoz, eta Gazan, eta Zisjordanian ere, gizaki moduan bizitzeko baldintza duinak ezar bitez, bi lur eremu guztiz populatu horiek israeldarrek erabat menderaturiko sagu kaioak izateari utz diezaioaten. Baina hotzean pentsaturik, buruarekin, eta munduko geopolitikari begira jarrita?

1948ko gerrarekin hasita –700.000 palestinarrak, iheslari bihurtuak–, eta 1967ko gerrarekin jarraiturik –Israeliek AEBen laguntzarekin, arabiar estatu guztiak menderaturik–, eta harrezkeroko errepresalia etengabeen eta estatu-egituraren bitartez –armada eta kolonoak nagusi direla!– palestinarrak erailzen, iheslari bihurtzen, eta lurrak lapurtzen ari dira israeldarrek, israeldar hildako bakoitzeko hamar palestinarrak erailiz.

Duela ia bi mila urte erromatarrek izan ziren juduak iheslari bihurtu zituztenak; berriki naziak izan ziren sei milioi inguru erail zituztenak, eta orain israeldarrek dira palestinarrak zanpatzen eta diasporara berritzen ari direnak, anaia nagusi amerikanoaren babes osoarekin. Eta oraingoa, kaitearen beste begi bat da.

Ez dago erabat argiturik Hamaseko militanten erasoa nolatan ez zuten lehenago geldiarazi –ez ote zuten baliatu nahi, eraso ahalik eta handiena jotzeko aitzakia izateko?–, eta, hasteko, balio izan die Mende-

baldeko gobernuek behin eta berriz errepika dezaten Israeliek eskubidea duela bere burua babesteko –ez dira ausartzen esaten, egiten ari diren basakeria egiteko ez dutela eskubiderik; bakarrik nazioarteko legedi humanitarioa bete behar dutela, baina betearaztea exijitzeko batere asmorik gabe–; eta, ikusten ari gara zer esan nahi duen Israelentzat bere burua defendatzeak: ospitaleak, eskolak, meskitak eta bizitegi-erakinak bonbardatzea, eta Gaza guztiz setiatzea.

Pentsatzen jarrita hotzean, gure inguruko estatu guztiak dira indarraren bitartez sortuak –Espainia, Frantzia, Erresuma Batua, Alemania...; hori bai, hedabideak toki guztietara iristen ez ziren garaian–, eta Israel ere bortxaz ari da estatua finkatzen eta sendotzen. Eta Mendealdeko gobernuak Israelgo estatuaren alde, AEBak buru.

Israeldarrentzat Israelgo estatua demokratiko liberala da, eta palestinarentzat estatu terrorista. Palestinar herriaren aurkako genozidioa guztiz bidegabea da noski, krudela, tragikoa; palestinarrak, baina, zer-nolako etorkizuna daukate beren lurrean? Honaino heldu diren bezala heldurik, ez ote dute iheslari bihurtu arte gaizki bizitzearena baino? Egun Palestinatik kanpo askoz palestinarrak gehiago daude beren lurra baino, eta itxura guztien arabera, gero eta gehiago egongo dira.

Bi estatuen irtenbideak guztiz ezinezkoak dirudi. Afera hau inork baino hobeto ezagutzen zuen Edward W. Said palestinarrak estatubatuarrek (1935-2003, Palestinako Kontseilu Nazionalakoa izan zen) Osloko akordioak (1993) jotzen zituen kausa palestinarra kausa galdua bihurtu izanaren erantzule. Ironikoki, Israel-AEBen aurka inguruko estatu arabiarrek militarriki porrot erabatekoa izatean ernatu zen kausa

palestinarraren esperantza; Hego Afrikan eta Hego Ameriketako eta halaber Europan, Irlanda eta Euskal Herrian ere, antzeko askapen mugimenduak sortu zirelako eta haien barruan kokatzen zelako kausa palestinarra ere; baina Osloko akordioak sinatzean honako balorazioa egiten zuen Saidek:

«Aitortu behar dizuet Israelen eta PAEren arteko Osloko akordioak iragarri zirenetik eta 1993ko udazkenean sinatu zirenetik saiatu naizela ulertzen nola den posible herri batek eta bere buruzagiek uko egitea eta Palestinaren kausatik aldentzea, Palestinak gutxienez 1967an Israelen aurrean galdutako lurraldeak berreskuratzea lortu behar baitzuen, okupazio militarra, anexioa eta asentamenduak amaitzea, eta, agian garrantzitsuenak, benetako demokratikotasuna, aberriatzea eta herriaren batasuna bere lurraldean». Kausa hori askatasunaren eta berdintasunaren aldeko borroka unibertsalaren zati gisa ere agertzen zen». (*Erbesteari buruzko gogoetak*. 2013. 508-509).

Inork pentsa ote lezake Palestina historikoaren lurra hartuko lituzkeen Israelgo estatu bakarrak israeldar jatorrikoen eta palestinarrak jatorrikoen eskubideak berdin defendatu eta bermatuko lituzkeela?

Harrezkeroko hiru hamarkadetan gero eta kausa galduek bihurtu da Palestinarena. Mikel Aiestaran kazetariak egunotan esan bezala, bi estatuen kontua erabat utzopikoa da, eta han dagoen estatu bakar burujabea Israel da. Inork pentsa ote lezake Palestina historikoaren lurra (*Eretz Israel*, israeldarrentzat) hartuko lituzkeen Israelgo estatu bakarrak israeldar jatorrikoen eta palestinarrak jatorrikoen eskubideak berdin defendatu eta bermatuko lituzkeela?, eta, inork pentsa dezake, errealista izanik, AEBek eta Europako Batasuneko gobernuak ezer taxuzkorik egingo dutela bi estatuen proposamena hala gerta dadin?

NBEk, tamalez, gaur egun eskuak lotuak ditu afera honetan –Hagako epaitegia Afrikako estatu pobreetzat bakarrik da nonbait!–, batez ere AEBek Israeli ematen dioten erabateko laguntzagatik –demokratek bezala errepublikanoek, eta ikusten ari garen, Joe Bidenek ez Donald Trumpek baino gutxiago, sentimentaltasun patetiko gorabehera–; garrantzizkoenak estatu arabiarrek dira, baina haietako agintariak, diru zikina bezain preziatua tarteko, Israel-AEBen nagusitasunera aski egokituak daude, Iran eta Hezbollah eta Hamas salbu.

Senide musulmanen benetako laguntzarik gabe, Mendealdeko gobernu eta herriarregandik jaso dezaketen laguntza humanitarioa gorabehera –Europako Batasuneko gobernuak, onenean, AEBek baino humanitarioago jokatu dute, hipokrisia handiz eta diru zerbait bideratuz, baina, funtsean, amerikanoen ildotik, hots, Eretz Israel edo Palestina historikoaren lur berreskuratzen gaineko Israelgo estatua babesten eta finkatzen–, itxura guztien arabera, ezin bizirik jarraituko dute palestinarrak Gazan eta Zisjordanian. Noiz arte?, guztiak iheslari bihurtu arte?

personaia bitxi eta maitagarrien ahotik ere oso ohikoa zen hori entzutea. Denontzat zen eredu eta estimu handian zeukaten. Oso handian!

Xabier Ganekok erakutsi behar zidan euskara dotorea, bertsotan... zertan ez! Eta ni, bitartean umemokoa nintzela, guztiz sinistuta. Nire gabezia guztien konponbidea! Eta halako batean kartzelatik irten, tabernatik pasatu eta joan egin zitzaigun. Kaixo eta agur! Hortxe amaitu zen niretzat mitoa, orduko garai hartan behintzat.

Urte batzuk behar izan nuen ulertzeko Xabier ez zela nire pribilegioa eta are gutxiago nire talentu murrizta atondu behar zuena. Askoz ere helburu handiagoetarako sortua zen eta erakutsi ere egin du hori. Autzaganetik askoz harago zegoen haren gerizpe eta eraginaren beharrezana.

Eta beharrezana ere bada gaur egun,

etxanotarrantzat nahiz euskaldun guztiontzat, Xabierrek eskaini eta eskaintzen digun ekarpenari aitortza egokia egitea. Hortik, beraz, azaroaren 11ko omenaldi herriar xumea. Xumea, baina bihotz-bihotzez egina.

Nire aldetik, prest nago barkamena eskaintzeko, baldintza bakarra jarrita baina. Nire eskakizuna da Xabierrek omenaldi horren partaide ere egitea Autzaganeko unibertsu zoragarri hura osatzen zuten guztiak, gerora ezinbesteko osagai izan direnak, ziurrenik, bere lorpenetan: Segunda Etxanosoloko, Kartzelas (eta enparaueak), Luzio eta Maria Jesus, gure amuma Josefa eta Autzaganeko taberna hartako

izpiritua ondoen gorde zuen gure ama Benita. Eta aipatu bako beste hainbat!
Andere Manterola Dudagoitia. Autzaganeko

Kondenatuko al dugu?

Segun. Gerra irabazten duenak erabakitzen du zer gozatsi eta zer gaitzetsi, zer bultzatu eta zer debekatu. Baita gaitzetsi noiz isildu behar den, noiz lagun minei ongi etorria egin, nola pairatu irabazlearen aldeko lausengu eta fariseismoak...

Etxean belaunaldi denetan gerra galduta izan dugunoi uztarpe hori ezarri zaigu. Ezaguna zaizue, ezta?


Oraingo *Formación del Espíritu Nacional* (espainola) aplikatzean, beti bezala berritzen gaitzue, betikoak esan, isildu, ikusi, ebittatu, eta abar. Esan dugun hori egia dela frogatzeko, Errusia/Ukraina eta Israel/Palestina ditugu, Euskal Herria adibide baten osagai jartzea lotsagabekeria delako: hiztegi berbera, baina ez simetrikoa, gerra / inbasioa, terrorismoa kondemnatu, nahi izan gabe eragindako heriotzekin kezkatu, asasinatu / abatitu (erdaraz, baina igual dio), terrorismoaren biktimak (alde bakarrek), euskara / erdarak (gaztelania eta santanderinoa barne)...

Errealitatea horrela mozorrotzea ez ote da biolentzia? Zergatik ez duzue asmatzen ordena berri bat, egungo errealitatea adierazteko eta ulertzeko? (Hainbeste inaugurazio tartean, astirik ez duzue, baina...)...

Edorta Agirre. Zubietan



BERRIAK irakurlearen eskutitik plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tartekatu barne, eta **BERRIAK** motzeko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berria, Martin Ugaldel kultur parkea, 20140 Andoain. Eskutitza Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.eus.



Pamiela
argitaletxearen
eta **BERRIA**ren
eskutik

15 €

bc 12,75 €

'Haragizko erreformak'

Egilea: **Mari Luz Esteban**

Mari Luz Estebanek poema-bilduma guztietan harreman-sareetan arakatu du, gutasunak zein nitasunak gorpuztean elkarrekiko harremanek, afektuek eta pentsamenduek zer-nolako eragina duten poetikoki adieraziz. Lehen poema-bilduman, *'Amaren heriotzak libreago egin ninduen'* (Pamiela, 2013), amaren genealogiak arakatzearekin batera, senidetasun- zein afektu-sareek sorturiko tentsioak, desirak, zauriak zein grinak arakatu zituen; bigarren poema-bilduman, *'Andrezaharren manifestua'* (Pamiela, 2019), zahartzea bizitzeko, gorpuzteko eta birpentsatzeko moduez jardun zuen, begirada feminista ardatz izanda.

Hirugarren bilduma honetan, genealogia geografikoetan, kulturaletan, sozialetan zein linguistikoetan arakatu du, askotariko adarkatzeaz osaturiko genealogia afektibo eta politikoak poetikoki gorpuzteko.

Tantoa



Txirrindularitza Xabier Artetxerekin solasean • 22

Saskibaloia Ivanovicek ordezkaturako du Peñarroya Baskonian • 24

Errugbia Hegoafrika, laugarrenez munduko txapeldun • 28

Zortzi bide berri Groenlandian

Maialen Rojok, Amaia Seguiolak, Uxue Loizuk eta FEDMEko Alpinismoko Emakumeen Taldeko beste kideek goi mailako jarduera osatu dute Mythic Cirqueko dorreetan • 26





«Tourrean nagusi izan gineneko zirrara sentitu nahi dut berriro»

Eñaut Agirrebengoa Larrabetzu

Angry basque (euskaldun erre-txina) deitzen dioten arren, Ineos taldean «oso estimatua» sentitzen da Xabier Artetxe (Larrabetzu, Bizkaia, 1978). Ia hamar urte daramatza han prestatzaile gisa, modu zorrotz eta askean lan egiten. «Inoiz ez didate ez mugarik ez trabarik ipini». Erronka handia du orain esku artean: Ineosi izan zenera itzultzen laguntzea. Etorkizunean, ez du baztertzeko kirolez aldatzea: «Gogoa dut beste iturri batzuetatik edateko». **Prestatzaileen burua zara Ineos taldean. Zein eginkizun dituzu?** Ni, berez, prestatzaile bat gehiago naiz. Hurrengoa nire hamarga-

Xabier Artetxe • Ineos taldeko prestatzaile burua

Bileraz bilera dabil Artetxe. Sasoi berriaren bide orria ezartzeko garaia da, eta gerora hartu beharreko ildoaz ere hausnarrean dabilta Ineosen. Tourreko agintea berreskuratu nahi dute.

rren urtea izango da taldean, eta prestatzaile bezala aritu naiz azken bi urteetara arte. Taldean lauzpabost prestatzaile gaude, eta bakoitzak sei edo zazpi txirrindulariren ardura izaten du. Nik lan hori egiten jarraitzen dut, baina horrez gain, beste guztia koordinatu beharra dago: lan ildoak, urteko plangintza osoa, altueran egiten diren egonaldiak...

Hori horrela, lan asko duzu urtearen garai honetan?

Bai, lan eta lan nabil. Trantsizio fase betean gaude. Gazte asko ari dira taldean sartzen. Datorren denboraldia prestatu beharra dago, baina hausnarketa sakona ere egiten ari gara epe luzeko begiradarekin. Gure helburu



GORIKA RUBIO / FOKU

nagusia oraindik ere Tourra irabaztea izanik, helburu hori nola lor dezakegun ari gara aztertzen. **Zeresana izaten duzu fitxaketari edo kontratu berritzei loturiko erabakietan?**

Interesa dugunean txirrindulari batengan, bere datuak pasatzen dizkirate, eta aztertu egiten ditut, eta nire iritzia ematen dut. Taldearen barruan zer zeregin izango lukeen, eta soslai horretako txirrindulari bat komeni zaigun edo ez esaten du zuzendarien buruak. Nik, berriz, prestatzaile ikuspuntua ematen dut: zer eman diezaiokien taldeari, zenbat lan egin duen, non dagoen momentu honetan eta nora irits daitekeen... Beti agian ez, baina gehienetan

kontsulta hori egiten zaigu fitxaketak egiteko orduan.

Movistarrekin kontratua sinatua zuen Carlos Rodriguezek, baina, azkenean, Ineosekin berritu du. Gertatu denaz xehe-tasunik eman dezakezu?

Iaztik maila handia ari zen ematen, eta aurreko kontratua bukatzen zitzaionez, talde asko zituen atzetik. Movistarrek interes handia zeukan, eta oso eskaintza ona egin zuen. Hanka bat han jarria zuela zirudien. Gurekin urtea oso ondo joan zaio, beste aurrerapauso bat eman du, eta Ineosek ikusi du taldearen etorkizunean oso garrantzitsua izan daitekeela. Berak babes hori sentitu du, eta Tourra izan da mugarrira: zer maila

eman dezakeen erakutsi du, eta horrekin batera, ikusi du taldeak zer-nolako babesa eman diezaiokien. Adostasuna zegoen bi aldearen artean, eta beste lau urtez jarraituko du gurekin.

Horrekin batera, lider bila aritu zarete beste talde batzuetan.

Merkatuan zer dagoen ikusi behar duzu, eta taldeko manager Rod Ellingworthek esan izan du: taldea ez da kontratua duen inoren bila joango, baina maila ona duen norbait kontratuz libre gelditzen bada, Ineosen interesa izango du. Taldeburu diren gehienek oso kontratu luzeak dituzte: Pogacarrek berak, Vingegaardek, Ayusok, Evenepoelek. Rogliceekin ziur taldeak hartu-emana izango zuela, libre gelditu den heinean. Beste urte baterako kontratua zuen, baina askatasuna eman dio Jumbok [azkenean, bi urterako sinatu du Borarekin].

Taldean baduzue Tourra irabaz dezakeen inor, edo nahitaez norbait fitxatu behar duzue?

Ez dakigu, eta horregatik, biildoak jorratu behar dira. Beste taldeetako lider onenek kontratu luzeak dituzte, beraz, konfiantza izan behar dugu orain dugun taldean. Batzuek dagoeneko erakutsi dute irabazteko edo aurrean egoteko gai direla: Bernal, Thomas eta Carlos Rodriguezen kasua da. Eta, era berean, ez dakigu Pidcock eta Sheffield bezalako gazteak noraino irits daitezkeen. Horrekin batera, lanean jarraitu behar dugu gure taldean ez dauden txirrindulari interesgarriak fitxatzeko. Batzuk berehala eta oso gazterik iristen dira, gorenara, baina ez da beti hala gertatzen. Vingegaardek, adibidez, garapen prozesu bat izan du Tourrak irabazten hasi aurretik.

Daukan aurrekontuarekin, Ineosek derrigorrez irabazi beharko luke Tourra?

Ineosek aurrekonturik handiena duela esan ohi da, eta hori mito bat dela iruditzen zait. Sky taldean agian hala izango zen, baina gaur egun, beste talde batzuek gaitasun handiagoa dute fitxaketak egiteko. Ikustea besterik ez dago Jumbok edo UAEK zer txirrindulari dituzten. Lidl-Trek eta Boran ere sekulako kontratuak eskaintzen ari dira. Uste dut ez garela gu World Tourrean aurrekonturik handiena duena, eta ez dakit aurreko hiruretan egongo garen 2024an. Dena den, Tourra irabazi ez badugu, ez dut uste bakarrik horregatik izan denik. Ez gara urritu egon: 2021ean eta 2022an podiumera igo ginen, Carapazekin eta Thomasekin.

Urte honetako Jumbok Sky onenari irabaziko lioke?

Agian bai. Urtetik urtera hobetuz doa txirrindularitza, eta 2016ko edo 2019ko irabazleek izandako datuekin ezin da gaur egun Tourra irabazi. Gainera, talde moduan ere maila handia erakutsi du Jumbok. Hortaz, esan daiteke orduko Sky baino indartsuagoa dela. Baina dena esate aldera, aldaketa handiak izan dira: teknologia garatu egin da, bizikletak azkarragoak dira, elikadura eta errekupeazio fasea hobetu egin da... Skyk ekarri zituen gauza asko kopiatu eta hobetu egin dituzte zentzu batzuetan, eta zorionez, txirrindularitzak aurrera egin du, eta asko igo da World Tourreko maila. Orduan, 2015a ezin daiteke 2023arekin alderatu.

Urte honetako Jumbok irabazi egingo lioke agian Sky onenari. Urtez urte hobetuz doa ziklismoa?

«Sei urte daramatzat Bernalekin lanean, eta hark eman dizkit orain arteko pozik handienak»

dularitzak aurrera egin du, eta asko igo da World Tourreko maila. Orduan, 2015a ezin daiteke 2023arekin alderatu.

Jumboren nagusitasunak luza-ro iraun dezake, edo gauzek orekatzea egingo dute?

Ez da erraza urte luzez goi-goian egotea. Beraiek gutxienez hamar urte daramate proiektu honetan lanean, eta gorenara iristea lortu dute azkenean. Ordea, momenturen batean txirrindulariek ezingo diote errendimenduari eutsi, eta langile taldearentzat ere ez da erraza eguna joan eta eguna etorri maila horretan aritzea. Halako batean, ikusiko dute ez direla Tourra irabazteko gai. Gure aroan ere ematen zuen gauzak erraz ateratzen zitzaizkigula, lider bat edo bestea eduki. Baina 2019az geroztik ez dugu Tourrik irabazi. Pogacar nagusitzen hasi zen, eta ematen zuen hurrengo hamar Tourrak bereak izango zirela, baina esan bezala, hor goian irautea ez da erraza.

Tourra Bernalekin irabazi zenuen azkenekoz. Hark istripu larria izan zuen iaz, eta osatze prozesuan zu izan zaitu gidari. Erronka handia izan da?

Bai. Momentu zailak izan ziren. Istripuaren ondoren, lehen helburua bizirik jarraitzea zen. Eta gero, ahalik eta bizi kalitatearik onena izatea, lesio oso larriak izan zitzaizkela. Hurrengo pausoa, bizikletan ibiltzea izan zen. Iaz, inork uste baino askoz lehenago hasi zen berriz ere lehiatzen.

Asko sufritu zuen. Aurten, ordea, Tourra eta Vuelta bukatzeko gai izan da. Oso pozik gaude. Ez dugu ahaztu behar nola zegoen orain dela hemezortzi edo hogeita hila-bete. Hori bai, bera irabazle bat da, eta hor aurrean egon nahi du berriro. Ez da erraza izango, baina badut esperantza. Sei urte daramatzagu elkarrekin lanean, eta berak eman dizkit pozik handienak.

«Lan egiten uzten didan talde batean egon nahi dut». Zure hitzak dira, 2011n BERRIARI esanak, artean Caja Ruralen zenbiltzala. Ineosek aukera hori eskaini dizu?

Bai: konfiantza eta askatasuna eman dit gauzak nahi bezala egiteko, eta nahi izan ditudan baliabide guztiak eduki ditut eskuragarri. Ni taldera iritsi nintzenean, komunikazio falta zegoen taldeko multzo latinoarekin, eta prestatzaile bat nahi zuten zulo hori ixteko eta ziklista multzo horrekin lan egiteko.

Baina inoiz ez didate ez mugarik ez trazarik ipini lan egiterakoan. Asko hazi naiz profesional moduan. Atzerrira joan behar izan dut halako aukera bat lortzeko, beste askori gertatu zaien bezala. Prestatzaileen buru izendatu naute, eta oso estimatua sentitzen naiz. Euskal Herrian oso jende baliotsua dugu, eta World Tourrean hemengo langile ugari dago.

Zeintzuk dira ziklistei duten onena ateratzeko gakoak?

Hori ez da aldatu gizakia entrenatzen hasi zenetik: ondo entrenatu, ondo jan eta ondo lo egin. Hori egiten duen kirolari orok oso maila ona lor dezake. Askotan beste gauza batzuei begiratzen zaie, hobekuntza txikiak lortu nahian, eta funtsezkoa zer den ahaztu egiten da.

Beste urte askoan jarraituko duzu Ineosen?

Ez dakit. Izan ditut aukerak taldeez aldatzeko, azken urtean ere bai, baina momentuz, gogotsu nago Ineosen. Tourrean nagusi izan gineneko zirrara sentitu nahi dut berriro. Baina pentzakor ere egoten naiz batzuetan. Bizi osoa txirrindularitza izan da, eta gogoa dut beste iturri batzuetatik edateko. Aukera polita izan liteke beste kirol batean proba egitea, ikasitakoa transmititzeko, eta aldi berean, gauza berriak ikasteko. Mendiari lotutako kirolak asko gustatzen zaizkit, adibidez, mendiko eskia. Eta futbolak ere erakartzen nau.

HIRUKOTIK
Mikel Reina



Ez dira garai onenak


Ez dira betiko garai onenak Gasteizen. Bolada txarrean daude Araski eta Baskonia. Hasi bezain laster daude kinka larrian. Ez dira itxura ona ematen ari.

Baskoniaren zaleen azken egunak azaltzea zaila da. Joan Peñarroyaren aldia amaitu dela eta Dusko Ivanovicek ordeztuko duela jakin dute. Kluba urduri, eta taldea, ezinean, azken bost partidak galduta. Emaizak baino gehiago, irudia izan da kezagarria. Taldea jota dago. Normala. Peñarroyak bazekien klubak bere kaleratzea iragar-tzea bakarrik falta zela haren aldia bukatzeko. Nola egingo zien aurre partidei? Negozioak beti dira zailak: denborak, filtrazioak... aldagai asko daude. Akaso, hobe zen hura kaleratu izana, eta bigarren entrenatzaileak zuzendu izana taldea; batez ere, irudiagatik. Futbolearen, behin baino gehiagotan ematen dira horrelakoak, eta badaude azkenean denboraldia amaitzen dutenak. Orain, lesioak gehitu dira, egoera gehiago zailtzeko. Mannion, Howard, Diez, Moneke eta Rogkavopulos dira minen bat edo beste

dukenak. Beraz, antolatzaile bat ez ezik, agian, beste zerbait ere ekarri beharko du klubak.

Ivanovic da konponbidea? Taldea biziberritu behar da, eta horretarako gutxi daude Montenegroa baino hobeak. Behin baino gehiagotan egin du; azken aldian, liga irabazi zuen. Gainera, Buesa Arena ezin hobeto eza-gutzen du, laugarren aldia luke-elako. Arazo bat duzunean beti laguntzeko prest dagoen laguna da Ivanovic. Baina edozein lan egiteko gai da? Berdin dio egoe-rak? Argi dagoena da errespetua baino gehiago merezi duela. Ivanovic Baskonia delako.

Epe laburrerako konponbidea izan daiteke, baina etorkizunera begira abiapuntura itzultzearen sentipena da: proiektu falta dago. Peñarroyarekin zalantzak udan hasi ziren, eta erabateko ziurtasunik gabe jarraitu zuen karguan. Berak jarritako helburu nagusia bete zuen: Buesa Arena betetzea saskibaloierakargarri eta bizia eginez. Bulegoetako helburuak, ordea, ez ziren bete: Kopan eta ACB ligako kanporaketetan final-laurdenetan kanporatu zuten Baskonia, eta Euro-



Dusko Ivanovicek ordeztatu du Joan Peñarroya Baskonian. ANDREJ CUKIC / EFE

ligako zortzi onenetatik kanporatu zen azken unean. Ikusteko dago Ivanovic jokalaria berdinekin zerbait desberdina egiteko gai den edo harekin batera beste jokalariren bat ekarriko duen. Baina zerbait aldatu beharra zegoen, eta halakoetan egin ohi dena egin du Baskoniak: entrenatzailea kargugabetu.

Azaroko finalak. Zurbatzen ez daude ondo, ezta Mendizorroztan ere. Finalak jokatzeko hasia da Araski, baina inork jokatu nahi ez dituen horietakoak dira; denboraldi hasieran ez dago final onik. Gasteiztarrek ez dute partidarik irabazi, ez ligan, ezta denboraldiaurrean ere. «Bloketo atuta gaude». Argi utzi zuen Madde Urietaren Ensinoren aurka etxean galdu ostean. Hori zuten lehen finala, eta bigarrena ostiralean jokatu du Celtaeren aurka, Vigon (Galizia). Ensinok Mendizorroztan lortu zuen

lehen garaipena, eta Celtak helburu bera du. Baina, benetan, Araskik behar du garaipena, batez ere, jarraian, bi aste ekena dagoelako, eta aste horiek oso luzeak izan daitezkeelako.

Gizonezkoetan ez bezala, emakumezkoetan bestelako bideak hartu ohi dira aulkari dagokionez. Jokalariak aldatzeko joera gehiago dago; entrenatzaile gutxi kaleratzen dituzte denboraldi bete-betean. Gainera, hiru euskal taldeak bereziak dira, kluba eraiki zutenak daudelako agintean; beraz, are eta zailagoa da. Ezin daiteke imajinatu Urieta gabeko Araskirik, ezta Azu Muguruzarik gabeko IDK-rik. Entrenatzaileak berak eman beharko luke pausoa albo batera, betiere, ez bada gai taldearen-tzat onena bilatzen egoerari buelta emateko. Lehenbizi, ordea, merkatura joko dute. Beharra dute; bestela, zuloa handiagoa izan daiteke.

Bonmatik eta Messik irabazi dute Urrezko Baloia

FUTBOLA • Faborito nagusiak ziren, eta atzo berretsi zen. Aitana Bonmatik eta Leo Messik irabazi dute aurtengo Urrezko Baloia. Atzo jaso zuten garaikurra, Parisen. Bonmatik lehen aldiz irabazi du; Messik, berri, zortzigarrena du. Biak lehen aldiz izan dira munduko txapeldun; Bonmati, aurtun, Australian eta Zeelanda Berrian, eta Messi, iaz, Qatarren.

Eibarrek gaur ekingo dio Kopari, Lorcaren aurka

FUTBOLA • Gaur eta osteguna artean jokatu du Baskoniak Kopako lehen kanporaketako partidak. Euskal taldeen artean Eibar izango da lehian aurrena. Lorcaren zelaian jokatu du gaur, 21:00etan. Kanporaketa partida bakarra da. Eibartarrek zazpi neurketa daramatzate galdutako gabe ligan, eta horri segida eman nahi diote Kopari.

FIFAk hiru urterako inhabilitatu du Rubiales

FUTBOLA • FIFAk Luis Rubiales Espainiako Federazioko presidenteari aurkako zigorra berretsi du, Espainiak Munduko Kopa irabazi eta gero Jennifer Hermosori baimenik gabe musu emateagatik. Hiru urterako inhabilitatu du. Hala, ezingo du futbolari lotutako jarduerarik egin. Rubialesek helegitea aurkeztuko du.

Mendia

Mendiari buruzko atal berria, BERRIA

Aktualitatea, ibilbideak, proposamenak eta buletina.

Berria.eus/mendia/

aldi hau
kontatzeko
berria



Eskalatzaile bat Ainhua bidea igotzen. XABIER MUJIKA

Uharte Arakilgo Aiztondoko eskalada eskolaren estiloa ezagutzeko biderik errazenetakoa da. Antxon Gorrotxategik ekipatu zuen, aspaldi.

Aiztondo: 'Ainhua' bidea

Xabier Mujika

Uharte Arakilgo Aiztondoko eskalada eskola ederra da, bai kirol eskaladan baita hainbat luzetako eskaladan ere. Horiei dagokienez, ongi segurtutako bideak dira, eta hamabost zinta espresekin eta bilguneak muntatzeko zinta-uztai batekin nahikoa izango dugu denak eskalatzeke. Jaitsiera bi erataraz egin daiteke: oinez edo rappel eginez. Bigarren aukera hartuz gero, gomendagarria da 60 metroko bi soka eramatea bi rapel eginez jaisteko.

Ainhua bidea, aurretik egunkari honetan argitaratutako *Clásica Sur* bidearekin batera hormaren biderik errazena dira eskola honetako eskalada estiloa

ezagutzeko. Bidea Antxon Gorrotxategi hernaniarrak ireki eta ekipatu zuen, duela urte dezente. Horregatik bakarrik, merezi du hura eskalatzea.


Lehen luzea, 30 metro, 4b. Ezker joera duen harkaitz plaka etzan bat eskalatzen hasiko gara (IV). Bilgunera iritsi baino lehen, plaka tentetu eta heldulekuak gutxitzen dira, eta itsasgarritasunezko plaka bihurtu. Azken plakatxo hori da luzeari zailtasuna ematen diona (4b).

Bigarren luzea, 25 metro, V. Luzeak gainean eta ezkerrean ditugun bi zuhaixken ezkerretik jarraitzen du (IV+). Zuhaixken ezkerrean dagoen plaka bertikala eskalatu, bilgunera iritsiko gara. Plaka bertikal horretan dago luzearen parterik zailena (V).

Hirugarren luzea, 30 metro, 5b.

Luzea bilgunearen gainean eta ezkerrean ikusten den haritzerrantz doa. Plaka bat eskalatuta (V), haritzera iristeko, ezker diagonalen doan helduleku oneko erlaitz hestu bat eskalatuko dugu ondoren (IV+). Haritzera iristean, pareko horma bertikala eskalatu dugu bilgunera joateko (5b).

Laugarren luzea, 25 metro, V+. Bilgunearen gainean dagoen sabai txikira iristean, ezkerrean pasatuko gara, eta plaka fin eta bertikal bat eskalatuko dugu (V). Plaka etzan bat eskalatzen jarraitu, eta luzeari zailtasuna ematen dion sabaiaren azpira iritsiko gara. Sabaiaren eskalatzeke estutu beharko dugu, baina pasagunea ongi segurtatua da (V+). Sabaiaren gainean, azken bilgunea topatuko dugu.



BUZOA

mendia@berria.eus

Mendi lasterketak

Arroitz (Nafarroa). Arroizko VI. Traila, azaroaren 11n, 09:30ean. Bi ibilbide: 23 kilometrokoa (+1.300 metro), eta 9koa (+300 metro). Informazioa: <https://www.cdarroniz.com/>
Urduña (Bizkaia). Urduñako VI. Mendi Lasterketa, azaroaren 12an. Bi ibilbide: 09:30ean, 33 kilometrokoa (+1.750 metro), banaka edo

erreleboka, eta 10:00etan, 14koa (+550 metro). Informazioa: <https://urduinakomendilasterketa.com/>

Mendiko duatloiak

Aduna (Gipuzkoa). Euskal Herriko Mendi Duatloiko Zirkuitua, larunbatean, 16:00etan. 3,66 kilometro korrika (+118 metro), 14,5 kilometro mendiko bizikletarekin (+541 metro), eta 1,83 metro korrika (+59 metro). Informazioa: <http://www.mendiduatloia.eus/index.php/lasterketak/aduna>

Mendiko martxak

Valtierra (Nafarroa). Bardeako Begiratokia ibilaldiaren I. aldia, igandean. Bi ibilbide: 08:30ean 20,2 kilometrokoa (+607 metro), eta 09:00etan 12,4koa (+369 metro). Informazioa: <https://www.rockthesport.com/es/evento/i-marcha-senderista-mirador-de-las-bardenas>

Mendiko bizikleta

Bilbo. Bilbo Extreme, azaroaren 12an, 09:30ean. Bi ibilbide: 45 kilometrokoa, eta 30ekoa.

Informazioa: <https://www.rockthesport.com/es/evento/bilbao-extreme-2023>

Zaldibar (Bizkaia). Zaldibarko Mendi Bizikleta Martxaren 21. aldia, azaroaren 19an, 10:00etan. Bi ibilbide: 34 kilometrokoa (+1.180 metro), eta 27koa (+950 metro). Informazio gehiago: <https://inscripcion.kirolprobak.com/inscripcion/zaldibarko-xxi-mendi-bizikleta-martxa/>

Ikus-entzunezkoak

Tolosa (Gipuzkoa). Ghulam Mur-

tazak, Alex Txikonek, eta Akhond Ishaqek hitzaldia emango dute, ostegunean, 19:30ean hasita, Topic aretoan, *Elkartasuna Ghulam Murtazarekin* emanaldian.
Elgoibar (Gipuzkoa). Bilboko Mendi Film jaialdiko filmak emango dituzte Herriko Antzokian, ostiralean. Saioa 21:00etan hasiko da. Informazio gehiago: <http://mendi-filmfestival.com/MFF/index.php/es/info-fechas-y-cartel-mendi-tour-naranja/mendi-tour-markina-elgoibar>



Maialen Rojo, Angela Altaba
eta Ruth Fornos Fathers Tower
edo Ataatap dorrean La Jubi
bidea irekitzen (600 m, 7a). FEDME

FEDME Espainiako Federazioaren Alpinismoko Emakumeen Taldeko kideek –besteak beste, Maialen Rojo, Uxue Loizu eta Amaia Segurola euskal herritarrek– goi mailako jarduera osatu dute Mythic Cirque mendiguneko eta inguruko dorreetan, eta zortzi bide zabaldu dituzte.

Izar askeak Groenlandian

Ramon Olasagasti

Gazteak dira oso, alpinistak dira, goitik beherakoak, eta gogoa eta grina darie alde guztietatik. Espainiako Alpinismoko Emakumeen Taldeko kideak dira Maialen Rojo (Gasteiz, 1997), Amaia Segurola (Zangoza, Nafarroa, 1997) eta Uxue Loizu (Iruñea, 1995). Ruth Fornos (Barruera, Herrialde Katalanak, 1999), Julia Casanovas (Herrialde Katalanak, 1997) eta Angela Altabarekin (Teruel, Espainia, 1990). Hiru urteko teknifikazioa egiten ari dira taldean; halaxe egin ohi du promozio bakoitzak, eta amaitu berri dute bigarren ikasturtea. Nola amaitu ere. Groenlandian izan dira, eta ez bat eta ez bi, goi mailako zortzi bide berri zabaldu dituzte. Gehienentzat, lehen *big wall* edo horma handiak ere izan dira, eta horien tamainakoa izan da Groenlandiako ikasketa: galanta.

Aurreko ikasturtearen amaieran, Jordaniako Wadi Rum basamortuko hormetan eta Saudi Arabian izan ziren taldekideak. *Abriendo camino* (Bidea urratzen) proiektuko lehen urratsa izan zen iazkoa, eta basamortuko hareharrian ere dozena bat bide ireki zituzten. Bidea urratzearena, beraz, ez da metafora hutsa. Iberdrolak emandako beka baten babesarekin eta FEDMEren Emakumea eta Mendia sekzioaren laguntzarekin ari dira proiektua gauzatzen. «Zorte handia izan dugu. Beka horri esker egin ahal izango ditugu promozioa hiru urteak eta ikasturte amaierako espedizioak», dio Uxue Loizuk.

Miriam Marco taldearen zuzendariak urtearen hasieran erabaki zuen Groenlandia joatea. Ekialdeko kostaldean, Kangertitviatsaq eta Sangmilik fiordoan artean goratzen den Mythic Cirque mendiguneko dorreetara, zehazki. Hasieran, Kulusuk herritik zirkura belaontzian joatea zen asmoa, eta belaontzia bera izatea kanpaleku nagusia eskaladako sartu-irteeretatik bueltan. Abiatzeko hiru hilabete falta zirela, ordea, ontziko kapitainak esan zien ezin zela joan, hernia bat zela medio, eta, ondorioz, antolaketa osoa berregin behar izan zuten. «Hilabete osoan autosufiziente izatea erabaki genuen; janaria, kanpaleku nagusia, han mugitzea pakraft-ak [kayak puzgarriak], beharrezko guzti-guztiak eramatea».

taldeko sei kideak, Marco zu-

zendaria, Ruben Sanmartin gidaria eta Juan Miguel Ponce kamera abuztuko lehen astean heldu ziren Mythic Cirqueren oinarria, txalupetan. Heldu orduko, bihotza uzkuertzeko modukoa iruditu zitzaion ikuspegia: berealdiko dorretzarrak begitandu zitzaizkien gainean zituztenak. *Big wall* estilokoak, hamakekin sartu eta hainbat egunez eskalatzeak. Artean ez zuten ezagutzen Groenlandiako arroka, jaitzierak ere ez zekiten nolakoak ziren, eta taldekide batzuek erabaki zuten pakraft edo kayak puzgarriak hartu eta beste fiordo batean barneratzea, beste horma batzuk esploratzeko. Tarte horretan, abuztuaren 7an zehazki, Casanovasek, Fornosek, Altabak eta Sanmartinek *El espolón de las zorras* (1.000 m, V+) bidea zabaldu zuten Aurora dorrean (1.451 m), eta, ondoren, *Tortures Traverse* zehar-kaldiarekin lotu –M. Bunn australiarrek eta M. Royer estatubatuarrek 2012an zabaldua–.



Oso gogoan daukagu Amaia [Agirre]. Askotan hitz egiten dugu hari buruz, eta Groenlandian, are gehiago»

Uxue Loizu

Alpinista eta Emakumeen Taldeko kidea

Handik egun batzuetara, esplorazio barneraldian aurkitutako beste horma batzuetara jo zuten taldekideek, Hidden Tower orratzaren hego aurpegira. Han, Rojok, Loizuk eta Sanmartinek *Fumantxus* bidea (400 m, 7a, S3) zabaldu zuten, eta Segurolak, Altabak eta Marcok *Assambling Tupilak* (450 m, 5.10) berriro egin, hori ere Bunn eta Royerrek zabalduakoa. Inguru berean, Casanovas, Sanmartin eta Fornosek glaziarrean aurrera jarraitu zuten, eta pilare txikiago batean *Lady Garsa* (325 m, 7a) ireki.

Prest ziren Mythic Cirqueko horma handiei heltzeko. Hamaka bakarra eraman zuten, bi txandatan banatu ziren. Lehenbizikoa, Rojok, Fornosek eta Altabak Fathers Tower edo Ataatap dorreara (1.350 m) jo zuten, eta *La Jubi* bidea (600 m, 7a) zabaldu zuten hiru egunean. Egun horietan, Loizuk, Segurolak, Casanovasek eta Sanmartinek pakraftak hartu, eta beste aldeko fiordo batera jo zuten, Borsh Soup Tower dorreara. «Han, 600 bat metroko beste bi bide ireki genituen, egun osoko jardunean. Groenlandian udan ia ez duenez iluntzen, goize-

ko ordu txikietan jaiki, eta eskalatzeari ekiten genion». Segurolak eta Sanmartinek *Gure gidari* (600 m, 6c) zabaldu zuten, eta Loizuk eta Casanovasek, berriz, *Izar askea* (600, 6c).

Izar askea, Gure gidari, La Jubi... Groenlandian zabalduko bide guztietan pertsona beraren arnasa sumatzen da. Pertsona bera da izar askea, gidaria eta *La Jubi*. Amaia Agirre urnietarra (Gipuzkoa), aurtengo urtarirlean Patagoniako Fitz Roy mendian zenda. Emakumeen Taldeko kidea hura ere. «Oso gogoan daukagu Amaia beti. Askotan hitz egiten dugu hari buruz, eta Groenlandian, gehiago. Denbora guztian ari ginen: 'Amaia hemen izango balitz, hau eta bestea egingo luke...' Amaia Agirre medikua zen, baina mendian zebilen beti. Gainera, helduena zen. Orduan, *jubilatua* esaten genion beti, *La Jubi*». Amaiaz gain, oso gogoan izan zuten Iker Bilbao durangarra ere (Bizkaia), istripu berean hila.

«Sekulako ikasketa»

Fathers Tower edo Ataap dorreko eskalada, *La Jubi* bidea, lehen horma handia izan zen taldekideentzat. Hamakak muntatu, 60 kiloko zorro pisutsuak igo... Ikasketa handia izan zen. «Lehen txandakoek, Maialenek, Ruthek eta Angelak, hormaren erdi parean jarri zuten hamaka, eta, hortik gora, beste estilo batean eskalatu, lotara hamakara jaitsita», azaldu du Loizuk. Lerro «dotorea» ateratu zen, eskalatzaile nafarraren hitzetan, arrakala sistema zuzen eta luze bati jarraituz.

Bigarren txandakoak sartu ziren gero Fathers Towerren: Loizu bera, Casanovas eta Sanmartin. «Eskuinerago begiz jota geneukan beste lerro batetik sartu ginen gu, baina berehala jabetu ginen bilgune batzuk zeudela muntatuta, eta gerora jakin genuen lerro hori izan zela dorrean zabalduko lehen bidea, frantses batzuena. Haiek estilo artifizialean ireki zuten, oso gogorra baitzen. Guk lehen luzeak era askean egin genituen, baina toki batetik gora ezin zen eskalada ondo babestu, eta guk ere *La Jubi* bidetik segitzea erabaki genuen. Gero, beste lerro bati jarraitu genion tontorreraino». Guztira 1.000 metroko eskalada osatu zuten, lau egunean, hamakan hiru gau lo eginda. «Gailurrean, builaka hasi nintzen, emozioz. Hasieran izugarri handia iruditu zitzaigun hori lortu genuen. Ilusio handia piztu zigun», dio Loizuk.


Eguraldi txarreko bolada baten ondoren, beste bi bide zabalatzeko



Angela Altaba, Julia Casanovas, Uxue Loizu, Ruth Fornos, Maialen Rojo, Miriam Marco eta Amaia Segurola. FEDME



Uxue Loizu *Izar askea* bidearen azken luzean. FEDME



Izar askea eta *Gure gidari* bideen krokisa, Uxue Loizuk marraztua. UXUE LOIZU

denbora ere izan zuten. Altabak, Fornosek eta Sanmartinek *Ros-toll verbenero* bidea (750 m, 6c+, R3) zabaldu zuten, Fathers Towerren bertan. Segurolak eta Loizuk, berriz, bide laburrago bat ireki zuten Damocles orratzean: *Azken aukera* (200 m, 6b).

Sekulako ikasketa izan da Groenlandiako guztietzat. «Logistikari buruz, horma handiak eskalatzeari buruz... Paretak non dauden esploratu, nola antolatu, zer lerrori jarraitu... asko ikasi dugu. Gainera, ez dugu sukaldaririk eta laguntzailerik izan. Bakarrik egon gara hilabete osoa, eta horretan ere asko ikasi dugu. Adibidez, janari gehiago eramane behar dugula [barrez]», esan du Loizuk.

Foehn haize bortitzak iritsi baino lehen, Kulusukera itzuli ziren. Hilabeteo bakartze eta deskonezio «gozagarriaren» ondoren, talka handia izan zen aireportura iristea, errealitatera itzultzea, bat-batean sartutako *whatsapp* guztien burrunba... «Zer itolarria», oroitu du Loizuk. Izan ere, fiordo haien artean inon baino askeago sentitu ziren, eta izarrek inon baino distiratsuago begiztatu zitzaieten.



TASHI DELEK
Felipe Uriarte

Khumjung (3.740 metro), Urriak 26

Chomolungma

Khumbun dago munduko mendirik garaiena. Chomolungma du izena, eta gizakien jainkosa Miyo Lungsangma bertan bizi da. Erromes asko joan izan dira Tibeteko Rongbuk monasteriora, Miyo Lungsangmaren egoitza ikustera. Egun, mundu osoko pertsonak etortzen dira Khumbura, mendia hegoaldeetik ikusteko. Miyo Lungsangma tigre gorri baten gainean ibiltzen da, eta ederra da oso».

Horrela deskribatzen zuen Chomolungma 1988an Ngawang Tenzing-ek, Thyangboche monasterioko Lamak. 1852an topografo britainiarrek Peak XV.a neurtu, eta 8.839 metro zituela ohartu zirenean munduko gailurrik garaiena deskubritu zuten. Everest izena jarri zioten, George Everest Indiako topografo buruaren omenez.

Esan zuten izena jartzean ez zekitela beste izen bat zuenik. Kolonizatzailearen argudio merkea. Mendi horren magalean bizi diren xerpek eta tibetarrek antzinatek ezagutzen zuten mendia, eta bi aldetako biztanleek Chomolungma esan izan diote.

Jakin dut euskal talde indartsu batek urratu gabe zegoen mendi eder baten lehenengo igoera lortu dutela. Txundigarria egin duten lana, era ezin garbiagoan bide berri zailak zabaldu.

Amair Peak izena jarri diote, euskaldunen erresistentziaren sinboloa gogoan. Aralarko Mailopeko artzainek zulo, erreka, malda, erpin guztiei izena jarri izan diote. Harrigarria da Shafat ibarreko artzainek halako orratz bati izenik ez ipintzea. Izan liteke. Eta hala balitz, ez zegoen inguruan artzain baten seme txiki eta bihurritik? Zer izen zuen? Eta Padum herriko azken auzoak ez zuten izenik? Uztailaren 1991 zirenez gailurrera, ladakheraz *Dawa Tupka*, zergatik ez *Dawa Tupka Ri*?

Hainbat aukera hango hizkuntzan Amair Peak mendiari izen misteriosua ipini ahal izateko!

Hegoafrika Irabazi, eta berriro irabazi

Hegoafrikak laugarren aldiz eskuratu du Errugbiko Munduko Kopa, Zeelanda Berria 11-12 mendean hartuta. Oso lehiatua izan zen larunbateko finala. Jokatu dituzten final guztietan gailendu dira 'Springboks'-ak, eta munduko selekziorik loriatsuena da orain afrikarra.

Iñigo Lasa

Hegoafrikako selekzioak laugarren jaso zuen larunbatean Webb Ellis kopa, beste horrenbeste final jokatu ostean. Afrikarrek on egin zuten haietaz esaten dena: «Hegoafrikak ez ditu finalak jokatzen, irabazi egiten ditu». Lautik lau. Garaikur horrekin, gainera, finalean aurkari izan zuen Zeelanda Berria gainditu zuen, titulu gehien dituen selek-

zioaren lehian. Orain *Springboks*-ak dira munduko selekziorik loria-tsuen errugbian.

Azken bost Munduko Kopetatik hirutan nagusitu dira hegoafrikarrak. Azken biak erreskadan. Siya Kolisi kapitainak argi utzi zuen lorpen horrek zenbat balio zuen eurentzat: «Arazo asko dituen herrialdea da gurea, eta guk, kirolariok, gure herrikideak inspiratzeko pribilegioa daukagu. Jokalari batzuk nekazari erremue-tatik datoz, eta sekula ez zuten imajinatuko gaur hemen egotea.

Gauza askorengatik lehiatzen gara, baina denok batzen gaitue-na Hegoafrika da». Hori izan da haien indarra.

Historiako bi selekziorik indartsuenak izan ziren aurrez aurre finalean. Bi herrialdeek errugbizale amorratuak, bizi egiten dute errugbia batzuk zein besteez, baina tronuan bakar batentzako to-kia besterik ez zegoen. Han goian esertzeko egin zuten borroka epiko-a izan zen. Bi estilo ezberdinek egin zuten topo Stade de France estadioan, iragan larunbatean. Batetik, Zeelanda Berriaren joko bizi eta azkarra; eta, bestetik, Hegoafrikaren intentsitatea eta sendotasuna. Ozeanikoak tsunami baten modura ibili dira ia txapelketa osoan. Finalerdietan Argentina hankapean erabili zuten: 6-44 irabazi zioten. Hala, 325 puntu sartuta iritsi ziren *All Blacks*-ak final handira. Afrikarrak, berriz, haien erara lortu zuten sailkape-na, sufrituta, bai final-laurdene-tan, baita finalurrekoetan ere. Lehenbizikoan 28-29 irabazi zioten Ingalaterrari, eta bigarrenean 15-16 Frantziari.

2019ko finalean hasierako hamabostekoan izandako hamar jokalarirekin zelairatu ziren Springboksak. Eskarmentu faltarik ez zuten izan, beraz. Halere, txapel-dun izateko majo sufritu behar izan zuten neurketa osoan. Partida oso gogorra izan zen. Hegoafrikarren joko fisikoa eta itxia

Zeelanda Berrikoen joko irekiari nagusitu zitzaion. *All Blacks*ek finalaren zati handi bat hamalau jokalarirekin jokatu behar izan zuten.

Borroka estua

Lehia hasi eta bi minutura, epai-leak Shannon Frizzelli txartel horria erakutsi zion, hamar minutu-rako kanporatuz. Frizzell zelaira



Arazo asko dituen herrialdea da gurea, eta guk gure herrikideak inspiratzeko pribilegioa daukagu»

Siya Kolisi

Hegoafrikako jokalaria

«Esperientziak lagundu digu. Gainera, talde ikusgarria daukagu, borrokalariz betetakoa. Hegoafrika maite dugu»

Jacques Nienaber

Hegoafrikako hautatzailea

itzuli eta ordu laurdenera, Sam Cane kapitainak jaso zuen zigorra. Hasieran, bere taldekide-aren zigor bera jaso zuen; baina, jokaldia TMOan berrikusi eta gero, txartel gorria erakutsi zioten, aurkariari min egiteko arrisku handia zegoelako. Nahasmen horretan, hegoafrikarrak 6-12ko abantailarekin iritsi ziren atse-

naldira, Handre Pollarden lau os-tikoei esker.

Bigarren zatia Kolisi jokalaria hegoafrikararentzako txartel hori batekin hasi zen. Zeelanda Berriak berehala hartu zuen partidaren aginte makila, eta hamalau hamalaurer aurka aritu ziren hamar minutu horietan ataka larrian izan ziren Springboksak. Aaron Smith-ek entsegu bat lortu zuen *All Blacks*entzat, baina epai-leak baliorik gabe utzi zuen. Handik gutxira, baina, arantzatzkoa kendu zuten. Beauden Barret-ek entsegua lortu zuen, eta bere taldea puntu bakar batera hurbildu zuen (11-12). Richie Mo'unga-k ozeaniarrak markagailuan aurretik jartzeko abagunea izan zuen, baina uztartzean ez zuen baloia bi zutoinen artean pasatzea lortu.

Norgehiagoka iraultzeko aha-lerin betean aritu ziren zeelanda-berritarrek, baina bilkain eutsi-zien hegoafrikarrek aurkari-ol-darraldiei. Horrelako egoeretan trebeak dira, ederki asko molda-tzen dira neurketa itxitan. Iraba-zi dituzten lau txapelketetako fi-naletan bi entsegu baino ez dituz-te erdietsi. Puntu kopuru handi-rik ez, baina balio handi dute lor-tzen dituztenek. Bere jokalarien eskarmentua nabarmendu zuen Jacques Nienaber teknikariak neurketa amaieran: «Esperien-tziak asko lagundu digu. Gaur jo-katu duten asko 2018ko finalean izan ziren, eta jokalaria batzuen-tzat hirugarren Munduko Kopa izan da. Talde ikusgarria da, bo-rrokalariz betetakoa. Denek maite dute Hegoafrika».

Sofatik Parisera

Finaleko izarra, Pollard, hasiera batean ez zegoen Hegoafrikako deialdian. Ekainean min hartu zuen, eta txapelketa garrantzitsu batzuk galdu ostean, Nienaberrek zerrendatik at utzea erabaki zuen. Munduko Kopa hasi eta gutxira, baina, Malcom Max ordezeko orpokatzaila lesionatu egin zen, eta haren ordeze Pollard eraman zuten. 29 urteko zabalatzaila protagonista izan da, eta hein batean, hari esker lortu dute laugarren garaikurra. Txapelketan jaurti di-tuen hamahiru ostikoak sartu ditu.

Finalurrekoan Ingalaterra ga-raitzeko balio izan zuten azken hiru puntuak erdietsi zituen; fi-nalean, berriz, bere taldearen puntu guztiak sartu zituen. De-nak harrituta utzi ditu, bere bu-rua izan ezik. Partida amaieran hau esan zuen: «Zelaian zaude-nean dena normala da, ez da ezer berezia izan. Azken finean, errug-bia besterik ez da».



Hegoafrikako errugbi selekzioak, larunbatean, Munduko Kopa irabazi zutela ospatzen. YOAN VALAT / EFE

PARTE HARTZEKO:
igandetik asteartera **Berria.eus/berrialaguna/zozketak** edo 943-30 43 47
SARIDUNAK ostegunean argitaratuko dira. **Adi!** Erabili zure **BERRIALAGUN** kode berria.

> OPARIAK

01 EUSKAL HERRIKO MEATZARITZA MUSEOA

Bi lagunentzat bina sarrera



02 HONTZA MUSEOA

Lagun batentzat bi sarrera



Ebaristo Bustinza kalea, 18 • Mañaria
Tel.: 94-621 65 55 • hontzamuseoa.eus

03 IGARTUBEITI MUSEOA

Bi lagunentzat bina sarrera



Ezkio-Itsaso • igartubeitibaserra.eus

04 JANTZIAREN ZENTROA

Bi lagunentzat bina sarrera



05 ANTSOTEGI JATETXEA

Bi lagunentzako otordua



Altzaa auzoa, 15
Etxebarría
Tel.: 94-616 91 00
Antsotegi.com

06 EUSKAL HERRIA ESNEA

Hiru sorta



07 ERRIGORA SORTA

Sorta bat



08 PAGOA GARAGARDOA

Bi sorta



09 JAKION KONTSERBAK

Sorta bat

San Migel
plaza, 4, etxabea
Leintz Gatzaga
Tel.: 943-71 46 86
Jakion.es/eu



> SARRERAK

PARTE HARTZEKO, **Berria.eus/berrialaguna/zozketak**
Parte hartzeko azken eguna: **urriaren 31**, asteartea. SARIDUNAK ostegunean argitaratuko ditugu.

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

FINALAURREA

Bi sarrera bikoitz



Azaroak 4 • 17:30 • Iortia kulturunea • ALTSASU

HONDAMENDIA

Bi sarrera bikoitz



Azaroak 11 • 19:00 • Iortia kulturunea • ALTSASU

INTXAURRA

Bi sarrera bikoitz



Azaroak 12
19:00
Herri Aretoa
LEITZA

Gizakiaren dimisioa, soluzio

Juan Luis Zabalak 'Dimisioa' izeneko ipuin liburua idatzi du • Hamabost kontakizun biltzen ditu lanak, autonomoak guztiak • Gizakiak adimen artifizialaren esku utziko du agente osoa

Jone Bastida Alzuru Donostia

«Gizakiak dira liburu honetan dimititu dutenak. Mundua eta euren burua gobernatzetik, gizarte antolaketari buruzko erabakiak hartzetik, dimititu dute, eta AGK Agintaritzak Global Kontputarizatua deitzen den adimen artifizialaren esku utzi dute agente osoa. Klima krisia, gerrak, pandemiak eta abarrez betetako mundua gobernatu ezinda, horiei aurre egiteko akordioak ezin lortuta, erabakiak makina batek hartzea hobe dela erabakiko dute munduko agintariek». Halaxe laburbildu du Leire Lopez Susa argitaletxeko editoreak Juan Luis Zabala idazlearen azken lana: *Dimisioa* ipuin liburua. Egungo munduaren arriskuetatik eta politikaren argi-ilunetatik abiatuta, «etorkizuneko agertoki posibleak» irudikatu ditu idazleak.

Hamabost ipuinez osatuta dago liburua. Bakoitza luzera ezberdinekoa eta autonomia da, nahiz eta denak agintea makina batek duen mundu batean kokatuta egon. Zientzia fikziora egindako hurbilpen bat da lana: «Gure mundutik abiatu, eta etorkizun hurbil batean gertatzen dira ipuinak, XXI. mendeko momentu ezberdinetan. Mundu bat eraiki du Zabalak, gure munduaren oso antzekoa, sakoneko arazo bertsuak dituzten pertsonekin, baina berritasunekin. Adibidez, BKS Banakako Konexio Sistema, IZE Ilargiko Zerbitzu Estazioa, LBG Lurraren Behaketarako Sateliteak... Eta batez ere, mundua antolatze eta bizitzeko beste modu bat topatuko du irakurleak hemen».

Louis Aragonen aipu batekin hasten da liburua: «Bada tragikotasun bat modernitatean: birak dabilen eta inongo eskuk zuzentzen ez duen bolante handi baten moduko zerbitu bat». Aipu bera erabili zuen Zabalak, hain zuzen, duela berrogei urte idatzi zuen lehen liburuan. Hala azaldu du: «Banuen sentsazio edo beldur hori, nork gidatzen ote duen mundu hau, nork daukan munduaren norabidea markatzen duen bolantea, edo zein dagoen



Juan Luis Zabala idazlea *Dimisioa* liburuaren aurkezpenean, atzo, Donostian. ANDONI CANELLADA / FOKU

bolante horretatik gertu. Ez dauka inork oso garbi, eta gaur egun, erreferenteen atomizazioarekin, zailagoa da jakitea benetan zer gertatzen ari den. Hemen irudikatzen duen munduan bada-kigu bolantea zeinen eskuetan dagoen. Hori da liburu honetan agertzen den utopia».

Zabalak «ulergarriagoa eta argigarriagoa» den mundu bat planteatzen du liburuan, eta giza



Utopia bat da, baina utopia tristea da, gizakia nolabait konturatu delako ezin duela bere kabuz gobernatu»

Juan Luis Zabala idazlea

eskubideen inguruko irizpideak txertatzen dizkio makinari, haren jarduerak eta erabakiak horren arabera izan daitezke. «Hori da nik asmatu dudana utopia. Bolantean makina nahiko jatorria duen mundu bat. Utopia bat da, baina utopia tristea da, gizakia nolabait konturatu delako ezin

duela bere kabuz gobernatu. Gainera, erabat monitorizaturak, kontrolaturak, eta kasik-kasik gidatuta bizi da. Ez du askatasun handirik, muga estu batzuen barruan eta tirania baten menpean bizitzera behartuta dago, eta, gainera, tiranoa ez da pertsona bat, makina bat baizik».

Idazleak liburuko errealtateak utopia triste gisa katalogatu duen arren, ez luke esango distopikoa denik, fikziozko mundu horretan konponduta daudelako gaur egungo hainbat arazo; besteak beste, ez dago gerrarik, eta dagoeneko ez da existitzen klima aldaketaren problema.

Galdera bota du Zabalak: desiragarria litzateke hau? Jarraian eman du erantzuna: «Batetik, bai; bestetik, ez. Ikusita munduaren martxa, ez dakit, ez da helduleku txarra pentsatzea makinekin salbatuko gaituztela, sinesteko kapazak baldin bagina. Literaturan, behintzat, sinesgarri egiten saiatu naiz».

Hainbat kontu eta egoera gurtzatzen dira ipuinetan; androide poliziak daude, Marteko bizitza eta Euskal Herri independentea, bizikleta gainean hegan egiten

duen pertsona bat, birus zahar eta berriak, umeak zituenik ez zekien aita bat, iritzilari neuronalak, David Bowieren itzala, futbola mundua salbatzen, bi pertsona ilar-gian Lurrean etxe bat nola erabiten duten ikusten eta abar.

Zientzia fikzioa, erronka

Zabalarentzat «erronka» izan da zientzia fikzioa idaztea. Hala azaldu du: «Ni beti izan naiz nahiko idazle intimista, oso gauza pertsonalei buruz idatzi dut. Intimismo eta pertsonalismo horretatik ihes egiteko, zientzia fikzioa egitea pentsatu nuen». Hasieratik zuen liburu bat eredutzat hartuta: Mikel Alvareren *Euskalia*. «Horrelako zerbitu egin nahi nuen. Ez da posible izan; beste mota bateko literatura egin dut. Gauza batzutan bat datoz, bietan dago euskara homogeneo eta zapaltzaile baten fikzio utopikoa. Baina oso liburu diferenteak dira».

Hamabost ipuinen gaztelaniazko itzulpena eginda duela azaldu du idazleak. Prest du, beraz, gaztelaniazko bertsioa ere, nahiz eta zail ikusten duen berau argitaratzea. Zabalak azpimarratu du autoitzulpena lagungarria

egin zaiola euskarazkoari zuzenketa batzuk egiteko: «Argitaratu ondorengo autoitzulpena askoz zailagoa eta gogorrago irudituko litzaidake. Iruditzen zait autoitzulpena ondo dagoela argitaratu arte, gerokoa oso nekagarria da idazlearentzat».

1985ean argitaratu zuen bere lehen liburua Zabalak, *Zigarrokin ziztrin* baten azken keak, eta makina bat lan ondu du ordutik: *Gertaerei begira*, *Galdu arte*, *Hautsia natzat*, *Inon izatekotan*, *Txistu eta biok*, *Ospa...* Genero guztietan idatzi du, eta idazmakinatik gertu jarraituko du aurreantzean ere, sortzen: «*Dimisioa* aurkeztu dut, baina dimititu gabe». Hala esan du, umorez: «Hurrengo pauso logikoa zein izango litzateke? Seguru asko hurrengo liburua ChatGPTaren laguntzaz idaztea. Egia esan, proba egin dut, baina nik solaskide izatea lortu dudana ChatGPTak ez dit batere lagundu; gainera, euskarazko erantzunak oso traketak dira, eta ulertu ere ez dit oso ondo ulertzen. Seguru nik adimen artifizialaren laguntzarik gabe idatziko dut hurrengo liburua».

Zehaztu da zer bertsolari ariko diren Arabako txapelketan

Asier Otamendi nagusitu da sailkapen faseko azken kanporaketan • Oihana Bartrak irabazi du Bizkaiko txapelketako bosgarren kanporaketa

Mikel Lizarralde

Igandean jokatu zen 2024ko Arabako Bertsolari Txapelketarako sailkatzeko azken kanporaketa, Asparreneko udaletxean, eta Asier Otamendik irabazi zuen saioa. Horrenbestez, zehaztu da txapelketan parte hartuko duten bertsolarien zerrenda. Lau kanporaketa jokatu dira, eta horietako bakoitzeko irabazleak zuzenean sailkatu dira, eta beste bederatzi bertsolari, berriz, puntuazioaren arabera igaroko dira txapelketara. 2022ko txapelketa-

ko bost finalista zuzenean sailkatuta zeuden lehenagotik.

Herenegungo saioan, Otamendik 188,5 puntu eskuratuta gailendu zen. Beste bost bertsolariak horrela gelditu ziren: Aroa Arrizubieta (187 puntu), Eli Zaldúa (177), Manu Bendala (168,5), Oier Arbina (162) eta Aitor Najera (150).

Horiek hala, bertsolari hauek parte hartuko dute txapelketan: Peru Abarrategi, Manex Agirre, Iñaki Viñaspre, Xabi Igoa, Paula Amilburu, Unai Anda, Maddi Agirre, Ekaitz Samaniego, Asier



Manu Bendala eta Asier Otamendi, igandeko saioan. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Otamendi, Aroa Arrizubieta, Aitor Ugarte, Martin Abarrategi, Orlando Arreitunandia, Eli Zaldúa, Felipe Zelaieta, Rikardo Gonzalez de Durana, Danel Herriarte eta Izar Mendiguren.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako bosgarren kanporaketa ere igandean jokatu zen, Igorren, eta Oihana Bartra nagusitu zen.

Ateak, bakegile

Agus Perez

Pailazo erakustaldi ezinago aratza ekarri digu aurtengo Santurtziko Antzerki Jaialdiak. Leandre Clown konpainiak Frantzia jarduten du nagusiki, birak elkarren segidan kateatuz, baina konpainiaren arima erdia Leandre Ribera katalana da. Katalunian erroituriko Claire Ducreux dantzari eta pailazo frantsesarekin elkartu zen aspaldi, baina oraingo fitxa artistikoan ez dut haren izena aurkitu.

N'imPORTE quoi (Edozein gauza) hitzik gabeko ikuskizunean, hamar ate izan dira jolas eszenikoaren protagonista. Haietarik bederatzi prest zeuden taula gainean, bakoitza bere kolorearekin margotua, eta hamargarrena Leandre berak ekarri du plakeko pasillotik eta lepoan hartuta, Nazareno garaikide bat balitz bezala. Hortik aurrera, dena gertatu da ateen joko etengabeak eman dezakeen arloan. Bueno, den-dena ez, geroago beste ele-

KRITIKA
Zirkua
'N'imPORTE quoi'

Konpainia: Leandre Clown.
Egile eta zuzendaria: Leandre Ribera. **Antzezleak:** Pere Hosta, Laura Miralbes, Leandre Ribera, Andreu Sans, Cristina Sole.
Lekua: Santurtziko Serantes antzokia. **Eguna:** Urriak 27.

mentu emankor batzuek –sofa, bainuontzia, artazi formako eskailera...– parte hartu dutelako absurdoan zehar egindako bidaia zoragarri horretan.

Esan bezala, hasierako pasarteak gizakiok ateen aurrean ditugun giza portaera burugabetan oinarritu dira. Gaiaren unibertsalasuna bermatze aldera, denek jantzi dituzte antezko arropak –hondar tonuetako prakak, jakak eta hegal laburreko sonbreiru borobilak–, eta ikusleentzako barreetarako gogoia zegoen

arren, laster lortu dute, maisuki lortu ere, emanaldia iradokizunaren eremura eramatea eta guztiok magiaren lurralde miresgarrantz bideratzea. Gainera, une jakin batean konturatu gara erabateko isiltasunean ari zela dena gertatzen, eta ateen emanadako dei-kolpeak eta beste zarata batzuk zirela emanaldiaren soinu bakarrak, hasierako eta amaierako musika leuna kenduta.

Barreak ere izan dira, jakina, baina beste erremediorik ez genuelako, hain ziren inspiratuak eta inozoak eszenak eta egoerak... Bide batez esanda, zelan da posible barre egitea «beste erremediorik» izan ez dugulako? Eta beste bide batez esanda, barre egiteaz aparte –barre sanoak, inuzenteak eta lasaia izan dira–, zer dela-eta geratu gara harrapatuta gure begien aurrean eta disimulu erdirik gabe gauzatzen ziren betiko trikimailu eta ikuste-efektuetan? Ohiko umoreari ere barre egin al diote?

Fin-fina, ondo egituratua, adimenduna eta erritmo lasai baina sostengatuko iruditu zaigu emanaldia, eta etxera bueltatu gara arte eszenikoekin gaualdi batez bakeak egin izanaren sentsazioarekin.

BOS Bilbao Orkestra Sinfonikoa



© Anita Torres

azaroak 02-03

Ligeti eta orkestrarako kontzertua

G. Ligeti: *Ramifications*

W. A. Mozart: *Haize-instrumentuetarako sinfonia kontzertantea K. 297b*

B. Bartók: *Orkestrarako kontzertua*

Nicolas Carpentier, oboea

Carlos García, klarinetea

Pedro Pardo, fagota

Luis Fernando Núñez, tronpa

Isabel Rubio, zuzendaria

Palacio Euskalduna Jauregia

osteguna | jueves 19:30 h
ostirala | viernes 19:30 h

Desde 14,42 €tik aurrera
Gaztea (<30): desde 5,41 €tik aurrera

Taquilla Euskaldunako lehiatila
www.bilbaoorkestra.eus



Orain bi aste aurkeztu zuten aurtengo jaialdia, Galdakaon. MONIKA DEL VALLE / FOKU

Sormene jaialdia abian da Galdakaon, zaintza ardatz

Emakume musikariei buruzko solasaldi batekin hasi da; azaroaren 5era arte, diziplina askotako kideak bilduko ditu

JAIALDIAK • Sormene jaialdiak atzo arratsean abiatu zuen aurtengo egitaraua, emakume musikarien inguruko solasaldi batekin. Azaroaren 5era arte, kultura diziplina ugaritako lagunak elkartuko ditu Galdakaon (Bizkaia). Zaintza jarri dute ardatzean, Gotzon Barandiaran zuzendari artistikoak azaldu duenez: «Zaintza, euskarazko kultur sorkuntzarentzat, hizkuntza zaintza da, euskaraz sortzen duen sortzaileak zaintza da, gure

kulturgintzaren oraina eta historia zaintza da; eta transmisioarekin lotuta dago erabat».

Ikastetxeetan bi tailer egingo dituzte, antzerkia eta musika lantzeko, gaur eta ostiralean, hurrenez hurren. Ostiralez, halaber, bertso saioa izango da arratsean, eta Ibil Bediren kontzertua gauean.

Azaroaren 5ean itxiko dute jaialdia, Libe Goitiaren *Fast Fatum* liburuak poemetan oinarritutako kontzertu batekin

Miriam Lukik jaso du Zilarrezko Euskadi saria

LITERATURA • Gipuzkoako Liburuzainen Elkarteak azaroaren 6an eta 9an banatuko ditu Zilarrezko Euskadi sariak, baina dagoeneko jakinarazi ditu aurtengo irabazleak: Miriam Luki saritu dute euskarazko literaturaren kategorian, *Argialdiak* (Susa) ipuin liburuagatik. Gaztelarazkoan, berriz, Juan Tallon idazleak jasoko du aitortza.

25.000

BENE BERGADOREN ERAKUSKETA BISITATU DUTENAK

Joan den ekainaren amaieran ireki zuten Bene Bergado eskultorearen *Urritu* erakusketa, Bilboko Azkuna zentroan, eta 25.000 bisita baino gehiago izan ditu dagoeneko. Zentroaren ibilbidean bisitari gehien jaso duen erakusketetako bat dela jakinarazi dute antolatzaileek. Heldu den urteko urtarillaren 7ra arte egongo da ikusgai.

Oskar Alegriaren film berria Seminci jaialdian saritua

ZINEMA • Oskar Alegriaren *Zinzindurrunkarratz* filma saritu dute asteburuan, Valladoliden (Espainia), Seminci zinema jaialdian. Zuzendariaren hirugarren lan luzeak dokumentalik onenaren saria eskuratu du. Paolo astoarekin eginiko bidaia grabatu du. Ahanzturaz, ukimenaz eta galdutako ahotsez mintzo da lana.

SAN TELMO MUSEOA

Asteartetik igandera: 10:00-19:00
www.santelmomuseoa.eus
Gaur, museorako sarrera doakoa da.



• **Erakusteka**
... eta bidean Irun
Gari Garalalde
AZKEN EGUNA

STM
San Telmo Museoa



Kian Soltani biolontxelista, artxiboko irudi batean. KURSAAL ESZENA

Gerra ostekoak, aurrekoak eta bitartekoak

Marta Garcia

Koloniako katedralaren ondoan dago Kolner Philharmonie kontzertu areto itzela, Koloniako Irratiko Orkestra Sinfonikoaren egoitza. Zehazki, auditoriuma Heinrich-Boll plaza-aren azpian kokatzen da eta, horregatik, kontzertua dagoenean plaza itxi behar izaten dute, hura zeharkatzen duten oinezkoen pausoak barrutik ere entzuten baitira. Ez dago zalantzarik orkestra hau inolako interferentziarik gabe entzuteko behar besei neurri hartzea erabaki zuzen bakarra dela.

Elgarrek ezagutu zuen mundua birrintzen ari zen *Biolontxelorako kontzertua* idatzi zuenean, 1919an. Lehen Mundu Gerrak utzitako milioika hildakoen kontzientzia eta bere emazte erriaren oinazeak gogoan, esan omen zuen «ona, atsegina, garbia, freskoa eta goxoa den oro urrutiko» zegoela, eta ez zela «inoiz itzuliko». Kontzertu honek badu, hala ere, nahigabearen eta edertasunaren artean zubiak eraikitzea posible dela sinetsarazteko gaitasuna. Hori lortzeko giltzarriak izan ziren Kian Soltanirekin tinbre borobil eta argia, eta orkestrak duen trebezia dinamikak gartzen. Lehen mugimenduaren lirismoan, *Adagio* zirrargarriaren esaldi zabaletan zein *Finale*-aren gai kementsuetan eta biolontxeloaren oroipen tristeetan, Macellararen batuta zehatz eta malgua ere garaile atera zen.

KRITIKA Musika
Koloniako Irratiko Orkestra Sinfonikoa

Zuzendaria: Cristian Macelaru.
Biolontxelo: Kian Soltani.
Egitaraia: E. Elgarren
Biolontxelorako kontzertua
eta S. Rakhmaninoven 3. sinfonia.
Lekua: Donostiako Kursaal auditoriuma. **Eguna:** urriak 28.

Sergei Rakhmaninoven 3. sinfonian, hala, orkestrak lehen zatian erakutsitako trinkotasun, bizitasun eta ñabardura sotilak gorenara iritsi ziren. 1936koa, estreinaldian ez zuen lortu nahi beste arrakasta, eta, dena den, partitura bizia da, bere aberriaren oroitzapenez blaitua. Harpa, tronpa eta biolinaren irekiera *Adagio ma non troppo*-an ez da aise ahaztuko den unea, ezta hai-zeen doitasun eta kolore distiratsuek han eta hemen ere, fagotaren eta klarinetaren egundoko parte-hartzeak nabarmen. Azken *Allegro*-an ere batuta beti fin, orkestra organikoa indarrez eta tentuz gidatuz. *Vocalise* bisa amaiera bikaina izan zen.

Bi obrak idatzi zirenean bezala, errealitatea gainera datorkigu egunero, baina musikak irauten duen bitartean, badirudi munduaren plaza itxi egiten dela.

www.bertsozalea.eus
www.bertsosarrerak.eus

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2023

6. KANPORAKETA
AZAROAK 1

LEKEITIO
IKUSGARRI ZINEMA. 17:00

Aitor Arrutia Azkueta, Beñat Bilbao Landa, Eneko Abasolo Txabarri, Koldo Gezuraga Sejjido, Maite Sarasola Isazelaia eta Peru Irastortza Santxo, Gai-jartzailea: Beñat Vidal Currutxaga.

Babesleak: Bizkaia, bbe, Lekeitia, berria, Antzestalea, Kultura Garaia, Bertsolariak

BEGIZ
Ismael Manterola



Oma berritua

Aurreiritziz beteta iritsi nintzen orain dela urte asko Omako baso. Ikusteko gogoa banuen ere, Eusko Jaurlaritzako *Ven y cuéntalo* turismo kanpainako ikurra izateak ez zidan konfiantza handirik ematen. Basoko lehenbiziko pinturak ikustearekin batera baztertu nituen beldur guztiak. Asko gustatu zitzaidan basoan zehar egin nuen txangoa, artistak proposatutako irudien

jokoekin eta nik neuk eraikitakoekin. Artea beste modu batera ikusteko tokia zen, ez museoa, ez eliza, ezta artea ohikoagoa den beste esparru bat ere. Naturan, zuhaitzez eta mendiz inguratuta egoteak esperientzia berezia bihurtu zuen Ibarrolaren lanaren hautematea. Gainera, Santimamiñe kobazuloa hain hur egoteak euskal mitoz inguratzen zituena modernitate batean sailkatutako pinturak.

Beti pentsatu nuen Omako baso Agustín Ibarrola artistaren salbuespeneko lana zela, baina ikusi ondoren ulertu nuen bere betiko ibilbidearen barruan era logikoan txertatzeko proiektua zela. Berehala etorri zitzaizkidan Equipo 57 taldeko garaian egingako pintura lanak eta gerora landutako hainbat gai edo interes lerroak. Horrez gainera, Oman agerikoak ziren Euskal Eskolen Mugimenduak izandako kezkek euskal abangoardia historiaurrean eraikitzeko, baita Emen Bizkaiko taldeak artea jendearengana hurbiltzeko edo erakusketa espaziotik ateratzeko izan zituen egitasmoak, batez ere Ibarrolaren eta Mari Dapenaren grabatugintzaren bitartez.

Gaur egun, Omako jatorrizko basoa desagertu egin da. Pinuak heldutasunera iritsi ziren eta hil egin dira; gaitzak jota zeuden

beste asko, hiltzeaz; edo biak batera. Horregatik, artistak pintatukoak naturaren zirkloaren batera joan zaizkigu. Ibarrolak naturaren legeari lotu zizkion artelanak; heriotzak ematen duen nahigabea ulertzeko modukoa izanda ere, onartu behar dugu artea efimeroa izan daitekeela. Ezer ez da betiko.

Hala ere, lekua zaintzeko ardurazuten erakundeek basoa desagertu ondorengo erabakia hartu dute: beste toki batera eramatea. Pinturak beste pinudi batera ihes egin dute, *migrazioa* deitu diote era tekniko batean. Nire kide batek zioen bezala, liburu baten berrargitalpenaren itxura handiago dauka, ez baita zeharo berdina, ezta izan beharrik ere.

Omako baso berria ostiralean zabaldu zitzaion jendeari. Nik gomendio bat besterik ez dut: joan ikustera nik garai batean izan ni-

tuen aurreiritzirik gabe. Ederra da mendi buelta bat egitea naturaz eta arteaz gozatuz, eta, horretarako, Ibarrolaren proposamena berezia eta egokia da. Lan izugarria egin da Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera jatorrizko basoak izan zuen izaera berreskuratzeko, errespetuz eta zorrotasun zientifikoz. Seguru nago ikusleak ez duela gehiegi igarriko (eta hala izan behar du), baina gauza asko izan dira kontuan hartzeak baso berria egiteko orduan. Horrekin batera, arte ikasle askok hartu dute parte berreraikuntza horretan, eta ezagupena transmititzeko eta zabaltzeko ezinbestekoa izan da parte hartze hori. Orain, bukatuta dagoenean, disfrutaztea besterik ez zaigu falta, beti ere errespetuz eta mendia dela ahaztu gabe; ez dezagun parke tematikoa, turistikoa edo zabortegia bihurtu.

Jatorrizko piezatik interpretaziora

Jone Rubio Mazkarian

Esan genezake gauzak ez direla ezerezetik sortzen, aurrekariak eta inguruek rol erabakigarriak jorratzen baitituzte. Sor-kuntza artistikoan inork ez duela ezer asmatu ondorioztatzen badugu, agerian geratuko zaigu prozesu, ikerketa edota aurrekariaren bateratzearen emaitza dela. Haritik tira egin eta artelana hausnarketa baten itzulpen estetiko dela pentsatzean, atzean dagoen hori zer den ikusarazteko bulkada sentitzera iritsi gaitzake. Kasu batzuetan, artelanak berak beste artelan batzuen ondorioz bideratzen diren hausnarketa estetikoaren abiapuntuak ere badira, bilaketaren bitartez hausnarketak eta irudiak eraldatzen dituztenak, hain zuzen.

Prozesu horren erpinean kokatzen gaitu Xabier Salaberriaren *Frisoa* izeneko erakusketak; Altuzako (Nafarroa) Oteiza museoak biltzen duena. Izan ere, bertan, Oteizaren Aita Donostiari omenaldia (1959) pieza abiapuntu izanik, bilaketa eta eraldaketa prozesu bat abiatzen baitu. Otei-

KRIKITA
Artea
Xabier Salaberria.
'Frisoa'

Non: Oteiza museoa, Altuzan.
Noiz arte: Azaroaren 19ra arte.

zaren eta bere egiteko moduen arteko sinbiosi bat proposatzen du Salaberriak, eta, horretarako, Donostiako Sabadell bankuan dagoen Oteizaren lanaren hastapenetara jotzen du erakusketak.

Salaberriak ehundutako zazpi piezak osatzen dute erakusketa. Horietan, euskarriak eta materialak askotarikoak dira: eskultura, argazkiak, instalazioa eta Salaberriak eraikitako frisoa, hain zuzen ere, Oteizak egindakoaren tamaina berekoa dena.

Hala, erakusketa espazioan hiru gune sortzen dira, eta, moduren batean, Oteizaren eta Salaberriaren obren arteko zubi lana egiten dute; betiere, Oteizaren hastapenetako lanaren inguruko gerturatze ia arkeologikoa gara-



Xabier Salaberria artista, Altuzan, Oteiza museoa ikusgai dagoen *Frisoa* erakusketan. INIGO URIZ / FOKU

tuz. Lehenik, Oteizak 1956an Aita Donostia konpositorearen omenez eraikitako monumentuaren arrastoak arnasten dira. Arrastok ez digute aukerarik ematen Agiñako mendatean (Lesaka, Nafarroa) eraikitako espazioa osatunean ikusteko. Alabaina, Salaberriak egindako argazkiek detailak, testurak eta ingurua aztertzeo pautak zehazten dizkigute.

Agiñako monumentua historiaurreko aztarnen artean eraiki zuten, garai hartako kutsu solemnea mantentzeko aukera ematen baitzuen espazioak; nolabait, antzinako eta oraingo memoriak bateratzen zituen. Hala, kaperak bat eta monolito bat eraiki zituzten Jose Gonzalo Zulaika Arregi Aita Donostiaren omenez.

Bigarrenik, Oteiza beraren berrinterpretazioaren berrinterpretazioa aurkezten digu artistak. Izan ere, Agiñako monumentua-

ren aztarnak atzean utzi, eta aurrera egiten dugun momentuan, frisoaren bestelako itzulpen batek egiten baitigu harrera. Forma geometrikoek Salaberriaren inspirazioa igortzen dute, baina, era berean, aurrekaria deseraikitzen dute, eta haren prozesuan kokatzen gaituzte.

Esaterako, Oteizak garatutako frisoa Agiñako monumentuaren marmol berarekin egituratu zen; baina, kasu honetan, ikuspuntu panoramikoa da, eta eraikinean integratzen da, haren parte bihurtuta. Kontrara, Salaberriaren frisoa ez da eraikinean integratzen, bestelako gorpuzkera bat sortzen du, eta lanabesak eusteko espazio bat simulatzen du. Halaber, kontraste horri eutsirik, Salaberriaren interpretazio berri horretan aluminioa, altzairua eta zura dira nagusi.

Bada, begiradaren bitartez es-

pazioa aztertzen dugun heinean, tailer baten estetikarekin lot gennitzakeen piezak agertzen dira. Eta Salaberriak egin berri duen ikuskerarekiko lotura bideratzen du horrek.

Orduan, deseraikitzea biderkatu egiten da, eta azkenengo espazioan prozesuaren prozesura eramaten gaitu erakusketak. Oraingoan, gutziz ilunduta dagoen espazio batean, ikus-entzunezko batek harrapatzen gaitu. Burdinazko pieza bat moldatzen ari da bertan, eta, forma hartzen duen bitartean, irudiaren plastikotasunak hartzen gaitu nolabait. Oteizak lehenengo frisoa egin zuenetik Salaberriak piezaren interpretazioa garatu zuen arte, egiteko moduak eraldatu egin direla erakusten du ikus-entzunezkoak ere. Eta piezak eta artelanak testuinguruaren ondorio badirela ondorioztatzea dezaakegu.



ENERGIA AURREZTEKO AHOLKUAK
Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

Aire-girogailua piztean, ez jarri tenperaturarik apalanean: etxea ez duzu lehenago hoztuko eta alferrikako gastua egingo duzu.



Eguraldia



GAUR

Giro argia


Giro eguzkitsua gailenduko da; hala ere, eguerditik aurrera, erdi mailako hodeiak eta goi hodeiak ugartuz joango dira, eta egunaren amaieran zerua lainotuta geratuko da. Egunsentia atzo baino freskoagoa izango da, baina baliteke tenperatura beroenak pixka bat igotzea. Hego-mendebaldeko haizea edo hego haizea ibiliko da, gailurretan bolada gogorrekin; azken orduetan indartu egingo da.

ITSASOA

Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, 4ko indarrarekin eta gauean 5eko tarteekin. Itsaso kizkurra eragingo du, gauean itsaskirriko guneekin. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak bi metro eta bi metro eta erdi arteko olatuak altxatuko ditu; gauean, metro eta erdikoak.

ITSASALDIA ORDUA METROAK		
Itsasgora	05:38	4,37
Itsasbehera	11:48	0,63
Itsasgora	18:03	4,22

ISOBARA MAPA



EGUZKIA	SORTU	GORDE
	07:45	18:05
ILARGIA		
Ilbehera	Azaroak 5, igandea	
Ilberria	Azaroak 13, astelehena	
Ilgora	Azaroak 20, astelehena	
Ilbetea	Azaroak 27, astelehena	

BIHAR

Euri pixka bat eta haize zakarra

Fronte txiki batek hodeiak eta euria ekarriko ditu. Noizbehinka euria egingo du, baina aterrune luzeak izango dira, eta ez da prezipitazio askorik pilatuko. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, eta gauean zakartu egingo da: leku askotan 100 km/h-ko ufa-dak izango dira. Tenperatura beroenak ez dira asko aldatuko, baina hotzenak igo egingo dira.

HAMAIIKA

08:00: Miru. 08:30: Hamaika 24. 09:00: EH24. 09:30: Hamaika 24. 10:00: EH24. 10:30: Hamaika 24. 11:00: M Ama eme ume. 11:30: Musika zuzenean. 12:00: Gurean gaur. 14:00: Egurdiari gaur. 15:00: Musika zuzenean. 15:30: 11 leiho. 16:30: Bizi musika. 17:00: Arratsaldean Gaur. 17:30: Hamaika 24. 18:00: Arratsaldean Gaur. 18:30: Hamaika 24. 19:00: Arratsaldean Gaur. 19:30: Hamaika 24. 20:00: KZK News. 20:30: Gurean gaur. 21:30: KZK News. 22:00: M Ama eme ume. 23:00: KZK News. 23:30: M Ama eme ume.

ETB 1

06:30: Marrazki bizidunak. 08:59: Egun on. 11:00: Adinberri. 11:40: Euskal Herriak. 12:05: In english please. 12:20: Txoriene. 13:15: Joseba Arginano Sukalerian. 14:00: Gaur egun. 14:50: Egurdiari. 15:10: Iparaldearen orena. 15:20: Hamaika esateko jaiak. 15:30: EITB Kultura. 15:40: Teknopolis. 16:10: Mihiluze. 17:00: Goenkale. 18:00: Biba zuek!. 19:45: Egurdiari. 20:00: Gaur egun. 20:55: EITB kultura. 21:05: Hamaika esateko jaiak. 21:25: Mihiluze. 22:20: Bikote bionikoa. 23:20: Barre libre. 00:00: Piztu telebista. 00:10: Abenturoa.

ETB 3

07:45: Doraemon. 08:50: Baga biga higa. 09:00: Txau-Txau, Txio eta Panda. 09:20: Helenaren eskola bikia. 09:40: Otsoko. 09:55: 3 ene kantak. 12:00: Oum, izurde zuria. 12:25: Doraemon. 13:15: Presto magia eskola. 13:40: Squish. 14:10: Zorionak. 14:20: Idefix eta menderakaltza. 14:40: Kaleko futbola. 15:00: Mini ninjak. 15:20: Aberezoak. 15:35: Andu berandu. 15:55: % 100 otsoko. 16:00: Otsoko. 16:15: Doraemon. 17:05: Ahizpak. 17:25: Spirit, zaldi askea. 17:50: Polly pocket. 18:10: Super Dino. 18:35: Remy eta Boo. 18:55: Milo. 19:15: Ernst eta Rebeka. 19:40: Jeremy Super Karibu. 20:05: Zorionak. 20:10: Robin Hood. 20:30: Doraemon. 21:15: Marmoka borrokariak. 21:40: Gadget inspektorea. 22:00: Lakebottom kanpamentua. 22:20: Mutli Neska Txakur Katu Gazu Gata. 22:45: Lan bixiak. 23:05: Rocket monkeys. 23:45: Dave Spuden Mundu Kaskarra.

KANALDUDE

09:48: Eleketa: Xiberoko ekonomia, atzo, egun eta bihar. 13:46: Herenegun: Ekialdean euskaraz. 19:00: Iku-si Mikusi 2023: Euskalkiak haur eta gazte literaturan.

Hollywood

13:35: La teniente O'Neil. 15:45: Alien, el 8º pasajero. 17:40: Aliens: el regreso. 20:05: Alien 3. 21:55: TikTak Cine. 22:05: Alien: Resurrección. 23:50: TikTak Cine.

AMC

14:15: El silencio de los corderos. 16:15: El sexto sentido. 18:05: X-Files: Creer es la clave. 19:55: Animales fantásticos y dónde encontrarlos. 22:10: Hansely Gretel: cazadores de brujas. 23:40: El crimen de Georgetown.

euskaltel

BERRIA

Astearte, 2023ko urtarrren 31

ETB 2

07:00: Boulevard. 09:00: Operación Marea Blanca. 14:10: Vascos por el mundo. 10:55: Teknopolis. 11:30: En Jake. 13:55: Atrápame si puedes. 14:58: Teletur. 16:05: Egurdiari. 16:30: Esto no es normal. 17:35: Di-nero a saco. 18:40: Quédate con Ane. 20:05: A bocados. 21:00: Teletur. 22:05: Egurdiari. 22:30: La noche de... Zinema. Cinco lobitos. 2022.

ETB 4

12:05: Date el bote. 13:00: Lingo. 13:55: Euskolegas. 15:20: Mi querido Kliksky. 17:05: Vascos por el mundo. 17:35: A bocados. 19:30: Historias a bocados. 20:25: Vascos por el mundo. 21:35: Atrápame si puedes. 22:20: Juego de cartas.

La 1

08:00: La hora de La1. 09:30: Especial informativo. 14:10: Ahora o nunca. 15:00: Albistek. 15:50: Informativo territorial. 16:30: Salón de té La Moderna. 17:20: La promesa. 18:20: El comodín de la 1. 18:50: Fútbol. Nazioen Liga. 21:00: Albistek. 21:55: 4 estre-las. 22:45: Dúos increíbles.

La 2

07:55: Creadores. 08:50: Agrosfera. 09:30: Aquí hay trabajo. 09:55: La aventura del saber. 10:55: La 2 ex-press. 11:15: Documental. 12:55: Zinema. Un dólar por los muertos. 1998. 14:25: Dokumental. 15:45: Saber y ganar. 16:30: Dokumental. 19:20: Detrás del instante. 19:50: Culturas2. 20:15: Dokumental. 21:20: Dokumental. 22:00: Orbita Laika. 23:00: El universo. 23:50: Documentos TV. 00:55: Metrópolis.

Antena 3

08:55: Espejo público. 13:20: Cocina abierta de Karlos Argiñano. 13:45: La ruleta de la suerte. 15:00: Albiste-ak. 15:45: Amar es para siempre. 17:00: Pecado origi-nal. 18:00: Y ahora Sonsoles. 20:00: Pasapalabra. 21:00: Albistek. 21:45: El hormiguero. 22:45: Herma-nos.

Tele 5

07:00: Albistek. 08:55: La mirada crítica. 10:30: Va-mos a ver. 15:00: Albistek. 15:30: Kirolak. 15:50: Así es la vida. 17:00: TardeAR. 20:00: Reacción en cade-na. 21:05: Albistek. 22:00: GH Vip. 22:50: Entrevias.

La Sexta

10:30: Al rojo vivo. 14:30: Albistek. 15:45: Zapeando. 17:15: Más vale tarde. 20:00: Albistek. 21:00: La Sex-ta clave. 21:30: El intermedio. 22:30: Especial El Objeti-vo. 01:10: Zinema. Desconexión. 2013.

Cuatro

09:20: Alerta Cobra. 12:30: En boca de todos. 14:55: Kirolak. 15:30: Todo es mentira. 18:00: Cuatro al día. 20:40: Kirolak. 22:05: Egurdiari. 21:05: First dates. 22:50: Código 10.

TF1

10:30: Amour, gloire et beauté. 11:00: Les feux de l'a-mour. 11:50: Les douze coups de midi. 13:00: Journal. 14:00: Téléfilm. Une famille sur mesure pour Noël. 2022. 15:40: Téléfilm. Un Noël sous contrat. 2021. 17:30: Familles nombreuses: la vie en XXL. 18:30: Ici tout commence. 19:10: Demain nous appartient. 20:00: Journal. 21:10: Zinema. Harry Potter et la Cham-bre des secrets. 2002. 23:55: La Brea.

France 2

10:50: Chacun son tour. 11:55: Tout le monde veut prendre sa place. 13:00: Journal. 13:55: Ça commence aujourd'hui. 16:15: Affaire conclue, tout le monde a quelque chose à vendre. 18:05: Tout le monde a son mot à dire. 18:40: N'oubliez pas les paroles. 20:00: Journal. 20:45: Un si grand soleil. 21:10: Votre vie en jeux. 23:25: Zinema. Halloween. 2018.

France 3

11:15: Outremer le mag. 11:50: Outremer l'info. 12:00: Le journal des solutions. 12:25: Ici 12/13. 12:55: Météo à la carte. 14:45: Tandem. 16:45: Duels en familles. 17:25: Slam. 18:10: Questions pour un champion. 19:00: Le 19/20. 20:00: Tout le sport. 20:40: Aux jeux, citoyens! 21:10: Sophie Cross. 22:55: Meurtres à... 00:40: Libre court.

Euskadi, auzolana

EKITALDIAK

ALTZÜRÜKÜ Zikiri jatea: Atzar-
bale eta Holako Deluxe.
●Gaur, 20:00etan, plazan.

AREATZA Los vecinos del quin-
to.
●Gaur, 20:30ean, *The Quiet*
Corner tabernan.

BEASAIN Gau beltza ipuin konta-
keta. Ixabel Agirresarobe.
●Gaur, 17:30etan, udal
liburutegian.

BERGARA Antzerkia: *Su à feu*.
●Gaur, 20:30ean, plazan.

BILBO Antzerkia: *Lurrazpiko*
Ahotsak. Hortzmuga Teatroa.
●Gaur, 17:30etan, San
Frantziskoko komentu zaharrean.

BILBO Frank Delgado.
●Gaur, 21:30etan, Kafe Antzokian.

DONOSTIA Ghouljaboy.
●Gaur, 20:30ean, Dabadaban.

DONOSTIA Judit Neddermann.
●Bihar, 20:30ean, Altxerri.

GASTEIZ Antzerkia: *La obra*. Ma-
rea antzerki taldea.
●Gaur, 19:30ean, Principalen.

GASTEIZ La Élite, Hofe 4:40 eta
Brava.
●Gaur, 21:00etan, Jimmy Jazzen.

IRUÑEA Elitó Reve y su charan-
gón.
●Bihar, 21:00etan, Zentralen.

IRURTZUN Antzerkia: *Ibaldai Bel-
tza*.
●Gaur, 17:30ean, Ardanzetako
xendan .

LARRESORO Bertso krakada.
●Gaur, 18:00etan, Debrutegian.

LEGORRETA Txerrikumeak, Lu-
kiek, Toc eta N-Lezz.
●Gaur, 23:00etan, plazan.

ONDARROA Literatur Amuak
2023: Keu Agirretxea y Judit
Neddermann (banda).
●Gaur, 19:00etan, Beikozinin.

ZORNOTZA Diskofesta + Altxa-
porru erromeria + Eztanda.
●Gaur, 19:00etan, Zelaieta
parkean.

Agenda osoa
ikusteko,
hemen duzu
[www.berria.eus-](http://www.berria.eus-erako lotura)
erako lotura



La contadora de películas, Lone Scherfig zuzendariaren filma.

Zinema

Araba

Gasteiz

FLORIDA. ik. eguna: asteazkena	
Alimañas 19:15 21:15	
Divertimento 17:30 20:00	
El chico y la garza 17:00 19:30	
	22:00
Golpe de suerte 20:00	
La contadora de películas 17:15 19:45	
	22:00
La patrulla canina 17:15 19:45	
Los asesinos de la luna 17:00 21:00	
Mamacruz 17:15 19:45	
Me he hecho viral 17:00 19:30	
Mi otro Jon 21:15 23:00	
O como (JBA) 19:00 21:00	
Sound of Freedom 19:00 21:00	
Trolls 3: Todos juntos 17:15 19:15	
Un amor 19:30 21:00	

GORBEIA ZINEMAK. ik. eguna: asteartea.	
Alimañas 17:30 19:25	
Bidasoa 2018-2023 18:00	
Campeonex 17:00 19:00	
Alimañas 17:00 19:35	
El exorcista 22:10 24:00	
Esta ambición desmedida 19:35 21:25	
Hypnotic 17:15 19:15 21:15	
Los asesinos de la luna 17:00 21:00	
Me he hecho viral 19:40 21:45	
Mi otro Jon 22:00 24:00	
Misterio en Venecia 19:25 21:25	
Retribution 19:25 21:25	
Sound of Freedom 19:35 22:10	
Trolls 3: Todos juntos 17:30 19:30	

YELMO BOULEVARD. ikuslearen eguna:	
osteguna.	
Alimañas 18:15 20:25	
Campeonex 17:15 19:25	
El exorcista 20:00 22:00	
El exorcista: Creyente 22:20 24:20	
Hypnotic 17:50 19:55	
Hypnotic (JBA) 22:00 24:00	
La patrulla canina 17:25 18:25	
Los asesinos de la luna 17:00 19:30	
Me he hecho viral 20:00 21:45	
Retribution 20:30 22:25	
Mi otro Jon 20:30 22:25	
Retribution 18:30 20:30	
Retribution (JBA) 22:30 24:30	
Saw X 22:30 24:30	
Sound of Freedom 17:00 19:40	
Trolls 3: Todos juntos 17:45 18:45	
	19:45 20:45 21:45

Bizkaia

Bilbo

COLISEO CINESA ZUBIARTE. ikuslearen eguna: astelehena.	
Alimañas 17:35 19:55 22:00	
Campeonex 16:00 18:00	
El exorcista 21:20 23:20	
El exorcista: Creyente 19:30 21:30	
Hypnotic 19:30 22:00	
La monja 2 19:40 21:40	
La patrulla canina 17:00 18:45	
Los asesinos de la luna 16:30 18:15	
	20:00 21:45
Me he hecho viral 17:15 19:15	
Mi otro Jon 21:00 23:00	
Misterio en Venecia 17:15 19:15	
Saw X 22:20 24:20	
Trolls 3: Todos juntos 15:45 16:45	
	18:05 19:05 20:05

GOLEM ALHONDIGA. Alimañas 17:15 19:45 22:15	
Cerrar los ojos 16:20 18:20	
Chinas 22:15 24:15	
El chico y la garza 17:00 19:00	
El chico y la garza (JBA) 19:45 22:15	
Esta ambición desmedida 19:30 21:30	
Golpe de suerte 22:15 24:15	
La contadora de películas 17:00 19:30	
	22:15
La imatge permanent (JBA) 19:45 21:45	
Los asesinos de la luna 16:30 18:30	
Los asesinos de la luna (JBA) 20:30 22:30	
Mi otro Jon 17:00 19:00	
O como (JBA) 22:15 24:15	
Trolls 3: Todos juntos 17:15 19:30	

MULTICINES. ikuslearen eguna: astelehena.	
Al otro lado del río y entre los... 17:30 19:30	
Divertimento 17:30 22:15	
El legado 17:30 22:15	
Golpe de suerte 20:00 22:00	
La contadora de películas 17:15 19:15	
	22:00
Los asesinos de la luna 16:45 19:00	
Mamacruz 17:15 20:20 22:15	
Me he hecho viral 20:00 22:15	
Sound of Freedom 17:15 19:45	
	22:00
Un amor 19:30 21:30	

BARAKALDO	
COLISEO CINESA MAX OCIO. ikuslearen eguna: astelehena.	
Alimañas 15:50 17:55 20:00 22:05	
El exorcista 22:00 24:00	
El exorcista: Creyente 15:50 19:25 21:55	
Hypnotic 17:15 19:30 21:45	
La monja 2 21:30 23:30	
La patrulla canina 18:20 20:20	
Los asesinos de la luna 16:20 19:20	
	20:35
Los asesinos de la luna (JBA) 18:35 20:35	
Los mercenarios 22:40 24:40	
Me he hecho viral 22:45 24:45	
Mi otro Jon 16:40 18:40	
Misterio en Venecia 16:20 18:20	
Retribution 16:55 19:05 21:15	
Saw X 18:45 20:45	
Sound of Freedom 16:25 20:20	
Trolls 3: Todos juntos 15:45 16:45	
	17:25 18:05 19:05 19:45 20:25 21:25

Trolls 3: Todos juntos (JBA) 16:15 18:15	
YELMO MEGAPARK. Alimañas 18:15 20:10	
El exorcista 22:00 24:00	
El exorcista: Creyente 22:10 24:45	
Hypnotic 20:00 22:00	
Hypnotic (JBA) 22:00 24:00	
La patrulla canina 17:30 18:00 19:30	
Los asesinos de la luna 17:00 19:30	
	20:20 21:15
Me he hecho viral 22:05 24:05	
Retribution 17:45 19:45 21:45	
Sound of Freedom 17:15 19:15	
The Creator 19:30 21:30	
Trolls 3: Todos juntos 17:00 18:00	
	19:00 20:00 20:55
Trolls 3: Todos juntos (JBA) 17:30 19:30	

Basauri	
SOCIAL ANTZOKIA. Ez dago emanaldirik.	
Orange. Zuzapuz. Trolls 3: Todos juntos. 18:00. Alimañas. 18:00. 20:15. Los asesinos de la luna. 18:00. Mamacruz. 20:15.	

Getxo	
LAUREN GETXO. Ez dago emanaldirik.	
Leioa	
YELMO PREMIUM ARTEA. Alimañas 18:20 20:20 22:45	
Dead Man Walking opera 19:00 21:00	
El exorcista 22:00 24:00	
El exorcista: Creyente 22:30 24:30	
La patrulla canina 18:00 20:00	
Los asesinos de la luna 17:00 20:00	
	21:00 22:00
Me he hecho viral 17:00 22:15	
Mi otro Jon 17:00 22:15	
Retribution 18:10 20:10	
Retribution (JBA) 22:10 24:10	
Saw X 19:30 21:30	
Sound of Freedom 17:10 19:45	
Trolls 3: Todos juntos 17:15 19:45	
	19:55 20:15 22:00

Portugalete

DOCK BALLONTI. Alimañas 16:00 18:00 20:30 22:25	
El chico y la garza 16:15 20:10 22:25	
El exorcista: Creyente 22:15 24:15	
Esta ambición desmedida 20:00 22:00	
Hypnotic 16:10 19:00 20:45 22:25	
La patrulla canina 16:00 17:30	
Los asesinos de la luna 16:30 19:00	
	21:00
Me he hecho viral 19:05 21:05	
Retribution 17:30 22:30	

Trolls 3: Todos juntos 16:00 17:30 18:30 19:30	
---	--

Zornotza. Matria. 20:15.

Gipuzkoa

Donostia

ANTIGUO BERRI. ik. eguna: asteazkena.	
Alimañas 17:00 18:45 20:30 22:15	
Cerrar los ojos 18:30 20:30	
Golpe de suerte 18:30 20:30	
Golpe de suerte (JBA) 21:30 23:30	
La contadora de películas 16:45 19:15 21:45	
	20:30
La isla roja 20:30 22:30	
La patrulla canina 16:30 17:30	
Los asesinos de la luna (JBA) 17:15 19:30 20:30	

Me he hecho viral 16:30 22:00	
Trolls 3: Todos juntos 16:30 17:30 18:30 19:30 21:30	
CINESA GARBERRA LUXE. Alimañas 17:05 18:15 20:20	
El exorcista 21:55 23:55	
El exorcista: Creyente 21:35 23:00	
Hypnotic 19:15 22:25	
La monja 2 16:20 18:20	
La patrulla canina 16:00 18:30	
Los asesinos de la luna 16:40 19:30 21:00	
Me he hecho viral 20:45 22:40	
Misterio en Venecia 17:00 19:00	
Saw X 22:40 24:40	
The Creator 15:45 17:45	
Trolls 3: Todos juntos 15:45 18:05 19:05 20:25	

PRINCIPE. ikuslearen eguna: asteazkena.	
Bidasoa 2018-2023 (JBA) 19:45	
Campeonex 17:15 19:15	
Cerrar los ojos 19:30 21:30	
Dispararon al pianista 21:30 23:30	
Esta ambición desmedida 21:15 23:15	
Golpe de suerte 17:00 19:15 20:30 22:30	
La contadora de películas 17:00 19:30 22:00	
	20:15 22:00
La patrulla canina 16:45 17:30	
Los asesinos de la luna 16:30 18:45 20:30 21:45	
Mamacruz 16:45 18:30 21:45	
Me he hecho viral 16:45 19:15	
Mi otro Jon 16:45 19:15	
Sound of Freedom 19:00 21:00	
Trolls 3: Todos juntos 16:30 17:30 18:30 20:30 21:30	
	22:30 24:30

TABAKALERA. Ez dago emanaldirik.	
TRUEBA. ikuslearen eguna: asteazkena.	
El chico y la garza 16:30 19:00 21:30	
O como (JBA) 17:00 19:15 21:30	
Los asesinos de la luna 19:30. Los asesinos de la luna (JBA). 21:30.	

Errenteria	
NIESSEN ZINEMAK. Alimañas 22:35 24:35	
Bidasoa 2018-2023 17:00	
El exorcista 16:45 22:00	
Esta ambición desmedida 16:10 21:30	
Hypnotic 17:30 22:30	
La contadora de películas 17:10 19:35 22:00	
	20:15 22:00
La patrulla canina 16:15 18:15	
Los asesinos de la luna 19:15 21:15	
O como (JBA) 19:45 21:45	
Retribution 19:30 21:30	
Sound of Freedom 21:35 23:35	
Trolls 3: Todos juntos 16:15 18:10 20:10 22:10	
Un amor 19:30 21:30	

Irun	
OCINE MENDIBIL. Alimañas 16:45 19:30 22:30	
El chico y la garza 16:00 20:15 22:35	
El exorcista: Creyente 22:45 24:45	
La patrulla canina 15:50 17:45	
Los asesinos de la luna 16:15 18:45 20:10 22:10	
Me he hecho viral 18:20 20:20	
Mi otro Jon 21:15 23:15	
Sound of Freedom 21:45 23:45	
Trolls 3: Todos juntos 16:00 17:00 18:00 19:00 20:00 21:00	
Ordizia. Herri antzokia. Bidasoa 2018-2023. 19:30.	

Usurbil

CINESA URBIL. Alimañas 16:20 18:30 20:40 22:45	
Campeonex 16:30 20:30	
El exorcista 22:10 24:10	
El exorcista: Creyente 22:35 24:35	
La monja 2 21:15 23:15	
La patrulla canina 17:00 18:20	
Los asesinos de la luna 16:30 19:15 20:50	
Me he hecho viral 17:15 19:15	
Mi otro Jon 19:15 21:15	
Misterio en Venecia 19:30 21:30	
Saw X 16:00 18:00	
Trolls 3: Todos juntos 15:45 16:45 18:05 19:05 20:25 22:00	
Zarauz. Me he hecho viral. 19:30. Los asesinos de la luna (JBA). 21:30.	

Lapurdi

Baiona	
CGR CENTRE. 3 jours max 14:00 16:00 18:00 20:15 22:15	
Bernadette 13:45 15:45	
Expendables 22:30 24:30	
Killers of the Flower Moon 10:00 12:00	
	13:45 20:30
Killers of the Flower Moon (JBA) 17:30 19:30	
L'Exorciste - Dévotion 20:15 22:30	
La Nonne La malediction... 22:30 24:30	
La Pat' Patrouille: La Super... 11:00 13:00	
Mi otro Jon 14:00 16:00 18:00	
Le Consentement 10:45 18:00 20:15	
Le régime animal 10:45 18:00	
Les Trolls 3 11:00 13:00	
Saw X 13:40 15:40 20:10 22:30	
Second tour 11:00 13:45 16:00 21:15	
Une année difficile 10:45 15:40 18:00 20:10	

L'ATALANTE. Anselm (le bruit du temps) (JBA) 21:00 23:00	
En bonne compagnie (JBA) 15:45 17:45	
L'Enlèvement (JBA) 20:30 22:30	
La Fiancée du poète 16:30 18:30	
Le Ravissement 20:45 22:45	
Le syndrome des amours passées 14:00 19:15	
Les tourterelles et les... 16:00 18:00	
Linda veut du poulet! 17:00 19:00	
Second tour 14:00 18:30 21:00	
The Old Oak (JBA) 14:15 18:30	
Un prince 17:30 19:30	

Angelu

MONCINE. 3 jours max 11:15 14:00 16:00 20:00 22:00	
Bernadette 14:00 19:00	
Katak, le brave béluga 11:00 14:45	
Killers of the Flower Moon 11:00 13:00	
	17:30 20:00
Killers of the Flower... (JBA) 14:00 16:00	
L'Exorciste - Dévotion 16:45 21:30	
La Pat' Patrouille: La Super... 11:15 13:15	
Le régime animal 14:00 16:00 18:00	
Le Régne animal 18:00 20:30 20:45	
Les Trolls 3 11:15 14:00 16:00 18:00	
Second tour 11:15 16:00 18:00 20:00	
Une année difficile 11:00 15:00 18:00	

Donibane Lohizune

LE SELECT.		
3 jours max	14:15	19:00
Bernadette		18:15
Five Nights At Freddy's		22:00
Frankenweenie		16:45
Katak, le brave béluga		14:30
Killers of the Flower Moon		20:15
Killers of the Flower Moon (JBA)		14:15
L'Exorciste - Dévotion		19:30
La Pat' Patrouille: La Super...		14:15
La petite		19:00
Le Consentement	10:30	16:30
Le régime animal		21:00
Les Trolls 3	10:45	19:00
Marie-Line et son juge		10:45
Second tour	16:45	21:15
The Old Oak (JBA)	14:00	21:00
Une année difficile		16:30

Non?

Beste askorentzat bezala, *Friends* telesaila izan da nire leku segurua, konfort gunea. Bizitzan gehien ikusi dudana telesaila da. *Ekografiak* atalean parte hartzeko gonbita egin zidatenean horri buruz hitz egitea bistakoezia iruditu zitzaidan arren, Matthew Perry aktorea hil dela jakin dudanean ezin izan dut momentua pasatzen utzi.

«Chandler naiz. Txistek egi-ten ditut deseroso nagoenean», dio Central Perk kafetegiko be-saulkian eserita. Chandler zen *Friends*-eko nire pertsonaiarik gogokoena. Bere umore garratz inteligenteak pertsonaia horrek besteek baino geruza gehiago zituela pentsatzera neraman.

Perry omen zen gidoietan bere pertsonaiari ekarpenak egiteko baimena zuen aktore bakarra.



EKOGRAFIAK
Lide Hernando

Hain zen bera Chandler Bing. Castingeana ikusi omen zuten sortzaileek pertsonaiaren esentzia. Aurrez idatzia zuten pertsonaiari ere ezaugarri batzuk aldatu zituzkion beragan oinarrituta.

Erraza da pertsonaia bat sortzean bere izaeraren punturik indartsuena ogibidearekin lotzea. Rossen *nerd*-tasuna bere ogibidearekin lotuta zegoen; Joeyren neskazale fama, hein batean, ak-

tore izaerarekin. Chandler ez zuen bere lanak definitzen; ez baikeuuen telesailak iraun zituen hamar urteetan zertan aritzen zen jakin -ezta gainontzeko lagunek ere: pisua jokatu zuten lehia-keta gogoangarri hura adibide-.

Berak osatutako bikote komikoak ziren nire gogokoena. Chandler eta Janice, neska lagun ohia. Chandler eta Joey, pisukide. Eta komiko izan gabe ere, Monica eta Chandlerren harremana izan zen, dudarik gabe, telesail horretako bikote sano bakarra.

Denboraldi bakoitzeko Eskerak Emateko Egunaren atala iristeko zain egoten ginen denok. Zer momentu onak igaroarazten

zizkigun egun horrekiko zuen traumak. Horretan baitzen bikaina Perry bere pertsonaiarekin: momentu ilunenetatik umorea ateratzen.

Horren garrantzitsua izan zen Chandler telesailarentzat, ezen berari egokitu baitzitzaion azken esaldia. Hitz bakarreko galdera hark amaiera horren emotibitateari zama kendu eta pertsonaiaren izaera berretsi zigun betirako. Denak Monicaren pisuan daudela, kafe bat hartzera joatea proposatzen dute, etxea betirako utzi aurretik. Chandlerrek, txiste ironiko bat bota aurretik egin ohi duen begi mugimenduaz lagun-duta, dio: «Non?».

3Cat streaming plataforma sortu dute Kataluniako kate publikoek

Katalanezko ikus-entzunezko edukiak doan eskainiko ditu • Plataforma edonon erabili ahal izatea da luzera begirako helburua

Iraia Vieira Gil

«Katalanezko edukien fabrika handia» garatzeko helburuarekin, 3Cat streaming plataforma abiarazi du CCMA Kataluniako Ikus-entzunezko Komunikabideen Korporazioak. Atzo abiarazi zuten, eta, plataformako saio eskubioez gain, Kataluniako hedabide publikoetako hainbat eduki ere ikusgai daude jada; TV3 telebista kateak, Katalunya Radio irratiak eta Super Tres umeentzako kanalekoak, esaterako. Jaume Sisa kantautorearen *Qualsevol nit pot sortir el sol* obran inspiratu dira irekiera kanpainaren leloa egiteko: *Benvinguts, passeu, passeu*.

Erabiltzaileek atzotik eskuratu ahal dituzte plataformako edukiak, doan, baldin eta erabiltzen hasi aurretik behar bezala erregistratu badira. Ikusle guztientzako eskaintza zabala du, eta zuzeneko eta gaikako kanalak. Beste eduki batzuen artean, dokumentalak, entretenimendu saioak, filmak, podcastak, kirol emanaldiak eta aktualitate eta dibulgazio programak ditu erabiltzaileak es-

kuragarri. Rosa Roma 3Cateko zuzendariak azpimarratu duenez, kontsumitzaileak izan dira plataforma sortzeko ardatza: «Gero eta jende gehiagok erabaki nahi du non eta nola ikusten dituen saioak».

Aurkezpenaren jakinarazi dute saio batzuetako protagonistak eta aktoreak nortzuk izango diren. Horien artean daude, zehazki, Laura Escanes, Aina Clotet, Nuria Marin, Sofia Coll, Maria Nicolas, Natza Farre, Manel Alias, Narcis Bardalet, Carlos Porta, Elisenda Carod, Peyu, Toni Cruanyes, Albert Om, Quim Masferrer, Elena Gadel eta Maria Fernandez Vidal. Andreu Buenafuente umoristak, bestalde, *Vosaltres mateixos* programa estreinatuko du, eta ikusleen istorioak entzungo ditu hartan. Inprobisazioa oinarri hartuta, barre eragingo die ikusleei.

Romak berak adierazi duenez, 280.000 orduko ikus-entzunezko eskaintza batuko du, guztira, 3Catek. Apustu handia bada ere, ikus-entzuleak erakartzeko erreminta egokia dela uste du zuzendariak: «Katalan hutsean bizitze-



Rosa Roma 3Cat plataformako zuzendaria, hedabide berria aurkezten. 3CAT

ko modua emango duen plataformaz izango da 3Cat». Kontsumo ohitura berrietara egokituko dutela aurreratu du.

Eskaintza gehiena katalanezko eduki eskusiboek osatuko dute, baina plataformako sustatzaileek ohartarazi dute prest daudela katalanezko saioak egiten dituzten sortzaileekin akordioak sinatzeko ere. Bestalde, Filmin plataformarekin eta CCCC Kataluniako Casteller Taldeen Koordinakundearekin sinatuko dituzte hitzarmenak. Hurrengo hilabeteetan beste aliantza batzuk egitea espero dute.

Bestelako akordioak

Askotariko eskaintzak bateratuiko ditu plataforma berriak, eta, haren bidez, telebista eta irrati tradizionalen egiturak birmoldatu nahi dituzte katalanezko kate publikoetako langileek. Sigfrid

Grass TV3ko zuzendariak adierazi duenez, gainera, «katalanezko ikus-entzunezko industriaren motorra» bihurtu nahi dute. Horretarako, katalanezko edukiak edonon eta edonoiz kontsumitzeko aukera bermatu nahi diete erabiltzaile guztiei, eta hori da,

Catalunya Radio irratiak, TV3 telebista kateko eta Super Tres umeentzako kanaleko edukiak ditu 3Cat plataformak

hain zuzen ere, hemendik hamar urtera bete nahi dituzten helburuetako bat. Horrekin batera, katalanaren presentzia digitala handitu nahi dute.

Epe laburreko asmoei dagokionez, 2024ko udaberrian hasiera emango diote beste fase bati: «herrialde plataformaz» izendatuko dute. Mediapro ikus-entzunezko taldearekin sinatuko dute


orduan akordioa, eta horrek aukerak emango dizkie sektore artetiko harremanak eraikitzen jarraitzeko. Aldi berean, Mediaprok garatuko ditu 3Cat plataformaren behin betiko diseinua eta kudeaketa. Oraingoz, ordea, 30 milioi euroko aurrekontua dute plataforma aurrera eraman ahal izateko.

Amaitzeko, 3Cateko zuzendariak aipamena egin dio hizkuntzaren egoerari: «Katalana hondar hizkuntza bihurtzeko arriskua dago, eta horregatik da hain garrantzitsua 3Cat plataformaren presentzia digitala laguntza ezinbestekoa dela uste du, baina horien lan egiteko era gaur egungo beharretara egokitu behar dela. «Nonahi, noiznahi eta edozein gailutan erabiltzeko moduko erremintak behar ditugu».

Denbora pasak

HITZ GURUTZATUAK

Bete gurutzegrama eta borobiletan dauden letrak elkartzuz argazkian agertzen den arroilaren izena lortuko duzu. Letrak ezkerretik eskuinera eta goitik behera daude ordenatuta.



Ezker-eskuin.


1. Izatea. 6. Garbitze, xahutze.
13. Bilgor. 14. Hedatzera behartu.
16. Beldurti. 17. Atera. 18. Aintzira.
20. Ehun urte. 21. Gaixo.
22. Zoramen. 23. Musika.
26. Gela oso txiki eta bakartua.
28. Nafarroako herria, Lizoainibar udalerrikoa. 30. Zeltikoa. 33. Adinako. 35. Mirakulu. 36. Esku ibxi. 38. Aldapa. 40. Errepikatuz, ugaritasunez. 41. Irudi geometriko. 42. Jantzi mota (pl). 43. Benetan.
45. Ebazpena. 46. Puska, zati. 47. Luzaz irauteko joera duena. 48. Hegazti mota.




Goitik behera.

1. Ezkutu, sekretu. 2. Zehatzera behartu. 3. Kalkulatzeko taula. 4. Nazioarteko Olinpiar Batzordea. 5. Otamen.
7. Adinean sartu. 8. Burgoi, harro. 9. Metal noble eta preziatu.
10. Zerbait asmatu duenari ematen zaion agiri. 11. Deus.
12. Haur txikia. 15. ... Arzak, sukaldaria.
19. Apala, xumea. 24. Letra grekoak. 25. Eskinoso.
27. Berez. 29. Atzerriko estatu batek menperatutako lurraldea.
31. Elkarri lotutako petardo sortak.
32. Hegazkin. 33. Nafarroako udalerria. 34. Gaiak, materialak.
35. ... Angel Mintegi, idazle aitaundarra.
37. Zerbait tresnatan, sakatzen den pieza. 39. Abeslari multzo. 40. Barazki mota. 44. Haur hizkeran, altxatu.

SUDOKU ERRAZA



SUDOKU EZ HORREN ERRAZA



SUGEAK

Aurkitu beheko hitzak, kontuan izanda hitzak edozein norabidetan joan daitezkeela eta edozein forma hartu, baina inoiz ez diagonalean. Letra guztiak erabil behar dira.


L	K	N	O	K	R	E	A	H	A	O	T
A	I	A	U	B	R	B	R	T	Z	I	Z
B	G	R	R	K	I	Z	A	R	L	A	A
E	K	A	U	U	N	T	E	I	U	L	N
A	A	N	I	T	O	B	R	K	A	I	I
R	A	B	A	O	Z	E	R	I	M	I	N
K	S	E	B	K	I	R	E	G	A	K	A
A	U	R	U	K	K	E	U	A	Z	U	T
D	R	D	I	A	E	E	M	I	T	A	A
A	E	T	I	A	P	L	A	K	L	R	R
L	G	I	A	T	R	T	N	O	A	R	R
I	B	M	I	X	A	E	S	E	B	A	A
R	E	E	E	Z	G	N	A	A	R	I	D
T	I	L	E	U	A	I	O	N	A	A	N
U	T	A	T	T	T	A	D	A	M	M	I
O	K	U	P	A	R	A	B	A	S	U	R

BEREKIKOA
BESARKADA
BURURDIK
BURUARGIA
DONAMARIARRA
EPAITEGIA
ERREGAITZA
EZGAIA

KONKLABEA
KONTRAESAN
LABEA
LAIOTZA
LIBERTITU
NINIKATU
OKUPATU
SURIMANDARRA

TRABA
TRIKIMAILU
UMELA
ZAHARBERRIKUNTZA
TXIMELETA
ZOTINAK

LABIRINTOA



AURREKO ERANTZUNAK

S E S T A O B E Z A I N
O R E X A Z E K O R R A
F O R U E U L A T E A R
I T O E Z T E I A Z E
S U R F A K A T L E T A
T A R E A K Z E R O
A U T U I E L G O R A
D U I N N U L U A D
H A A T I K K A N P A I
A L U K A P E N E R T
B E S T E R I K O N D U
I K A S L E A I B A I A
A U T U A N E T I K A K

A B A D E I D I A D I B I D E A
B A B E S E R A B A S A B E R E
D A D O A Z U K D U D A Z K O A
E B A K I Z U T B E T I Z U A K
F A G O T A R I G R A F I T O A
G A B I A L E R G A B R I E L A
H A B E A G I N N A H I G A B E
J A I O A K A R I K A R A I O A
J A I A K Z E N E Z J A K I N A
K A B L E E S A E B A S L E A K
L A B A R E R I B E L A R R I A
M A G A L N O R M A R G O L A N

7 9 8 6 1 2 5 3 4
3 6 5 7 4 8 9 1 2
1 4 2 5 9 3 8 6 7
4 7 1 3 8 9 2 5 6
6 5 9 2 7 1 3 4 8
2 8 3 4 6 5 1 7 9
8 2 6 1 5 7 4 9 3
9 1 7 8 3 4 6 2 5
5 3 4 9 2 6 7 8 1

Tokiko produktuak indarra hartzen ari dira, ekoizleen arabera, eta horren adibide izan da Gernika-Lumoko urriko azken asteleheneko azoka. 307 postu jarri dituzte aurten, eta jendetza batu da herriko kaleetan. Urteroko ekoizleak egon dira, baita aurrenekoz joandako batzuk ere.

Gero eta bertokoagoak

Amaia Igartua Aristondo
Gernika-Lumo

Aipatu dituzte baserritarrak, nola ez; jende andana, bazterrezina; aho eta baso beteak, poltsa hutsagoak; «ezpain bustiak» nabarmendu ditu Andoni Egañak, eta txakolinarekiko grinaz mintzatu dira ondoren; «baserriaren folklorea» akordatu da Onintza Enbeita, eta salmenta apalak deitoratu ditu. Eta bertso saioak laster hartu ditu jan-edanaz besteko bideak, Gernika-Lumoko (Bizkaia) urriko azken astelehen batean bildu litezkeen ertzen lagin bat: Enbeitaren hanka lesionatua eta makulua, arratsaldeko zesta-punta, euskararen aurkako epaiak, Urdaibai-ko Guggenheim. «Hemen badago zer ikusia/ museo barririk barrik», aldarrikatu du Enbeitak, eta entzuleek gogotik txalotu dituzte bertsoak, eta eskertu, oihuekin. Berehala lasaitu ditu Sebastian Lizasok, hauteskunde giroaren kontua baino ez delakoan museo berria egiteko asmoa.

Bertsolarien aurrean, Merkurio iturri ingurua eta plaza, lepo. Inguruko kaleak ere postuz beteta. 307 egon dira aurten, eta, besteak beste, eskaini dituzte askotariko barazki eta frutak, eztiak, gaztak eta edari alkoholdunak. Azokaren giroa agerikoa da, ordea, azokara heldu baino lehen ere. Jendetzaren adibide bat goizean, estazioan. Muxikatik aurrera (Bizkaia), bagoiko jende mordoak lepoa luzatuta, helmugara noiz helduko zelan leio lurrunduetatik. Trenaren tartekako astinaldiek eragindako irriak, aspaldi desagertuak. «Ganadua ematen dugu», bota du andre batek,



Janaria prestatzen herriko kale batean. A. LOIOLA / FOKU



Emakume bat, fruta eta barazki postu batean egindako erosketak ordaintzen. A. L. / FOKU

oraindik umore arrastoarekin. «Nola sar liteke hainbeste jende tren batean?», galdetu du beste batek, jada estazioan; itzulerako trenaren zain dago, poltsak dago-

eneko barazkiz beteak ditu. «Tira, tren luza egiten da», bota dio aldamenekoak, trufaka.

Jendetza patxadaz mugitzen, bai estazioan eta bai herrian. Era-



Jendetza, atzo, Gernika-Lumoko Merkurio iturriaren inguruetan, urriko azken astelehenean.

A. LOIOLA / FOKU

Mari, Marisa, Sabin, Maitane eta Maria Isabel senideak, Juan Calzada kaleko barazki postuetatik gertu. Gernikarrak dira, eta urtero ateratzen dira buelta bat ematera, postuak kuxkuxeatzera, eta zerbait erostera, batik bat gazta. «Guk baserria daukagu, eta produktuak etxean ditugu», azaldu du Marisak. Azokazaleak dira, halere: ahal dutenetan joaten dira, ez soilik herrikora, baita Markina-Xemeingora (Bizkaia) eta Bilbokora, esate baterako.

«Jendea betiko lez dago: gehiago ez da sartzen», bota du Sabinnek. Eta hala da. Une oro lurrera begira mugitzen dira, erno estropezu ez egiteko haurren kotxeekin, ume koskortuagoekin, postuetara joateko gurutzatzen direnekin, postuen aurrean trago bat hartzen gelditutako taldeekin. Txorizo egosiaren usainak eta gaztaren ufada sarkorrek ematen dute tokiko erakusmahaien berri; begirada azkarrek osatzen dute paisaia: apaletan, gazta biribil mardulak, zizka-mizkaz beteta-

kusmahaietara heltzen ahalegintzen batzuk, aldenduago besteak. Aldameneko supermerkatuak, hutsik; ez, ordea, tabernak. Nora joan erabaki ezinik daude Jesus



Esnekien postu bat. A. L. / FOKU



A. LOJOLA / FOKU

«Bezeroek
behintzat
jakingo dute
produktu on bat
egiten dugula»

Mikel Etxezarreta
Gaztagilea

A. Igartua Aristondo
Gernika-Lumo

Olaberriko (Gipuzkoa) Aizpea gaztandegia gailendu da aurtan Gernika-Lumoko (Bizkaia) urriko azken asteleheneko azokako gazta lehiaketan. Mikel Etxezarreta ekoizlearen hitzetan (Zegama, Gipuzkoa, 1963), gakoetako bat produktua maitasunez egina izatea da; prozesua nabarmendu du, eta lehengaiak: alegia, esne ona. Aginagako (Araba) Aginfiga gaztandegiak lortu du bigarren postua, eta Elgoibarko (Gipuzkoa) Mausitxa izan da hirugarren. Irabazlea iragarri ondoren, enkantera aterata da gazta erdi bat, eta Juan Jose Diegok bereganatu du, 1.000 euroren truke –Fernando Malaetxebarriak jaso du haren izenean–. Herriko Calzada zahar etxeari emango diote dirua. **Zer sentitzen duzu lehiaketa irabazita?**

Oso-oso gustura nago. 28 urte bete arte, artzain transhumantea izan nintzen. Bizkaiko kostara etortzen ginen, Getxotik hasi eta Plentziara arte. Urriko azken astelehenean, hango jende pilo bat agurtzeko aukera daukat, eta gazta ekartzen diet; haiek urtean behin agurtzea oso inportantea da niretzat. Aurtan, gainera, irabazi egin dugu; beraz, are gusturago gaude.

Zein dira zure gaztaren dohaiak, zure ustez?

Beste ekoizle askoren gaztek dituzten berdinak: artaldeak, esne on eta garbi bat ateratzea, eta prozesua. Produktua mimatzen dugu, eta oso goxo ateratzen da.

Zein dira prozesuaren gakoak?

Esnea jetzi ondoren, upelera botatzen dugu; tenperatura jakin batean bota behar da gatzagia, ordu erdi bat utzi behar da, eta, gero, ebaki, nahastu, bildu eta moldatu beharra dago. Ostean, prentsara doa, eta handik gesalera. Gero, ontzera eramaten ditugu, kameretara.

Aurtan, nolakoa izan da ekoizpena?

Orokorrean, nahiko ona.

Azokan, agerikoa da gazta mota eta marka mordoak. Lehia handia dago gaztagileen artean?

Bai, bai. Gaur gu izan gara zortedunak, baina seguru nago lehen zortzi-hamar postuetan ez dela egon hainbesteko gorabehera.

Sariaren ondorioz, salneurria igoko duzue?

Guk lehendik daukagu prezio bat ezarrita, eta gure lanaren kostuaren eta balioaren arabera. Gaurko sariagatik, berez, guk ez dugu preziorik garestitutuko.

Gehiago salduko duzue, baina?

Ez dakit gehiago salduko dugun, baina bezeroek behintzat jakingo dute produktu on bat egiten gabiltzala.

ko platerak, giro epelean umotutako tomateak, errenkadan ordenatutako zerba hosto zabalak, lurrean botatako pikillo piper andana bat, txakolin marka eta moten segida amaigabe eta koloretsu bat. Musika ezin ozenagoak girtzen ditu herriko bazterrak, hantemenka ipinitako bozgorailu mordoetatik, eta erraz gailentzen zaio bisitarien zalapartari.

Lekaleak eta konbutxa

Hainbeste lagunen aurrean produktuak erakutsi ahal izatea, hori da azokaren indarguneetako bat, Oier Ibañezen, Balmaseda Activa (Bizkaia) elkarteko ordezkarietako baten berbei erreparatuta. San Tomas egunarekin eta beste bizpahirurekin batera, urriko azken astelehenean saltzen dute ekoizleek gehien, esan duenez. Base-ritarren produktuak estimatuak dira, gainera. «Poliki-poliki, igarri da tokiko produktua indarra hartzen ari dela». Iritzi berekoa da Gueñesko (Bizkaia) Barranca auzoko Edurne Asensio. «Enkar-

terrian, balioa ematen zaio tokiko produktuari. Ostegunetan merkatura joaten naiz, eta ilararik izaten ditut; jendeak badaiki bereizten. Nik jango ez nukeena ez dut salgai jarriko». Lehen aldia du Gernika-Lumoko urriko azken astelehenean, eta duen

Apaletan, gazta biribil mardulak daude, zizka-mizkaz betetako platerak, edota giro epelean umotutako tomateak

«sonagatik» erabaki du aurtan etortzea.

Kontrara, urte asko daramatza Pobesko (Araba) Yolanda Vicentek azokara joaten. Lekaleak saltzen ditu, eta garai ezin hobea da produktu horientzat, azaldu duenez. «Lehen azoka da non produktua jada badaukagun. Gainera, jendeak ez du bakarrik kilo bat hartzen, gehiago baizik, negua igarotzeko. Azoka udaberrian balitz, gutxiago salduko nuke». Aurreko urteetako antzeko ekoizpena izan du, eta prezioak ere ez dira

asko aldatu, nabarmendu duenez: 4,50 euroan du dilista eta garbantzu kiloak, eta 9 euroan indaba.

Baina hirurehun postu baino gehiagotan produktu askorentzako tokia dago, hala tradizionaltzat, nola nobedadeentzat.

Aurtan ere lehen urtea dute Sopelako (Bizkaia) Ama konbutxa edari hartizituaren ekoizleek, eta marka sortu berria ezagutarazteko hautatu dute Gernika-Lumoko erakusleihoa. Harrera denetarikoa izaten ari da, Nerea Ortiz ekoizlearen arabera. Jakin-mina badago: atzean, xehatua dute edaria zer den eta nola egiten duten, eta jende askok azalpenok irakurtzen ditu, eta dudak galdetu. «Oro har, ez dakite zer den; botila ikusita, uste dute garagardoa dela. Batzuek oso ondo hartu dute, probatzeko prest daude. Azukre gutxi duenez, eta ez duenez alko-holik... Gutxien espero genuen jendea ere animatu da».


ATZEOZ AURRERA
Urko Iridoy Alzelai Hondarribia

Hondarribiko (Gipuzkoa) San Pedro kaleko Gran Sol tabernako txoko guztietan ibilitakoa da Mikel Muñoz (Hondarribia, 1979): sukaldetan, zerbitzari lanetan, barran... Muñozek aitona-amonak eta gurasoak ikusi zituen tabernaren hastapenetan, eta gaur egun hark, bere taldearekin batera, bideratzen du Gran Sol. Euskal Herriko Pintxo Txapelketa irabazi berri dute, 2010, 2013 eta 2017. urteetan egin zuten moduan. Euskal Herrian, pintxoak dastatzeko erreferentzia bilakatu da azken hamarkadetan Gran Sol.

Euskal Herriko Pintxo Txapelketa irabazi berri duzue. Zergatik aurkeztu duzue Tizon pintxoak?

Tizon pintxoak izan da aurreko gure apustua. Txangurrua Donostiako erara da pintxoaren oinarria. Txangurrua jaki klasikoa da Euskal Herrian, eta horri buelta bat eman nahi genion. Txangurrua brioche batean sartzen dugu, eta briochearen oinarrian testurizaturako ke esfer bat ipini. Briochearen gainetik kimchi maionesa apur bat jartzen dugu, baita ozpinetako luzoker zati batzuk eta pasio fruituz osaturako perla batzuk ere. Azkenik, limoi birrindua eta kimu batzuk gehitzen ditugu. Zapore asko elkartzea eta oreka aurkitzea lortu dugu.

Tabernako sukaldaria da Inigo Tizon. Haren izena darama aurtengo txapelketako lanak, ezta?

Bai, baina azken finean talde oso baten emaitza da pintxoak. Taberna osatzen dugun pertsona guztiak parte hartu dugu garaipen honetan modu batera edo bestera.

Lehiaketako beste lanek maila handia izan zuten?

Ikaragarria. Urtero maila oso handia da. Nik ez nuen aukerarik izan beste pintxoak dastatzeko, baina lankideek esan zidaten bikainak zirela.

Zer da pintxo bat?



MAIALEN ANDRES / FOKU

«Pintxoek ez dute inongo mugarik»

Mikel Muñoz • Gran Sol tabernako kidea

Euskal Herriko Pintxo Txapelketa irabazi du taberna hondarribiarrek laugarrenez. Pintxoek arlo guztietan izandako «bilakaera eta hobekuntzaren» adibide nagusietarikoa bihurtu da.

Azken finean, pintxo bat dastatzeko jaki bat da. Txikia da, eskuz hartu eta mokadu batean jan daitekeena eta zirrara sor dezakeena. Plater batekin alderatuta, aniztasun handiagoa ematen du pintxoak, zapore gehiago dastatzeko aukera. Euskal Herrian pintxoak gauza oso garrantzitsua bilakatu da.

Jaki bat baino gehiago da pintxoak?

Noski. Pintxoak sozializatzeko aukera ematen dizu. Gure tabernetan barraren inguruan bildu izan gara betidanik, eta, gaur egun zailagoa izan arren, pintxoak ematen dizun abantailetakoa bat da. Poteoan ibil-

tzeko ezinbestekoa izan ohi da pintxoak hemen, eta gure kulturaren parte bilakatu da azkenean.

Beti ogia eta txotxa eduki behar-kio litzuzke?

Ogia eduki ohi du pintxoak, bai. Ogiaren funtzioa pintxoak eskuarekin jan ahal izatea da, eta pintxoak arlo guztietan bilakaera handia izan du. Guk tabernan modu askotakoak ditugu: eskuz jatekoak, zotzekin jaten direnak eta koilaraz jaten direnak, adibidez.

Ba al du mugarik pintxo batek?

Ez dut uste. Pintxoak baino gehiago, gure sormenak eduki dezake muga. Osagaiei begira, dozenaka

osagai dituzten pintxoak egin izan ditugu. Pintxoek ez dute inongo mugarik: guk jartzen dizkiegu mugak.

Zaila al da urtero zuen lana hobetzea?

Zaila da, baina aurrera begira beti hobetzen saiatzen gara, bai sukaldetan, bai bezeroekin dugun harremanean, baita gure lan egiteko sisteman ere. Eta pintxoekin berdin, noski.

Iritsiko da momenturen bat non ezin zaion bilakaera handiagoa eman pintxoaren munduari?

Ezin ditugu mugak jarri gure ibilbidean. Beti begiratu behar dugu aurrera, eta beti egongo da bai gu eta ba pintxoak hobetzeko moduren bat.

Lehiaketa baterako sortzeko prozesua nolokoa da?

Proba asko eta aldaketa asko. Aurtengo lehiaketarako gure sukaldari Inigo hainbat proba egin zituen, eta guk emandako gomendioekin eta hark aurkitutako formekin garatu zuen pintxoak. Gure prozesuak beti istorio batekin sortzen dira. Aurreko txangurrua hartu dugu aitzakia moduan, baina aurreko urteetan ere pintxo bakoitzak bere testuingurua izan zuen.

Laugarrenez irabazi duzue Euskal Herriko Pintxo Txapelketa. Aurkeztu dituzuenak gero eta hobeak al dira?

Ez dut uste aurkeztutakoak beti aurrekoak baino hobeak izan diren; oso desberdinak dira guztiak. 2013an, adibidez, Hondarribi pintxoak osagai asko zituen: bakailaoan eta gibel orean oinarrituta, zapo-reetan barrera bidaia eginazten zuen. 2017an, ganba broxeta bat aurkeztu genuen, betiko broxeta bat, baina elaborazio ugariarekin, betiko jaki bati eboluzioa emanez.

Zure ustez, ba al dago ezinbesteko osagaiarik pintxo batean?

Ez. Saiatu behar dugu aniztasuna lortzen eta zapore ezberdinak lantzen.

Beraz, edozer jaki sar dezakegu?

Bai, noski.

LOTSABAKO

Erreferente bat pintxoaren munduan? Gure anaia.
Pintxoekin batera zein edari? Txakolina.
Pintxoak jateko leku bat? Danako [Irun, Gipuzkoa].
Betiko pintxo bat? Ezinbestekoa da patata tortilla.